



EUSKO
LEGEBILTZARRARENTZAKO
TXOSTENA
2010

Haur eta Nerabeentzako
Bulegoaren txostena

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

www.ararteko.net

**HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN
TXOSTENA
2010. URTEA**



Lan hau Creative Commons-en Attribution 3.0 Unported lizentziapean dago



Lizentziaren kopia bat ikusteko,

- sartu hemen: <http://creativecommons.org/licenses/by/3.0/es/>

- edo gutun bat bidali helbide honetara: Creative Commons, 171 Second Street, Suite 300,
San Francisco, California, 94105, USA.

Txosten hau eskuragarri dago Arartekoaren web gunean

<http://www.ararteko.net>

Ararteko erakundearen beste argitalpen batzuk kontsultatzeko:

<http://argitalpen.ararteko.net>

ARARTEKO

Itzulpena: Hori Hori S.A.L.

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A.

Paper ekologikoa.

L.G.: VI 118-2011

**HAUR ETA NERABEENTZAKO BULEGOAREN
TXOSTENA**

2010. URTEA





AURKIBIDEA



Aurkezpena	11
1. Jarduera-esparrua 2010-2014	13
2. Arau-eta gizarte-testuingurua	17
2.1. EAEko adingabeen egoeraren adierazle nagusiak.....	19
2.1.1. <i>Demografia</i>	19
2.1.2. <i>Familia anitzak</i>	22
2.1.3. <i>Osasuna</i>	23
2.1.4. <i>Hezkuntzari buruzko oinarrizko datuak</i>	24
2.1.5. <i>Ekonomia-baliabideak; pobrezia-eragina</i>	24
2.1.6. <i>Nerabeen aisialdia</i>	25
2.2. Arau- eta eskumen-markoa.....	27
3. Kexak eta kontsultak	33
3.1. Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa izandakoaren espedienteak.....	35
3.2. Neska-mutilei eta nerabeen edo haiei buruzko espedienteak.....	35
3.3. Zenbait kexa nabarmen.....	40
3.3.1. <i>Arartekoaren 1/2010 Gomendio orokorra, urriaren 15ekoa Gurasoen erantzukizun partekatua banandutako bikoteetan: botere publikoen eginkizuna</i>	40
3.3.2. <i>Arartekoaren 4/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 23koa: Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea</i>	42
3.3.3. <i>Arartekoaren 5/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 28koa. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeko neurri gisa bideratzea lanaldia murrizteko eta moldatzeko edo aldatzeko eskaerak</i>	42
3.3.4. <i>APREVAS. Euskadiko Haur Goiztiarren Elkartea</i>	43
4. Arrisku egoera berezien bilakaera aztertzea	45
4.1. Babesik gabeko haurrak eta nerabeak.....	47
4.1.1. <i>Arau garapena, tresna komunak eta protokoloak</i>	48
4.1.2. <i>Babesik gabeko haur eta nerabeentzako arreta</i>	49
4.1.2.1. <i>Arabako Lurralde Historikoa</i>	50
4.1.2.2. <i>Bizkaiko Lurralde Historikoa</i>	60
4.1.2.3. <i>Gipuzkoako Lurralde Historikoa</i>	66
4.1.2.4. <i>Hiru Lurralde Historikoetan berdinak diren zenbait gai</i>	75

4.2.	Adingabe lege-hausleak.....	79
4.3.	Hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak.....	87
4.3.1.	<i>Ezgaitasunarekin lotutako hezkuntza-behar bereziei erantzutea</i>	87
4.3.2.	<i>Biztanleria immigrantearen berariazko beharrei erantzutea</i>	88
4.3.3.	<i>Ijito herriko neska-mutilen eta nerabeen berariazko beharrei erantzutea</i>	89
4.3.4.	<i>Gizarte-egoera ahulean dagoen biztanleriaren berariazko beharrei erantzutea</i>	89
4.4.	Tratu txarren edo eskola-jazarpenaren egoerak.....	92
4.5.	Osasun mentaleko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak.....	97
4.6.	Beste arrisku egoera batzuk.....	98
5.	Txosten bereziak	101
5.1.	<i>EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan izeneko txosten berezia</i>	103
5.2.	Arrisku egoera berezietan dauden haurrei buruzko txosten berezia.....	105
5.3.	Beka: Adingabeak edo atzerritarrak? Bakarrik dauden adingabe etorkinei buruzko interbentzioko politikak.....	106
6.	Haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzeko jarduerak	109
6.1.	Gizarte-eragileekin lankidetzatza.....	111
6.2.	Erakundeen organismoekin eta baliabideekin lankidetzatza.....	112
6.3.	Ekintzetan parte hartzea.....	113
6.4.	Ikastetxeetara materialak bidaltzea.....	114
6.5.	Adingabeentzako web orrialdeak.....	114
6.6.	Eskola-lanen V. Lehiaketa "Gure eskubideak".....	115
7.	Gure haurren eta nerabeen ahotsa	117
7.1.	Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Kontseilua.....	119
7.1.1.	<i>Kontseiluaren funtzioak eta helburuak</i>	120
7.1.2.	<i>Osaera eta kontseilariak hautatzeko prozesua</i>	120
7.1.3.	<i>Lan-dinamika eta funtzionamendu-arauak</i>	121
7.1.4.	<i>2010ean izandako bilerak</i>	121
7.2.	Nerabeen iritzia droga-kontsumoari buruz.....	129
8.	Ondorioak	133
9.	Taulen eta grafikoen aurkibidea	137
9.1.	Taulen aurkibidea.....	139
9.2.	Grafikoen aurkibidea.....	140

AURKEZPENA

Aurten, Arartekoak Eusko Legebiltzarrari urtero aurkezten dion txostenaren formatuak berrikuntza bat izan du, eta berrikuntza horrek zerikusia du hurrekin eta nerabeekin lotutako informazioa separata honetan aurkeztearekin. Arartekoak haurren eta nerabeen errealitatearekin eta eskubideekin lotutako lana hobeto proiektatzeko asmo argiaren adierazle garbia da, eta asmo horren adierazpen nagusia izan zen Haur eta Nerabeentzako Bulegoa abian jartzea 2010. urtean. Era berean, azken urteetan alor horrek gero eta luzera handiagoa okupatu du urteko txostenetan, eta luzera handi horren ondorio zuzena ere bada separata hau aurkeztea.

Kontuan izan Eusko Legebiltzarrarentzako 2010eko txostenaren moduko osotasun baten zati izango den dokumentua egiteaz gain, aparte irakur daitezkeen dokumentu bat ere egin nahi dela. Arrisku egoera berezian dagoen talde honentzako jarduerekin gertatu ohi dena da: Arartekoaren jardueraren zati bereiztezina izanda, haien eskubideak bermatzeko kezka, interesa eta jarduerak **zeharkako ikuspuntu** batetik egiten dira. Ikuspuntu horrek adingabearen interes gorenari ematen dio lehentasuna, kaltetako eremua edo bizi-esfera edozein izanda ere.

Formatu berri honi arreta jarritz, dokumentuak haurren eta nerabeen egoerarekin lotutako informaziorik esanguratsuena jaso nahi du eskubideak bermatzeko ikuspuntu bat oinarri hartuta. Era berean, 2010. urtean arlo horretan egindako jarduera nagusiak ere jasoko ditu.

Informazioa zortzi kapitulutan egituratuta dago. Lehenengo bi kapituluak atarikitzat har daitezke, testuinguruzko elementuak aurkezten dituzten neurrian: Haur eta Nerabeentzako Bulegoak lau urteko denbora-tarterako planifikatu dituen lan-ildo nagusiak, non lehen urte honetako jarduerak (I. kapitulua) kokatzen diren; egoera-adierazleen multzo soil bat eta erreferente nagusiak zehazten dituen arau-markoa, berriz, II. kapituluan.

III. kapituluak Arartekoan aurkeztutako kexak lantzen dira. Adingabeek edo adingabeen ordezkari legalek aurkezten dituzten kexa horiek, edo gure ustez, azaldutako egoerengatik kaltetutako adingabeak daude. Horrenbestez, beharrezkoa da egoera horiek aztertzea, gerta daitezkeen arrisku egoeren diagnosi bezala bada ere.

IV. kapituluan, urtero urteko txostenean adingabeen atalaren zati handiena osatu duena aurkezten da: Administrazio eskumendunei gomendatu zitzaizkien egoeren jarraipenak, aurreko urteetako txosten berezietan sakonki aztertu direnak. Beharrezkoa da hemen adieraztea, kapituluaren hasierako paragrafoetan egingo dugun bezala, arrisku egoera berezietan dauden haurrei buruzko txosten berezi bat berehala argitaratuko dela, eta txosten horretan, egoera horietako batzuei buruzko bilakaera xehetasunez eta sakonki aztertzen denez, ohikoa izan zitekeena baino eduki txikiagoa izango dugula txosten honetan. Edonola ere, hemen azaldutako datuak beste txosten horretan adierazitako segiden eta, kasu gehienetan, hausnarketan jarraipentzat hartu behar dira.

V. eta VI. kapituluetan, haurren eskubideak errespetatzeko kultura sortzen laguntzen garrantzi berezia izan duten azterketak, dokumentuak eta jarduerak lotzen dira: jakintza trukatzeko foroetan parte hartzea, beste gizarte- eta erakunde-eragile batzuekin lankidetzan jardutea, sareetan parte hartzea, materialak editatzea eta abar dira atal horietan aipatzen diren batzuk.

VII. kapituluan, hemendik aurrera elementu jarraitua eta indartsua izatea nahiko genukeena azalduko da: gure haurren eta nerabeen ahotsa, parte-hartzeko foro egonkorretan nahiz beste espazio zehatzago eta sektorialago batzuetan edo egoeraren araberako beste espazio batzuetan, eragiten dieten gai horiei buruzko haien ikuspuntua adierazteko. Hainbat orrialdetan azaltzen da zer egin dugun aurten gai horren gainean eta zeintzuk izan diren beraien ekarpenik esanguratsuenak azaldutako gai batzuei buruz.

Azkenik, VIII. kapituluak dokumentuari amaiera ematen dio ondorio labur batzuen bidez.

1

**JARDUERA-ESPARRUA
2010-2014**

1. JARDUERA-ESPARRUA 2010-2014

Haurren eta nerabeen egoeraren inguruko kezka eta interesa iraunkorra izan da Arartekoaren jardueran hasiera-hasieratik.

Tradizioan, denbora eta espazio gehien hartu duen arloa izan da, kontuan izanda biztanleriaren sektore bereziki ahula eta bermatu beharreko eskubide espezifikoak dituen dela, eta horrenbestez, lehentasunezko arreta zor zaiola. Arlo horrek hainbesteko garrantzia du, ezen 2010. urtearen hasieran gai hori aintzatestea eta berariazko **bulego** bati herritartze-agiria ematea erabaki zen. Bulego horrek Arartekoak haurren eta nerabeen errealitateekin eta eskubideekin lotuta egindako lana hobeto sistematizatu eta proiektatu zuen.

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak adingabeen egoeraren pertzepzio hobea lortuko duten zerbitzuaren barne- eta antolakuntza-hobekuntzak egin ditu, Arartekoaren jardueraren orokorrekin lotuta. Horrez gainera, Bulegoa hori datozen urteetan **interbentzio-ildo** hauen inguruan zenbait jarduerak garatzeko asmoz sortu da.

1) *Egoera bereziki ahulean dauden sektoreei lehentasunezko arreta ematea*

Egoera bereziki ahulean dauden haurrei eta nerabeei zuzendutako proposamenak lantzen jarraitzeak berekin dakar haien errealitatea nolakoa den ondo jakitea. Horretarako, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak hautemandako beste problematika batzuk ikertuko ditu, eta aldi berean, bere garaian txosten eta analisi sakonen xede izan ziren problematiken jarraipena egingo du. Bisitak, profesionalekin hitz egitea, gizarte-erakundeekin eta herri-administrazioen arduradunekin elkarrizketak eta bilerak, informazio-eskaerak, ikerketa-bekak, behatokiek egindako dokumentuak irakurtzea, eta haurrak eta nerabeak artatzeko baliabideak. Tresna horien guztien bidez elikatu behar da adingabeen errealitatearen jakintza informazio esanguratsua.

2) *Adingabeek parte hartzeko eta beren ahotsa entzunarazteko aukerak sustatzea*

Haurrentzat eta nerabeentzat lan egitea garrantzitsua bada, hain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa da haiekin lan egitea. Haien ahotsak, iritziak eta ikuspuntuak entzutea. Parte hartzeko, kontsultarako eta aholkularitzarako bideak eskaintzea. Ildo horretan, hainbat ekimen daude, besteak beste: nerabeek parte hartzeko kontseilu bat eratzea, Arartekoaren organo aholku-emalea izateko; Arartekoaren web orrialdean parte hartzeko aukerak zabaltzea komunikazioaren teknologia berrien bidez; eta adingabeen iritzi gehiago agertzea ikerketetan, bisitetan eta txostenetan.

3) *Haurren eskubideen kultura hedatzea*

Helburua da sentsibilizatzea, informazioa helaraztea eta hausnarketa sustatzea, haurren eskubideari dagokionez, helduen eta zuzenean hurrekin lan egiten duten profesionalen artean nahiz haurren eta nerabeen artean. Zenbait hartzaileentzat

berariazko material didaktikoa egitea eta hedatzea, praktika egokiak sustatzea eta trukitzea, eta gai horrekin lotutako ekintzetan eta hitzaldietan parte hartzea dira lan-ildo horretako jarduera nagusiak.

4) *Haurrekin eta nerabeekin lan egiten duten beste gizarte-eragile, elkarte, zerbitzu eta erakunde batzuekin lankidetzatza sustatzea.*

Sarean lan egitea, talde- eta lankidetzatza-lana ezinbesteko betekizunak dira gero eta gizarte konplexuago eta espezializatuago honetan. Arartekoaren Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren praktika printzipio horrekin lotzea nahi dugu, gutxienez. Horrek berekin dakar topaguneetan, trukeetan eta lan-espazioetan parte hartzea, besteak beste: herri-administrazioekin eta haurrekin konpromisoa hartuta duten erakundeekin, herriaren beste defentsa erakunde batzuekin beren adingabeen arloetan, eta unibertsitateekin eta haurren errealitatearen inguruko jakintza kudeatzeko baliabideekin. Eta Haur eta Nerabeentzako Bulegoa buru duten proposamenek nahiz egindako lankidetzatza-eskaerei erantzuteko: garrantzitsuena ez da nork hartzen duen aurrea, baizik eta denok artean zer eraikitzen dugun.

Eta hori guztia ustez okerrak edo legez kontrakoak izan diren jarduera publikoen inguruan ***adingabeen kexen eta demanden edo adingabeekin lotutako kexen eta demanden artapena eta ikerketa*** baztertu gabe. Arartekoaren zeregin garrantzitsuenetako bat da pertsonen eskubideen defentsan, administrazioen jarduera eta politika publikoekin lotuta.

Jarduera-ildo horien esparruan garatu da Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren jarduna 2010. urtean zehar. Dokumentu honen erdiko kapituluaren xede izango da jardun hori.

ARAU- ETA GIZARTE-TESTUINGURUA

2. ARAU- ETA GIZARTE-TESTUINGURUA

Haur eta Nerabeentzako Bulegoak 2010. urtean garatutako jardunak aurreko kapituluan oro har adierazitako helburuei erantzuten die. Hala ere, ez dugu ahaztu behar erantzun nahi dion gizarte- eta arau-testuinguru batean gertatzen dela, eta era berean, bere jarduna egiteko modu zehatza mugatu eta baldintzatzen duela. Hori dela eta, adingabeen esparruan egindako xehetasunez azaltzen hasi baino lehen, hurrengo orrietan, gure ustez, hurrekin eta nerabeekin lotuta esanguratsuak diren datu nagusiak eskainiko ditugu. Halaber, jardueraren arau-testuingurua osatzen duten legeak, dekretuak eta erregelamenduak ere aurkeztuko ditugu.

2.1. EAEko adingabeen egoeraren adierazle nagusiak¹

Atal honen helburua da EAEko haurren eta nerabeen egoerari buruzko ikuspuntu orokor bat ematea ahalik eta daturik eguneratuenean bidez (bigarren mailako iturrietatik hartuak), eta zenbaitetan, datu horien bilakaera historikoari arreta jarritz. Aipagarria da esparru horretako datu-bilduma gero eta zabalagoa dela, baina oraindik zenbait hutsune dituela zenbait gai edo errealitate jakinei buruz. Halaber, dauden datuak ez dira behar bezain erabilgarriak banaketa desegokiagatik edo banaketa ez datorrelako bat estatistika-eragiketen artean (horrek eragina du datuen alderagarritasunean), eta bilketa eta sistematizazioa ez delako nahikoa izan. Haurren eta nerabeen informazio-sistema bat behar da, parametro, irizpide eta adierazle partekatuak izango dituen, eta haurren esparruko eragile gehienek, gizarte-nahiz erakunde-eragileek, hala adierazten dute. Edonola ere, gure haurren eta nerabeen errealitatearen datu batzuk emango dira beren parametro nagusietan *argazki* bat balira bezala. Salbuespen bat egin da: ez dira jarraipen berezia behar duten egoeren datuak aurkeztu, egoera horiek laugarren kapituluan aurkeztuko baitira.

2.1.1. Demografia

2010. urtearen hasieran, 0 eta 17 urte arteko 330.594 pertsona bizi ziren EAEn; hau da, biztanleria osoaren %15,5. Lurralde historikoen arteko aldeak ez dira oso handiak. Gipuzkoan dago haur eta nerabeen ehuneko handiena (%16,4), eta Bizkaian, txikiena (%14,8). 1991. urtetik aurrera, 0 eta 17 urte arteko biztanleria pixkanaka txikituz joan da. Lehen biztanleriaren ia %22 zen, eta milurtekoaren lehen urteetan %14 izatera igaro zen. 2008. urtean, goera txiki bat igarri zen eta biztanleriaren %15 baino gehiago izatera pasatu zen.

¹ Atal honetan emandako informazioaren zati garrantzitsu bat "Haurren eta nerabeen egoerari buruzko azterlana, beraien eskubideen eta bizi-kalitatearen ikuspegitik (EAE)" izenburuko lanetik atera dugu. Azterlan hori orain indargabetuta dagoen Haur eta Nerabeen Defentsa-erakundeak agindu zion [EDE Fundazioari](#), [Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzaren jabetzakoa](#) da eta oraindik argitaratzeko dago.

1. taula. Biztanleria adingabearen bilakaera lurralde historikoen arabera (1991-2010)

		Biztanleak, guztira	18 urte > biztanleak	% zenbat adingabe erreferentziako biztanle guztietatik
EAE	1991	2.104.041	462.113	%21,9
	1995	2.084.996	384.416	%18,4
	2001	2.082.587	307.840	%14,7
	2010	2.138.590	330.594	%15,5
ARABA	1991	272.447	64.050	%23,5
	1995	275.801	54.041 *	%19,5
	2001	286.387	43.750	%15,2
	2010	310.562	48.299	%15,6
BIZKAIA	1991	1.155.106	250.003	%21,6
	1995	1.138.873	206.969*	%18,1
	2001	1.122.637	161.349	%14,3
	2010	1.136.859	168.703	%14,8
GIPUZKOA	1991	676.488	148.060	%21,8
	1995	670.322	123.401 *	%18,4
	2001	673.563	102.741	%15,2
	2010	691.169	113.594	%16,4

(Iturria: [Estatistikako Institutu Nazionala](#) 1991-2001 urteak: Biztanle- eta Etxebizitza-errola Martxoaren 1eko eta azaroaren 1eko datuak, hurrenez hurren. 1995. urtea: Biztanleriaren errolda arteko kalkuluak, 1991ko Errolda oinarri hartuta. 2010. urtea: Egungo biztanleriaren kalkuluak, 2001eko Errolda oinarri hartuta. Urtarrilaren 1eko datuak. Guk eginda).

* Lurralde historikoen arabeko biztanle-banaketa dela-eta, ez dago informazio zehatzik 2002ko urtarrilaren 1era arte, biztanle-erroldak izan ezik (1991, 2001). 1995. urterako, EAE osoko 18 urtetik beherako biztanleen egiazko datuetan oinarrituta, biztanle horiek lurralde historiko bakoitzean nola banatuta zeuden kalkulatu da 1995ean lurralde historiko bakoitzeko 0 eta 19 urte bitarteko biztanleen banaketa-portzentajeak abiapuntu hartuta (Araba, %14,058, Bizkaia, %53,84 eta Gipuzkoa %32,10).

Pertsona horien %51 mutilak dira, eta %49, neskak. Adin-taldee dagokionez ere banaketa orekatua dago. 0 eta 4 urte arteko haurrak dira talderik handiena, guztizko biztanleria adingabearen %27,54. Atzetik dituzten 5 eta 9 urte arteko taldea eta 15 eta 19 urte arteko taldea, talde horietako bakoitzak guztizkoaren %24 osatzen duelarik.

2. taula. 18 urte baino gutxiagoko biztanleriaren datuak, adinaren, sexuaren eta lurralde historikoaren arabera 2009. urtean

	EAE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA		
	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira	E	G	Guztira
0 urte	9.789	10.402	20.191	1.426	1.517	2.943	4.926	5.234	10.160	3.437	3.651	7.088
urte 1	9.795	10.377	20.172	1.401	1.480	2.881	5.021	5.327	10.348	3.373	3.570	6.943
2 urte	9.438	9.994	19.432	1.321	1.392	2.713	4.843	5.134	9.977	3.274	3.468	6.742
3 urte	9.444	9.980	19.424	1.332	1.402	2.734	4.845	5.118	9.963	3.267	3.460	6.727
4 urte	9.415	9.940	19.355	1.341	1.407	2.748	4.826	5.092	9.918	3.248	3.441	6.689
5 urte	9.658	10.222	19.880	1.384	1.458	2.842	4.946	5.228	10.174	3.328	3.565	6.864
6 urte	9.056	9.597	18.653	1.304	1.383	2.687	4.629	4.895	9.524	3.123	3.319	6.442
7 urte	9.022	9.535	18.554	1.353	1.357	2.710	4.600	4.893	9.493	3.069	3.282	6.351
8 urte	8.810	9.337	18.147	1.331	1.405	2.736	4.443	4.754	9.197	3.036	3.178	6.214
9 urte	8.735	9.045	17.780	1.308	1.265	2.573	4.409	4.656	9.065	3.018	3.124	6.142
10 urte	8.233	8.796	17.029	1.229	1.261	2.490	4.115	4.488	8.603	2.889	3.047	5.936
11 urte	8.214	8.665	16.879	1.218	1.255	2.473	4.209	4.353	8.562	2.787	3.057	5.844
12 urte	8.038	8.495	16.533	1.166	1.278	2.444	4.096	4.260	8.356	2.776	2.957	5.733
13 urte	7.983	8.423	16.406	1.149	1.216	2.365	4.087	4.259	8.346	2.747	2.948	5.695
14 urte	7.966	8.400	16.366	1.130	1.219	2.349	4.171	4.310	8.481	2.665	2.871	5.536
15 urte	7.973	8.439	16.412	1.204	1.236	2.440	4.081	4.361	8.442	2.688	2.842	5.530
16 urte	8.110	8.512	16.622	1.187	1.222	2.409	4.214	4.450	8.664	2.709	2.840	5.549
17 urte	8.298	8.684	16.982	1.234	1.303	2.537	4.378	4.472	8.850	2.686	2.909	5.595
Guztira	157.977	166.840	324.817	23.018	24.056	47.074	80.839	85.284	166.123	54.120	57.500	111.620

(Iturria: Estatistikako Institutu Nazionalea Egungo biztanleriaren kalkulak, 2001eko Errolda oinarri hartuta. 2009ko urtarrilaren 1eko datuak. Guk eginda).

Migrazio-mugimenduei buruzko jakintzak osatzen du demografia-analisi hori, batez ere azken urteetan EAEn erregistratutako biztanleria atzerritarren handitzea kontuan hartuz. Aurreko paragrafoetan aipatutako haurren eta nerabeen %6,12 atzerrian jaiotakoa da. Horietako 10etik 6k 10 eta 18 urte artean dituzte; zehazki %31k, 15 eta 18 urte artean dituzte; eta ia %28k, 10 eta 14 artean. Era berean, adierazi behar da egun EAEn dauden atzerrian jaiotako pertsonen guztizkoaren ia %18k 0 eta 18 urte artean duela.

2.1.2. *Familia anitzak*²

2008. urtean, *guraso bakarreko 10 etxetatik* 3tan 16 urte baino gutxiagoko biztanleria ze-goen. Bestetik, EAeko 16 urte baino gutxiagoko pertsonen %6 guraso bakarreko etxeetan bizi zen (dibortzioa izan den edo bikotekide bat hil den etxeen %93).

Familia ugariak guztizko etxeen %5,6 osatzen zuten 1996an; 2008an, %3 baino ez. Horrek esan nahi du mota horretako 18.419 familia daudela guztira. Zalantzari gabe, beherakada nabarmena izan da, 1996. urtean erregistratutako 32.056 familiekin alderatzen badugu.

2009. urtean, familia ugarien 18.191 titulu indarrean zeudela erregistratu zen. %5a 5 seme-alaba edo gehiagoko familiei zegokien; eta %13a, ezgaitasunen bat zuen seme-alabaren bat zuten famili ugarietara. Halaber, garrantzitsua da azpimarratzea egindako 10 titulutatik 3 lehen titularrak atzerritarra zuten familiei zegozkiela.

Ezkontzeko adinari dagokionez, ia ez da erregistratu ezkonberrietako bat adingabea izan den ezkontzen kasurik, eta aipagarria da 19 urteko edo gutxiagoko ezkonberrien kopuruak bilakaera izan duela: 1986an guztizkoen %4,37 ziren; eta 2007an, %0,27 baino ez. Ijitoen ezkontza-errealitate berezitua ere azpimarratu beharrekoa da. Izan ere, ijitoen artean ezkontzeko batez besteko adina 18 urtekoa da; 19 urte mutilen artean, eta 17 urte nesken artean (biztanleria orokorrean, 33 urte dira mutilen artean, eta 31 nesken artean).

Adingabeak zaintzeko aukerak

Gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistika (2006) lanaren arabera, 5 urte baino gutxiagoko biztanleriaren %75 haurtzaindegietan edo ikastetxeetan zaintzen dituzte. Hala ere, alde handia igartzen da adinaren arabera. Izan ere, 3 urtetik aurreko haurren ia %100 zentzoren batean zaintzen da, baina oraindik urte bat ez duten haurren 10etik 8 ez dira zentro bakar batean ere zaintzen, familiek hala nahi izaten baitute. Urte bat betetzen dutenetik, arreta areagotu egiten da, eta ia 30 puntutan handitzen da haurtzaindegietan eta ikastetxeetan zaintzen dituzten adingabeen ehunekoa.

² Atal hau idazteko, "*Familiei Laguntzeko III. Planerako Diagnostikoa*"n jasotako informazioa hartu da oinarritzat. Diagnostiko hori Eusko Jaurlaritzaren *Familia eta Komunitate Politikako Zuzendaritzarena* da.

Ohikoa da aitona-amonen familia-laguntza eskatzea, iloben ardura har dezaten. 2004ko etxeetako inkestan ohartu ziren 13 urte baino gutxiagoko adingabeak dituzten EAEko 1.360 etxe inguruk aitona-amonengana edo beste senideren batengana jotzen zutela, adingabeak zaintzeko. Horrek esan nahi du familia horien %37k laguntza mota horiek erabiltzen zituztela (eta batez ere 3 urte baino gutxiagoko adingabeak zaintzeko. Adin-tarte horretan, aitona-amonek eta senideek haur horien %49 zaintzen dute).

Seme-alabak zaintzeko etxe-zerbitzua erabiltzeari dagokionez, ikus daiteke baliabide horrek garrantzi gutxiago duela familia-arretak baino, eta 13 urte baino gutxiagoko adingabeak dituzten familien %12k baino ez duela erabiltzen, nahiz eta 3 urte baino gutxiagoko seme-alabak dituzten familien artean ehuneko hori handiagoa izan.

2.1.3. Osasuna

Osasunaren esparruan eskuratutako datuek oso ikuspuntu mugatua eskaintzen dute, ospitaleko altei buruzkoak baino ez baitira, eta ospitalean sartzeari behar izan ez duten patologia batzertzen baitituzte. Oro har, hauek dira EAEko haurren ohiko patologia batzuk: pneumonia eta asma, arnasa-aparatuko gaixotasunen artean; apendizitisa eta sabelaldeko barrunbeto hernia, digestio-aparatuko gaixotasunen artean; eta otitisa eta begiko arazoak, nerbio-sistemaren eta zentzumen-organoen gaixotasunen artean. Gainera, 6 urtetik aurrera, lesioekin eta pozoitzeekin lotutako kasuak areagotu egiten dira, eta ospitaleko alden kausa nagusietakoak bihurtzen dira.

EAEko 0 eta 19 urte arteko haurren eta gazteen heriotza-tasa espezifikoak %0,75ekoa zen 2007an. Beraz, talde horretako heriotzak gutzitzekoaren %1 ziren ozta-ozta. Heriotza horien gehiengoa haurrak oso txikiak direnean gertatzen da, zehazki urte bat baino gutxiago dutenean. Kausak jaiotza-inguruan sortutako gaitzekin lotuta daude. Malformazioengatik, deformazioengatik edo anomalia kromosomikoengatik heriotzak heriotza-kausarik ohikoenak dira jaiotza-inguruan izandako heriotzen atzetik. eta haurrak oso txikiak direnean gertatzen dira batez ere (10etik 8 urte bat baino gutxiago dutenean). Adingabeen artean, traumatismoak eta pozoitzeak dira hurrengo heriotza-kausak nagusiak. 10 eta 19 urte arteko adinetan gertatu ohi dira batez ere.

Mendeko pertsona adingabeak

Autonomia eta Ezinduentzako Laguntzarako Sistemak (SAAD) jasotako informazioaren arabera (SISAAD), 2010eko abenduan kalkulatu zen edozein gradutan eta mailatan mendekotzat hartzen ziren 0 eta 18 urte arteko 2.824 pertsona zeudela EAEko. Guztizko irizpenen %0,2 0 eta 3 urteko pertsonentzat izan zen, eta %3,6, 4 eta 18 urteko pertsonentzat. Mendeko adingabeen kopuru hori EAEko adingabeen %0,85 da.

2.1.4. *Hezkuntzari buruzko oinarrizko datuak*

Eskolatzetasa ia ehuneko ehunekoa da 3 eta 16 urte arteko biztanleriaren artean. Azpimarratu behar da 15 eta 16 urteko neska-mutilen ehuneko txiki bat eskolatu gabe dagoela. Eskolatzetasa jaisten hasten da hezkuntzak derrigorrezkoa izateari uzten dionean eta eskolatzetadina aurrera egin ahala txikitu egiten da. Hala ere, azpimarragarria da 19 urteko 10 gaztetatik 7k eskolatuta jarraitzen duela, %19k oraindik ez duela gaitasun gaitasuna izan behar zuen maila, eta gainerakoak Lanbide Heziketa edo unibertsitateko ikasketak egiten ari direla.

Demografiaren atalean aurkeztutako datuen arabera, gaur egun EAEn 0 eta 3 urte arteko 59.890 adingabe daude guztira. Horietatik %49 inguru lehen zikloko lehen hezkuntzako ikastetxe arauetan matrikulatuta dago. Bestetik, lehen aurkeztutako eskolatzetasek adierazten dute 3 urteko neska-mutilen ehuneko ehun gutxi gorabehera eskolatuta dagoela, eta 2 urte dituzten haurren artean eskolatzetasa %91koa dela. Hezkuntza-sisteman, haur gazteen presentzia nabarmen jaisten da urte bat dutenen artean, %36ko eskolatzetasa dutelarik, eta urte bat baino gutxiago dutenen artean, %17ko eskolatzetasa dutelarik.

Hezkuntza berezia

Hezkuntza bereziko guztizko matrikulazioak, ikasgela irekikoak (zentro normalizatuak) nahiz itxikoak (zentro espezifikoak), kontuan hartzen badira, guztira 10.213 dira. Hamarretik zazpi mutilak dira. %45ak hezkuntza-behar berezi ez-iraunkorak ditu, eta %18ak, arazo emozional larriak. Hirugarren talde handiena ezgaitasun psikikoak dituzten ikasleena da (%15), eta laugarrena, autismoa duten pertsonena (%6). Ikasle horien %0,52k arreta berezia behar du bere supergaitasun intelektualarentzat. Hamarretik bederatzi zentro arruntetan sartuta daude, eta ikasgela irekiak esaten zaienetara joaten dira.

2.1.5. *Ekonomia-baliabideak; pobrezia eragina*

Haurren eta nerabeen etxeko ekonomia-baliabideek, etxebizitzaren ezaugarriek edo ekonomia-eskuragarritasunak adieraz dezakete haurrek eta nerabeek zer ongizate material eta ekonomiko duten- Hori dela eta, atal honen adingabea testuinguruan sartu nahi du ingurune materialaren baitan.

[Gizarte-zerbitzuen eskariari buruzko estatistikako](#) datuen arabera, 2006. urtean, EAeko etxeen %4,9an diru-sarrerak txikiagoak ziren gastuak baino txikiagoak eta, gainera, ez zuten behar adina aurrezki desfaseari aurre egiteko.

Beste adierazle interesgarri bat pobrezia-egoerei buruzkoa da. [Gizarteko pobrezia eta gizakien arteko aldeei buruzko inkestaren](#) datuak oinarri hartuta, zenbait pobrezia motak EAeko etxeetan zer eragin duten jakin daiteke. Mantentze-pobrezia izateko arriskuak, hau da, oinarrizko beharrak, batez ere elikadura, etxebizitza, jantziak eta oinetakoen ohiko gastue-

kin lotutakoak, asetzeko behar adina diru-sarrera ez izateak, EAEko biztanleriaren %3,5ari eragiten dio gutxi gorabehera. 15 urte baino gutxiagoko biztanleriaren kasuan, arrisku-tasa %5,3 izateraino handitzen da. Zehazki, talde hori mantentze-pobrezia izateko arriskuan da-goen guztizko biztanleriaren %17,7 da. Datuek adierazten dute oinarrizko beharrak asetzeko behar adina diru-sarrera ez izateko arrisku handiagoa dutela emakumeek, bai eta erkidegoz kanpoko biztanleria atzerritarrek ere.

Bestetik, ongizatea ez izateko arriskuak, hau da, oinarrizko beharrak asetzeaz haratago gizarte jakin batean espero diren ongizatearen eta erosotasunaren gutxieneko maileri eusteko beharrezko gastuei aurre egiteko behar adina diru-sarrera ez izateak, 15 urte baino gutxiagoko biztanleriaren %27ari eragiten dio eta 15 eta 24 urte arteko biztanleriaren %22ari.

Seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiek pobrezia-egoerak bizitzeko arrisku handiagoa dute. Indizea biztanleriaren %13koa da familia-egitura horietan. Halaber, 14 urte baino gutxiagoko pertsona bat duten etxeek batez besteko arrisku-indizea (%3,5) gainditzen dute; %4,5koa da.

Metatze-pobrezia eraginak, hau da, etxe batek epe luzean gutxieneko bizi-maila egoki bat mantentzeko behar diren kontsumo-ondasun iraunkorrak eskuratu ahal izateko edo gutxieneko laguntzazko ondare-baliabide batzuk izateko ezintasunak, eragina du EAEko biztanleriaren %2an. Pobrezia mota hori oso adierazgarria da amak eta seme-alabek osatutako guraso bakarreko familien artea (%11,5).

2.1.6. Nerabeen aisialdia

Ekonomia-baliabideak

Emakunderen duela gutxiko azterketa baten arabera, 14 eta 17 urte arteko hiru nerabetatik bik *aste-saria* jasotzen dute, eta hirutik batek, gutxi gorabehera, dirua behar duenean eskatzen du. Gurasoek dirurik ez dietela ematen esaten duten nerabeen ehunekoa benetan txikia da (%2), baina azpimarratu behar da dirua jasotzen ez duten nesken ehunekoa mutilena halako bi dela.

Gazte talde horrek jasotzen duen aste-saria 5 eta 10 euro artekoa da kasuen %40an, eta 10 eta 20 euro artekoa %38an. Ez da igartzen alde handirik sexuaren arabera, baina 30 € baino gehiagoko aste-saria duten mutilen ehunekoa handiagoa da (mutilen %5,4 eta nesken %2,3).

14 eta 17 urte arteko nerabeen gastu ekonomikoak hauekin lotuta daude batez ere: parranda egitea (aste-sariaren %16), dirua gozokietan gastatzea (%16), arropa erostea (%11) eta aste-sariaren zati bat garraioan inbertitzea (%10). Hauek dira nesken bost gastu nagusiak beheranzko ordenan: Parrandara joatea, arropa erostea, dirua gozokietan gastatzea,

garraioa eta sakelakoaren saldoa. Mutilen artean, gastu nagusiak gozokiekin, parranda-rekin, garraioarekin, liburuak edo CDak erostearekin eta sakelakoaren saldoarekin lotuta daude.

Aisialdiko jarduerak

Eusko Jaurlaritzako *Kultura Sailaren Euskadiko Gazteak 2008 Txostenaren* datuak kontuan hartuta, hauek dira 15 eta 19 urte arteko biztanleriak egindako aisialdiko jarduera nagusiak bereizi gabe: lagunekin edo bikotearekin egotea (%77), musika entzutea (%61), telebista edo DVDa ikustea (%51) eta kirola egitea (%41). Azpimarratu behar da %36a ordenagailuarekin denbora-pasa ibiltzen dela etxean eta teknologia berriak erabiltzen dituela komunikatzeko (Messenger, e-posta...) eta beste %2 bat ziberkafetegira joaten dela. Halaber, nabarmendu behar da %19a familiarekin ere egon ohi dela, eta gazteen %13ak irakurtzen duela. Adin horretako biztanleriaren %9ak adierazten du kalean edatea dela bere aisialdiko jarduera nagusietako bat; %7 ikuskizunetara joaten da; %5ak aipatzen ditu kultura-jarduerak, hala nola musika-tresnaren bat jotzea edo pintatzea; beste %5 batek mendira joaten dela dio; eta %2ak aisialdiko denbora boluntario-lanak egiten igarotzen du.

Emakunderen azterketa batek jasotako datuen arabera, astean zehar eta eskola-saioa bukatu ondoren, 14 eta 17 urte arteko biztanleriak batez ere ikasi edo etxeko lanak egiten ditu (%23ak ia egunero egiten du edo astean behin baino gehiagotan), musika entzuten du (%15,5ak ia egunero egiten du), telebista ikusten du (%14ak ia egunero) eta Interneten ibiltzen eta bideo-jokoetan jolasten du (%20ak ia egunero egiten du edo astean behin baino gehiagotan).

%22ak denbora igarotzen du lagunekin gutxienez astean behin baino gehiagotan; %17-18ak kirolen bat egiten du edo hizkuntzak, musika eta abar ikasten ditu eskolaz kanpo; eta %12 inguruk etxeko lanetan laguntzen du ikastetxetik ateratzean maiztasun berarekin. Deigarria da %10ak esatea astero edo maiztasun handiagoz erosketak egitera joaten dela. Nahiz eta ez egon alde handirik neskak eta mutilek ia egunero egiten dituzten jardueren artean (ikastea edo eskolako etxeko lanak egitea, musika entzutea edo telebista ikustea), azpimarragarria da mutilen ehuneko handiago batek egiten dituela kirolak (mutilen %10ak eta nesken %4ak). Nesken ehuneko handiago batek egiten ditu eskolaz kanpoko jarduerak, etxeko lanetan laguntzen du, ibiltzera joaten da edo bikotearekin egoten da.

Teknologia berriak

Gaur egun, teknologia berriak biztanleria gazteenaren bizitzaren eta aisialdiaren zati handi bat betetzen du, eta hala berresten dute informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien erabilerari eta kontsumoari buruzko datuek. 2007an, EAEko 1 eta 15 urte arteko biztanleriaren %94ak ordenagailua erabili zuen azken hiru hilabeteetan. Ehuneko hori pixka bat handiagoa da nesken artean. Internet, berriz, neska-mutilen %85ak erabili zuen.

2.2. Arau- eta eskumen-markoa

Haurrei eta nerabeei duela gutxi aintzatetsi zaizkie eskubideak. Geroago hartu dira haurrak eta nerabeak eskubideak dituzten pertsona subjektutzat, baina nazioarteko eskubide humanitarioak giza eskubideak aintzatestearen eta estatuko ordenamendu juridikoetan babes-tearen aldi berean. Haurrek eta nerabeek, gainera, ezaugarri garrantzitsu bat dute: garatzen ari diren pertsonak dira, oraindik ez dute erabateko autonomia lortu. Horrek betebeharrak sortzen dizkie helduei, botere publikoei eta gizarteari oro har.

1990eko abenduan, Espainiak **Hauren Eskubideei buruzko Hitzarmena** berretsi zuen, **Nazio Batuen Erakundearen** Biltzarrak 1989ko azaroaren 20an aho batez onartu zuena. Hauek dira printzipio edo eskubide erreferentzialak:

Bereizkeriarik ez egitearen eta aukera berdintasunaren printzipioa. Haur bakar batek ere ez du bereizkeriarik jasango, haurraren, gurasoen edo ordezkari legalen arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoa, jatorri nazionala, etnikoa edo soziala, estatus ekonomikoa, oztopo fisikoak, jaiotza edo beste edozein baldintza kontuan hartu gabe. Neskek mutilen aukera berak izan behar dituzte; neska-mutil atzerritarrek bertako neska-mutilen aukera berak izan behar dituzte; ezgaitasunen bat duten neska-mutilek aukera berak izan behar dituzte, bizi-maila egoki bat izateko.

Haurraren interes gorena: Gizarte-ongizateko erakunde pribatu nahiz publikoek haurrei buruz hartzen dituzten neurri guztietan hauren interesak lehentasun osoa izango du.

Haurraren iritzia emateko eskubidea: Haurrek entzunak izateko eskubidea dute eta beren iritzia kontuan hartuak izatekoa, baita parte hartzen duten prozedura administratiboetan eta judizialeetan ere. Haurrak eragiten dieten gaii buruz iritzi bat eratzeko baldintzetan egon beharko dute, eta iritzi horiek behar bezala kontuan izan behar dira, haien adinaren eta heldutasunaren arabera. Haurrek parte hartzeko beharrezko neurriak ezarri behar dira, bai eta kontsultek eta elkarrizketek adingabeari kalterik ez diotela eragiten ziurtatzeko beharrezko bermeak ere. Haien zaintza, hezkuntza, osasun-zerbitzu, ordezkaritza legal, eta oro har, eragiten dieten gai eta erabaki guztiei buruzko iritzia, kezka eta kezka adieraztera animatu behar dira.

Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea. Hala, haurrari babesa eta laguntza eman behar zaio, arropa, ostatua eta elikagaiak dituela ziurtatzeko, eta Estatuek ahalik eta ondoen bermatu behar du haurraren garapena. Haurrek zentzu zabalean ikasteko eta garatzeko aukera izan behar dute; hau da, mentalki, kognitiboki, sozialki eta kulturalki.

Familiaren birbatzea. Haurrak ez dira gurasoengandik bananduko, agintaritza eskudunak haien ongizaterako beharrezkoa dela epaitzen dutenean izan ezik. Estatuek familien birbatzea erraztuko dute, xede horretarako lurraldean sartzeko edo

lurraldetik ateratzeko aukera emanaz. Familia naturalak, jatorrizko familiak edo familia propioak lehentasuna du, adingabeen bizi-tza konpontzeko.

Babesik gabeko egoeretatik babestea Estatuak babesik gabeko egoeran dauden haurrak babestuko dituzte. Halaber, arrisku fisikoak eta mentalak eragotzi behar dituzte, eta sexu-abusuetatik eta esplotaziotik babestu behar dituzte.

Identitatearen eskubidea. Haur guztiek jaiotzen direnetik izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea dute. Horrenbestez, estatuak haren izenaren, adinaren, nazionalitatearen, jatorriaren eta kulturaren bidez ezagutu behar dute, haren kultura, erlijioa eta hizkuntza askatasunez izatea erraztuz.

Osasuna izateko eskubidea. Haurrek ahalik eta osasun-mailarik onena izateko eskubidea dute. Estatuak haur guztiei osasun-arreta ematea zainduko dute, eta garrantzia berezia emango diete prebentzio-neurriei, osasunaren arloari buruzko hezkuntzari eta haurren heriotza-tasa murrizteari.

Hezkuntza izateko eskubidea. Lehen Hezkuntza doakoa eta derrigorrezkoa izango da. Hezkuntzak haurra prestatzen du ulermen-, bake- eta tolerantzia-giroan bizi-tzeko.

Estatuak haurrak babestuko dituzten drogen legez kontrako erabileraren aurka, eta estupefazianteen ekoizpenean edo trafikoa parte hartzearen aurka.

Errespetuzko tratu penala izateko eskubidea Legeak hautsi dituzten haurrak duintasuna sustatzearekin bat datorren moduan tratatu behar dira, berriz ere gizarteratzeko ahalegina eginez. Eta askatasuna kentzen bazaie, helduengandik berezita egongo dira. Ez dira torturatuko, eta ez zaie bestelako tratu krudelik eta umiliagarririk egingo. Gutxieneko adin bat ezarri behar da, eta adin hori bete baino lehen zigor-legeak hausteko gaitasuna ez dagoela ebatziko da.

Nazioartean, lehen haurren eta nerabeen eskubideak defendatzeko marko unibertsala den [Nazio Batuen Hitzarmena](#) aipatu da, baina komeni da jakitea badaudela Espainiak berretsi dituen adingabeei eragiten dieten gai sektorialeki buruzko zenbait nazioarteko itun –hainbat nazioarteko erakundek sustatu dituzte itun horiek, hala nola [Nazio Batuak](#), [Nazioarteko Lan Erakundea](#), [Europako Kontseilua](#), [Hagako Nazioarteko Zuzenbide Pribatuaren Konferentzia](#) : Haurren lana, adingabeak oatea, sexu-esplotazioa, nazioarteko adopzioa eta abar. Gainera, Espainiako Estatuak gai horri dagozkion nazioarteko foroekiko duen lotura eta konpromisoaren adierazle gisa azpimarratu behar da Nazio Batuen Hurrei buruzko Biltzar Berezian (2002ko maiatzean egin zen) parte hartu zuela eta “[Un mundo apropiado para los Niños y Niñas](#)” izeneko dokumentuan jasotako Adierazpena eta Ekintza-plana onartu zituela.

Europar Batasunaren markoan ere berariaz haurren eskubideak aipatzen dituzten arauak daude. Arau horien artean nabarmenduko dugu [Europako Parlamentuaren 1992ko uztailaren 8ko A-3.0172/92 Ebazpena](#), [Haurren Eskubidearen Europako Gutuna](#) onartzen duena.

Ebazpen horrek hauek proposatzen ditu: haurren eskubideen defentsariaren figura, estatu-mailan nahiz Europa mailan. Defentsari horrek eskaerak eta kexak jaso beharko ditu, haurrei babes ematen dieten legeak aplikatzen direla zaindu, eta botere publikoen jarduna haurren eskubideen alde bideratu. Halaber, haurren eskubideen erkidegoko gutun bat egin beharko litzateke, proposatzen den gutxieneko edukia duena. Halaber, [Europar Batasunaren Oinarriko Eskubideen Gutuna \(Lisboako Itunaren zatia\)](#) ere aipatzekoa da. Gutun horrek, adingabeei dagokienez, adingabeen entzunak izateko eskubidea, adingabearen interes gorena kontuan hartzea eta gurasoekin harremana izateko eskubidea ospe-tsu egiten ditu.

Edonola ere, [Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren](#) printzipioak, goian azaldu direnak, jada Espainiako Estatuaren ordenamendu juridikoaren zati dira, **Adingabearen babes juridikoari buruzko urtarilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoan** sartu ziren heinean (lege horren bidez partzialki aldatu ziren Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea. Lege hori botere publiko guztiak, berariaz haurrekin lotutako erakundeak, gurasoak eta senideak, eta biztanleria oro har lotzen dituen babeserako marko juridikoa da estatu-mailan. Lege horretan jasotzen dira nazioarteko araudiaren legearen eta haurren eskubideen aplikazio-esparrua, eta bereziki aipatzen da [Nazio Batuen Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena](#). Herri-administrazioen jardunaren printzipio gidariak ezartzen dira, eta haurren babes gabeko egoeretan zer egin zehazten da, bai eta haurrak babesteko erakundeak ere.

Horrekin batera, eta Espainiako Estatuaren lurralde- eta administrazio-egiturarekin bat, Euskal Autonomia Erkidegoak, ahal legegilea duenak, adingabeen eskubideen babesaren eta sustapenaren arloan autonomiako legeria garatu zuen **3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko** onartu zuenean. Lege horren bigarren Tituluan, "Haurren eta nerabeen eskubideak eta eskubide horien erabilera" izenekoan, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean sortu ziren eskubideak zerrendatzen dira. Legearen gainerako ataletan babesik gabeko egoeran dauden haurren babes arautzen da. Beraz, araudi sektorialari buruz hitz egitean berriz ere aipatuko dugu legea.

Bukatzeko, adierazi behar da adingabeen eskubideak eta haurren babesean eta zainketan hartutako konpromisoak zehaztea oso lan luzea dela, hainbat arlori eragiten baitie, besteak beste: osasunari, hezkuntzari, gizarte-babesari, arrisku-egoerei eta babes gabeko egoerei, birgizarteratzeari eta haurren osotasunaren babesari. Hori dela eta, lege, dekretu eta gainerako garapen ugarritan aipatzen da, arau-marko zabal bat eratuz. Marko horretatik elementu nagusi hauek nabarmen ditzakegu:

Hezkuntza izateko eskubidearekin lotuta:

- [8/1985 Lege Organikoa, uztailaren 3koa](#), Hezkuntzarako Eskubidea arautzekoa.
- [1/93 Legea, otsailaren 19koa](#), Euskal Eskola Publikoari buruzkoa.
- Hezkuntzari buruzko [2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa](#).
- [118/1998 Dekretua, ekainaren 23koa](#), hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei eman beharreko hezkuntza-erantzuna eskola muinbakar eta integratzailearen esparruan antolatzen duena.

- [201/2008 Dekretua, abenduaren 2koa](#). EAEko unibertsitatez kanpoko ikaste-txeetako ikasleen eskubideei eta betebeharreri buruzkoa.

Haurren osotasunaren babesarekin lotuta:

- [15/2002 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#), Zigor Kodeari buruzkoa azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzen duena. Araudi horrek, besteak beste, etxeko indarkeriaren, adingabeak galbideratzeko delituen eta haurren osotasun fisikoa eta psikologikoa erasotzen duten delituen arloetan haurrei eragiten dieten neurriak ezartzen ditu.
- [1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa](#), genero-indarkeriaren aurkako babes osorako neurriei buruzkoa.

Babesik gabeko goeran dauden haurrak eta nerabeak babestearekin lotuta:

- [3/2005 Legea, otsailaren 18koa](#), haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoa.
- [54/2007 Legea, abenduaren 28koa](#), Nazioarteko Adopzioari buruzkoa.
- [1/2008 Legea, otsailaren 8koa](#), Familia Bitartekaritzari buruzkoa.
- [12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.
- [1618/2007 Errege Dekretua, abenduaren 7koa](#), elikagaien ordainketa bermatzeko funtsaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoa³.
- [40/1998 Dekretua, martxoaren 10ekoa](#), EAEko gizarte zerbitzuen baimena, erregistra, homologazioa eta ikuskaritza arautzen duena.
- [114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa](#), Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena, eta aldi berean, urriaren 28ko 263/2002 Dekretua, Nazioarteko Adopzioaren erakunde laguntzaileen akreditazioa eta funtzionamendua arautzeari buruzkoa, aldatzen duena.
- [124/2008 Dekretua, uztailaren 1ekoa](#), EAEn epaileak agindutako kontsultagatik familia-bilguneak arautzen dituena.
- [131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa](#), gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituena.

Ezgaitasuna duten eta/edo mendekotasuneko goeran dauden adingabeekin lotuta:

- [51/2003 Lege Organikoa, abenduaren 2koa](#), desgaitasuna duten pertsonen aukeraberdintasunari, bereizketa-ezari eta irisgarritasun unibertsalari buruzkoa.
- [39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), mendekotasun-egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzekoa.
- [12/2008 Legea, abenduaren 5ekoa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa.

³ Helburu hau du: banandutako gurasoen seme-alabei diru-kopuru jakin batzuk jasoko dituztela bermatzea, aurrerakin gisa definitutakoak, bere baitan hartzen dituen familia-unitateak bere beharrei aurre egin ahal diezaion, elikagaiak ordaintzeko betebeharra duenak ordaintzen ez dituenen.

Osasunarekin lotuta:

- [14/1986 Legea, apirilaren 25ekoa](#), Osasunari buruzkoa.
- [8/1997 Legea, ekainaren 26koa](#), Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzkoa.
- [41/2002 Legea, azaroaren 14koa](#), pazientearen autonomia, eta informazio eta dokumentazio klinikoko gaiet buruzko eskubideak eta betebeharrak arautzen dituen (9.3. artikulua 12 urtetik aurrera entzuna izateko eskubidea).
- [2/2010 Lege Organikoa, martxoaren 3koa](#), sexu- eta ugalketa-osasunari, eta haurdunaldiaren borondatezko etendurari buruzkoa (13.4. artikulua. haurdunaldiaren borondatezko etendura onartzeko eskubidea).
- [175/1989 Dekretua, uztailaren 18koa](#), Osakidetzako gaixo eta erabiltzaileen eskubide eta obligazioen karta onartzen duena.

Erantzukizun penalarekin lotuta:

- [5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa](#), adingabeen erantzukizun penala arautzen duena, eta lege hauek aldatzen dutena: [7/2000](#) eta [9/2000](#) Lege Organikoak, abenduaren 22koak; [9/2002 Lege Organikoa, abenduaren 10ekoa](#); [15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa](#) eta [19/2003](#) eta [8/2006 Lege Organikoak, abenduaren 4koak](#).
- [1174/2004 Errege Dekretua, uztailaren 30ekoa](#), 5/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua onartzen duena.
- [163/2008 Dekretua, irailaren 30ekoa](#), EAEko arau-hausle adingabeei gizarte- eta hezkuntza-arreta eskaintzeko erakunde laguntzaileak baimendu, homologatu, ikuskatu eta erregistratzeari buruzkoa.
- [80/2009 Dekretua, apirilaren 21ekoa](#), askatasunaz gabetzeko neurriak betearazten dituen EAEko ikastetxeei buruzkoa.

3

KEXAK ETA KONTSULTAK

ararteko

3. KEXAK ETA KONTSULTAK

Arartekoaren erakundeak ikertutako kexen eta kontsulten espedienteen azterketaren hurbiltzeak helburu diagnostikoa du Haur eta Nerabeentzako Bulegoaren dokumentu espezifiko honetan. Bere oinarrizko helburua, jarduera horren datuak adierazteaz gain, egoera kezagarriak hautematea da, eta espediente horietako bakoitza gure haurrak mugitzen diren errealitatearen sentsore gisa ulertzea. Beraz, interesa izaera kualitatiboaren bidez gehiago zehaztuko da izaera kuantitatiboaren bidez baino, baina edonola ere, interes garrantzitsua du.

3.1. Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa izandakoaren espedienteak

[3/2009 Legearen, abenduaren 23koa](#), Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko Legea aldatzekoaren, eta Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoa indargabetzen zuenaren arabera, eta bere xedapen iragankorrean xedatutakoari jarraiki, aipatutako Defentsa Bulegoaren espedienteak Arartekora eraman ziren urtearen hasieran, eta zehazkiago Haur eta Nerabeentzako Bulegora. Une horretan jaso ziren neurrian eta 2008ko eta 2009ko jardueri buruzkoak izan arren, azaletik aipatuko ditugu.

2008ko ekainetik (jaso zen lehen kexaren data) eta 2009ko irailera (azkenaren data), Haur eta Nerabeentzako Defentsa Bulegoak 23,4 espediente izapidetu zituen 2008an, eta 19 2009an. Adingabeek ez zuten kexa bakar bat ere aurkeztu, gehienetan amak aurkeztu zuen kexa, edo neurri txikiagoan, profesionalek (abokatua, apaiza, monitoreak, sindikatua...). 2 kasuetan, espedienteek zerbitzuen edo [Eusko Jaurlaritzako Zuzendaritza](#) baten kontsultak aipatzen dituzte.

Espedienteen ebazpenari dagokionez, 6 kexa ezetsi egin ziren (1, Arartekoan kexa aurkeztuta zuelako; 3, epaiketa bidean egoteagatik; beste 1, adin-nagusitasunagatik; eta azkena, kexak ez zuelako oinarririk); 14k kudeaketa edo deribazioren bat behar izan zuten; eta 3tan soilik egin zen gomendioa azkenean, 2 [Eusko Jaurlaritzako Jokoen Zuzendaritzari](#) eta hirugarrena [CINESA](#) enpresari.

Azkenik, eta esparru horrekin lotuta, 5 babesik gabeko egoerak izan zitezkeenari buruzkoak ziren, 4 osasunaren esparruari buruzkoak, beste 4 ikus-entzunezko edukiei eta ikuskizunei buruzkoak, 2 jazarpena izan zitezkeenari buruzkoak, 1 adingabe lege-hausleen eskubideei buruzkoa, eta azkena, adingabe homosexualen eskubideei buruzkoa.


3.2. Neska-mutilei eta nerabeen edo haiei buruzko espedienteak

2010ean, haurren eta nerabeen presentzia edo inplikazioa argi eta garbi aipatzen zuten 353 kexa-espediente izan ziren guztira, Arartekoaren guztizko jardunaren ia %20. Komeni da azpimarratzea zenbaketa horretan hiru suposizio hartu direla kontuan:

- a. Adingabeek zuzenean aurkeztutako kexak.
- b. Adingabe horietako baten ordezkariak direnek aurkeztutako kexak. Oso ehuneko handi batean, pertsona hori haurraren aita edo ama izan ohi da, baina batzuetan senideak, hezitzaileak edo gertuko pertsonak ere izan daitezke.
- c. Adingabeak inplikatur dauden egoeretan aurkeztutako kexak. Suposizio horren baitan sartzen dira: 1) talde gisa hartutako adingabeei eragiten dieten egoerak (adibidez: udalerrri jakin batean lekurik ez izatea 0-2 adin-tartearentzat, arreta pediatriko eskasa beste udalerrri batean, etab.); 2) familia-unitateko zenbait egoera, kexa aurkezten duen pertsonaren ustez eta berariaz, egoera horren elementu adierazgarritzat haurren presentzia edo inplikazioa aipatzen bada eta egoera horrek haurrentzat dituen ondorioak. Egia da zenbait kexa gure gogoetatik at gera daitezkeela, lehen jakinaraztean adingabeen presentzia eta/edo haientzako ondorioak ez adierazteagatik, baina litekeena da haurrak salatutako egoeragatik kaltetuak egotea. Hala ere, ezinezkoa denez espediente guztiak xehetasun osoz berrikustea, erabaki da haurren edo nerabeen presentzia egotearen ziurtasun osoa dugun espedienteak zenbatzea gutxienez.


Hala, eta kexa **nork** aurkezten duen kontuan izanda, esan dezakegu kexen %4 soilik aurkeztu dituztela adingabeek; kexen %37 senideren batek edo inguruko gertuko pertsona batek aurkeztu du, adingabearen ordezkari gisa; eta kexen gainerako %59ak adingabe kaltetuak dauden egoerekin zerikusia du.

1. grafikoa. Kexen banaketa, adingabearekiko harremanaren arabera




Jasotako 353 kexetatik 56 ezetsi egin dira, eta 297 izapidetu egin dira, alegia, ikertu.

2. grafikoa. Ezetsitako kexen eta izapidetzeko onartutako kexen ehunekoa



Arartekoaren erakundearen erabili ohi diren **gaikako esparruetan** izapidetutako espedienteen banaketa grafiko honetan adierazitakoarekin bat dator:

3. grafikoa. Kexen banaketa, gaikako esparruaren arabera



Justiziaren esparrua nabarmentzen da guztizkoan, %39 duelarik. Azpimarratu behar da kexa horietako gehienek eskaera bera egiten dutela, banantzeko eta dibortziatzeko prozesuetan seme-alaben zaintza eta babespeari buruzko legearen aldaketari buruzkoa. Kexa kopurua handia izan denez, **gomendio orokor** bat egin da eta kapitulu honen hurrengo atalean aipatuko dugu. Gainerako kontuak oso anitzak dira, baina aipatu behar da espedienteetako batek hezkuntza-egoitza batean sartuta zegoen adingabe arau-hausle baten egoera hartzen duela kontuan.

Adingabeen edo adingabeekin lotutako kexei dagokien hurrengo esparrua, aurreikus daitekeen bezala, **Hezkuntzarena** da. Espedienteen laurdena baino gehiago (%41, aurreko paragrafoan aipatutako taldeko kexa kontuan hartzen ez bada) hezkuntza-sistema formalarekin lotutako egoerei buruzkoak dira. Hauek dira gehien eztabaidatutako gai batzuk, besteak beste: ikasleak onartzea, bekak, garraioa eta jangela, 0-2 urterekin eskolatzea, ikastetxeen plangintza eta antolakuntza, eskola-jazarpena, hezkuntza-behar bereziak edo eskubideak eta betebeharrak.

Babesik gabeko haurrei buruzko esparrua da hirugarrena, kexen kopuruari dagokionez, kexen %14,5 delarik (%22,6, baldin eta banatzeko eta dibortziatzeko prozesuetako zaintza eta babespearekin lotutako Justiziaren 107 espedienteak bazterrean uzten baditugu. 43 kasutatik 12 bakarrik dauden adingabe etorkinen egoerei dagozkie, eta horietatik 8 emantzipatzeko zailtasunei buruzkoak dira. Gainerako 31 kexak nahiko modu uniformeetan banatuta daude, eta harrerei, adopzioei eta egoitzetako antolamenduari eta bizikidetasunari buruzkoak dira. Kexa jartzeko arrazoirik ohikoenak edo aurreko urteekin alderatuta errepikatzen direnak dira hauek:

- Desadostasunak, komunikazio eza eta zailtasunak familiaren eta babes-zerbitzuen arteko lankidetzan, familian berriz sartzeko prozesuetan aurrera egiteko ezinbesteko konfiantza sortzen eragozten dutenak; edo familia-harrera prozesuetan egokitzeko eta egonkortzeko prozesuetan aurrera egiteko ezinbesteko konfiantza sortzen eragozten dutenak.
- Familia-harreraren esparruan, azpimarratzekoa da bakarrik zegoen adingabe atzeritar baten familia-harrera legezko egitea eskatzen zuen familia baten kexa. Adingabe horri interbentzio kirurgiko bat egin zitzaion Espainian aldi baterako egonaldi batean, eta interbentzio horren ondorioz, ezin zuen jatorrizko herrialdean bizitzen jarraitu. Kasu horri **ebazpen** interesgarri bat egin zitzaion, egitatezko zaintzarekin eta adingabearen zaintza esleitzeko eskubidearekin lotuta, indarrean zegoen legeriaren arabera.
- Atzerapenak, eta batzuetan, sentsibilitate gutxi adopzioetan jasotako tratuan.
- Zaindaria ez den gurasoari tratamendua, babesik gabeko egoerak edo egoera arriskutsuak hautematen badira, batez ere banaketa gatazkatsuko kasuetan. Gai horri jarraipena egin zitzaionez ofiziozko espedienteen bidez, xehetasun handiagoz lantzen da dokumentu honen IV. Kapitulua babesik gabe dauden haurrei buruzko atalean.
- Gizarte-hezkuntzazko esku hartzeko programen, lehen mailako arretaren eta gertuko arretaren gabezia edo eskasia tokiko esparruan.
- Erakundeen arteko koordinazioa, baita Foru Aldundien Haurren zerbitzuen artean ere.

- Auzokoen kexak, babes-egoitzen kokalekuagatik.
- Azkenik, emakumeen berdintasunaren eta osotasunaren esparrua 3 kexa zenbatu dira. Kexa horietan, kezka nagusia tratu txarrak jasaten ari diren edo jasan dituzten emakume horien seme-alaben egoerari buruzkoa da. Nahiz eta ez handitu babesik gabe dauden haurren atala, gure arreta erakar dezakeen babesik gabeko arrisku-egoera batean egon daitezkeela uste dugu.

Gainerako esparruek ez dute lortzen kexen %3 ere, edo gauza bera dena, esparru horietako bakar batean ez dira 10 espediente ere egin. Diru-sarreraren bermeari (9), Ingurumenari (4) eta Etxebizitzari (5) buruzko esparruek ezaugarri berdin bat dute: kasu guztietan dago adingaberen bat kaltetuta, bakar batean ere ez da haur jakin bat edo haur baten ordezkaria protagonista. Adingabe horiek bizi diren baliabide eta baldintza materialekin dute zerikusia, eta haien garapena baldintza dezakete. Familia (7) esparruko kexetan ere adingabeak dira kaltetuak, baina kasu honetan, egoera guztiek lanbidea eta familiako bizitza bateratzearekin dute zerikusia.

Erregimen juridikoaren eta Administrazioaren zerbitzuen esparruko 8 kexetatik 6tan, inplikaturik dauden adingabeak errolatzeko eta erregularizazio administratiboko arazoak dituzten familia etorkin atzeritarrekoak dira.

Osasunaren esparruko 6 kexak arazo hauen arabera banatzen dira: pediatren gabezia, emandako osasun-arretan eta ospitaleratutako haurrak laguntzean hutsuneak. Osasunaren esparruarekin lotuta, baina ez eskusiboki, mendeko adingabeei buruzko 2 espedienteek kontuan hartzen dituzte garai aurreko haurren egoera eta beharrak, eta beren garapen-eremuetan izan ditzaketan zailtasun bereziak.


Hizkuntz eskubideen eta Kulturaren esparrua ondoen deskribatzen duen elementua da esparru horretako 5 kexen gai-aniztasuna. Kexa horietatik bakarra nabarmenduko dugu, [ebazpen](#) baten bidez bukatu baita. Eskolako kirolari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundia behartzen da 14 urteko adingabeak eskolako kirol-programetan izena ematean NANA ez den beste bide batzuen bidez identifikatzearen aukera baloratzea.

Herrizaingoa – Herritarren segurtasuna arloan, ikastetxe batek aurkeztutako kexa nabarmenduko dugu. Ikastetxe horren ustez, polizia esku hartu zuenean, ez zuten kontuan izan ikastetxearen erantzukizunpean zeuden pertsona adingabeak zeudela ikastetxe horretan. Gai horrek berriz ere aditzera ematen du (ikus 2003ko eta 2004ko txostenen II.7 kapitulua) agenteek kasu horietan jarraitu beharreko jarraibideei buruzko jardura-protokolo bat ezartzea beharrezkoa dela, bai eta ikastetxeetako arduradunekin harremanetan jartzeko bideak ezartzea ere.

Azkenik, espedienteetako 5ek zerikusia dute haurren intimitaterako eskubidearekin, eta 5 kasu horietako 2 informazioaren eta komunikazioaren teknologiek lotuta daude.

Kexak ezesteko kausa nagusia da, grafiko honetan ikus daitekeen bezala, irregulartasunik ez izatea argi eta garbi (%25), eta haren atzetik dago, ebazpen judizialaren zain egotea (%20) edo Arartekoaren eskumen-esparrutik kanpo dagoen gai bat izatea (%18). Kexen bigarren kausa talde batean, gutxi gorabehera kexen %10a denean, kausa horietako bakoitza aurretiko erreklamazio administratiboa ez aurkezteari buruzkoa da, formaren akatsa izateari buruzkoa edo [Herriaren Defentsarian](#) izapidetze batekin bikoiztuta egoteari buruzkoa.

4. grafikoa. Ezetsitako kexak: ezesteko arrazoiak



3.3. Zenbait kexa nabarmen

2010. urtean Arartekoak jaso dituen adingabeekin lotutako gaien egoera orokorra labur aurkeztu ondoren, atal honetan, haurren eta nerabeen interesen eta eskubideen ikuspuntutik gomendio orokor edo ebazpen bereziki esanguratsuak sortu dituzten gai batzuk sakon aztertuko ditugu.

3.3.1. Arartekoaren 1/2010 Gomendio orokorra, urriaren 15ekoa

Gurasoen erantzukizun partekatua banandutako bikoteetan: botere publikoen zeregina (testu osoa [web-orrialdean](#))

Aurreko atalean aipatu dugu banantzeko eta dibortziazeko prozesuetan seme-alaben partekatutako zaintza lortzeko zailtasunak muintzat dituzten ehun kexa inguru aurkeztu direla 2010. urtean zehar. Gure legerian salbuespen gisa jasotzen da egoera hori, baldin eta alderdien artean ez badago adostasunik. Hala ere, ez da ezer berria Arartekoaren erakundean, azken urteetan pertsona asko, gizonak nahiz emakumeak, joan baitira antzeko demandak jarritz. Izan ere, azken bi txosten arruntetan gai horri buruz hausnartu zen, eta [urteko txostenaren](#) zati orokorraren IV.1. kapituluaren xehetasun handiagoz azaldutako arrazoei jarraiki, 2010eko urriaren gomendio orokor hau egin zaie *botere publikoei, xede hauetarako*:

nork bere eskumenen neurrian, beharrezkoak diren lege-aldaketak eska ditzatela, banantze eta dibortzio kasuetan seme-alaben zaintza bi gurasoek izan dezaten errazteko, hautabide onena bezala. Hori gurasoen erantzukizun partekatua bidez egingo da, betiere haurren interesa babestuz beste ezer baino lehenago.

Kasu honetan, azpimarratu nahi duguna da gomendioa adingabearen interes gorena defendatzean eta aldarrikatzean oinarritzen dela, eta aldi berean, haurrek eskubideak babesteko nazioarteko eta Europako arauen aurreikuspenak betetzen laguntzeko Arartekoaren zereginean inskribatzen dela. Hemen dago erreferenterik zuzenena: Haurren Eskubideen Europako Gutunean adierazitako xedapenak betetzen laguntzea. Honela dio Gutunak: “Haur orok du bere gurasoek gozatzeko eskubidea. Aitak eta amak, biek dute erantzukizuna seme-alaben garapenera eta heziketari begira...”; “Izatez edo legez banandu, dibortziatu edo ezkontza baliogabetuz gero, seme-alabek bi gurasoekin harreman zuzena eta etengabea izateko eskubidea dute eta bi gurasoek betebeharrak berberak dituzte”.

Adingabearen interes gorenari dagokionez, eta [urteko txostenaren](#) zati orokorrean IV. kapituluari aipatutakoari jarraiki: “Gure epaile eta fiskalek, zentzuz jokatu, interes hori adingabearen egonkortasunarekin identifikatzeko joera dute, eta egonkortasun hori guztiz bateragarria da, hasiera batean, bikotea banandu ondoren haurren zaintza bi gurasoek gauzatzen jarraitzearekin, betiere arrazoizko sistema baten bidez gauzatzen bada. Gure aburuz, testuinguru horretan egonkortasuna kontzeptu geografikotzat hartzen ez bada, baizik eta irizpide psiko-afektiboen arabera definitzen bada, egonkortasun hori adingabearen eguneroko bizitza zuzentzen duten espaziozko eta denborazko erreferentzien sendotasunean oinarrituko da, eta adingabeak, banantzea gertatu arren, aitak nahiz amak bera maitatzen eta zaintzen jarraitzen dutela sentitzean.

Horregatik, gure ustez, irizpide horiek bete ahal izatearen argitan baloratu beharko dira, aurreiritzirik gabe eta objektibotasunez, kasu bakoitzean azal daitezkeen baldintza material eta emozionalak bi gurasoek seme-alabak zaintzeaz elkarrekin arduratu daitezkeen, leku desberdinetan bizi izanda ere, zaintzeko denborak banatuz (ez du zertan izan bakoitzak denboraren %50) edo zaintzak berekin dakartzan egitekoak modu bideragarrian banatuz. Horren baitan egongo da hautatzen den sistemaren arrazoizkotasuna, baita horrek denboran barrena izan beharko dituen aldaketak ere, adingabearen bilakaeraren arabera.”

Hala ere, [Kode Zibilaren](#) 92. artikuluko egungo baldintzetan, gurasoetako batek zaintza partekatze ukoa uste guztien gainera gailenduko da, baita epaileak aukerarik onena uste badu ere. Beraz, berdintasuna lortzeko traba garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eta eragin kaltegarria duela adin txikikoen eskubideen eraginkortasunean. Arazo hori gaingaitu nahi bada, jakina, ez dago zertan seme-alabek arduratzen behartu hori egin nahi ez duen gurasoa, baina bietako batek zaintza partekatua eskatu eta besteak zaintza berak bakarrik baliatu nahi duenean, azken horrek ez luke bere borondatea inposatzeko ahalmenik izan beharko epaileari –orok gain adingabearen interesa errespetatuz– gurasoen erantzukizun partekatua ildotik agian egokiagoak irudituko zaizkion beste konponbide batzuen kalterako.

3.3.2. **Arartekoaren 4/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 23ekoa Familia homoparentalei eta sexu bereko bikote edo ezkontideei administrazio oztopo formalak kentzea** (testu osoa [web orrialdean](#))

Adingabeekin lotutako edo adingabeak kaltetuta egon daitezkeen egoerekin lotutako bigarren gomendio orokorrak, azken urteetan jasotako kexetatik eratorritakoak, bi arazotan jartzen du arreta:

- a. Sexu bereko bikoteek, batez ere seme-alabak dituztenek, barrera formalak izaten jarraitzea, EAEko administrazioak ez baitira behar adina egokitu edo ondo egokitu konstituzioak eta familia homoparentalen onarpen juridikoak ahalbideratu dituzten aldaketa juridikoetara. Gai horri dagokionez, Arartekoak EAEko herri-administrazio guztiak premiatzen ditu, funtzionamendua berrius dezaten eta inertzia formal horiek, bidegabeak izateaz gain, eskubideak hauts ditzaketanak, espedienta ditzaten.
- b. Emakumeen matrimonioen egoera anbigua, matrimonio horietan lagunduriko ugalketa tekniken bidez jaiotako seme-alaben seme-alabatasuna bi emakumeen alde zehazteari dagokionez. Kasu horietan, eta sakoneko arazoa estatuko auzialdian ebazteari kalterik egin gabe (egoera legala eta praktikoa erregistro zibiletan), EAEko Administrazio Orokorrak familia horien egoera hobetzen lagun dezake. Horretarako, lagunduriko ugalketa-teknikak erabiltzen dituzten klinikei eta zentroeiei hau jakinarazi behar diete: beharrezkoa dela seme-alabak izateko prozesu mota hori egiten ari diren ezkonduetako lesbianen bikoteei informatzea ama biologikoaren emakume ezkontideak erditzea baino lehen dagokion Erregistro Zibileran joan behar duela epailearen edo Erregistro Zibilaren epaile arduradunaren aurrean formalki adierazteko *nasciturusaren* seme-alabatasuna aintzatetsi nahi duela, jaiotzan amatasuna zehaztu ahal izateko adopzio-prozesurik egin gabe.

3.3.3. **Arartekoaren 5/2010 Gomendio orokorra, abenduaren 28ekoa. Familia, lana eta norberaren bizitza bateratzeko neurri gisa bideratzea lanaldia murrizteko eta moldatzeko edo aldatzeko eskaerak** (testu osoa [web orrialdean](#))

Gomendio orokor horrek interesa du Familiaren esparruan aipatzen genituen kexekin lotuta nahiz beste eztabaida- eta azterketa-espazio batzuetan egindako kexekin lotuta egindako zenbait kudeaketan, esku-hartzeen eta hausnarketen laburpen gisa (ikus, besteak beste, lanbidea, familia-bizitza eta bizitza pertsonala bateratzen laguntzeko politika publikoak berrikusteko udako ikastaroa, [txostenaren](#) zati orokorraren VIII.2. kapitulua. Hala ere, gure oinarriko interesa honetan datza: lanbidearen eta familiako bizitzaren bateratze orekatu batek haurrek eta nerabeek beren hezkuntza-prozesuan eta pertsona gisa duten garapenean behar bezala lagunduta sentitzeko markoak eratzen izan ditzakeen ondorioak.

Gomendioaren hasieran Arartekoari esparru jakin horretan dagokion zeregina zehazten da. Esparru juridikoari eta lan-esparruari buruzko oro Arartekoaren kontrolpetik at dagoela azaltzen du, langilearen eta enplegatzailean arteko harremana EAEko herri-administrazio bakar

batek ere esku hartzen ez duen harreman juridiko pribatua den heinean. Gainera, bada-ki planteamendu horiek hasiberriak direla eta administrazioarekiko auzian doktrina judicial urria dagoela, eta gainera, administrazioak antolaketa-ahalegin handia egitea eskatzen duela kasu batzuetan (pentsa dezagun pertsona erabiltzaileentzat bereziki ezagunak diren zerbitzuak –osasun zerbitzuak, egoitzazko gizarte zerbitzuak, etab.–, eta sarritan, etengabe eta txandakako erregimenean funtzionatzen dutenak. Hala ere, 1) negoziazioaren esparruetan eta langile publikoen lan-baldintzen arabera, lanbidea eta familiako bizitza bateratzeko neurriak praktikan jartzea erraz ditzaketen ekintzetan aldaketak eta/edo egokitzapenak sustatzera animatzen du; 2) Konstituzio Auzitegiaren doktrina proposatzen du (3/2007 epaia, urtarrilaren 15ekoa) izan daitezkeen interpretaziozko zalantzetan erreferente gisa; eta 3) eskaerak planteatutako baldintzetan artatzeko ezintasuna azaldu eta arrazoitzen duten antolaketa-zailtasunen motibazio nahikoa, objektiboa eta arrazoizkoa eskaintzen du.

3.3.4. Gure ustez, beste kexa bat ere garrantzitsua da, aurrekoak bezala azkenean gomen-dio orokor bat eratu ez duen arren, hain zuzen, **APREVASek**, **Euskadiko Haur Goiztiarren Erakundeak** aurkeztutako kexari buruz ari gara. Gure ustez, kexa hori nabarmentzeko modukoa da oso egoera larrian dauden haur batzuen egoera bistaratzen baitu. Haur horien garapeneko hainbat alderdi arriskuan egon daitezke goizegi jaiotzeagatik, eta gure Ongizatezko Gizartearen zenbait sistemen esku-hartze ondo harmonizatua behar dute beren eskubideak asetzeko. Gehienetan itxita dauden sailek heldutako behar osoen paradigmaren aurrean egongo ginateke. Zerbitzu soziosanitarioen eratzean hobekuntzak egiteko derrigorrezko beharraren adierazle ona da, 2008ko *Arreta soziosanitarioa: esparru kontzeptuala eta nazioar-teko eta autonomietako aurrerapausoak* izeneko txosten berezian jada adierazi zena, eta hezkuntza-sistemeekin egindako esku-hartze koordinatuak eta iragazkorrek gehitu behar zaizkio.

Ararteko erakundearen jarduerak, kasu honetan, hobekuntzak ekarri ditu berekin kaltetu-tako pertsona horiek sistemetan zehar ibiltzeko arintasunean (osasun zerbitzuetan eta gi-zarte zerbitzuetan, batez ere) eta mendekotasuna baloratzen eskumena duten erakundeen jardunak berrikustean. Hala ere, bistakoa da oraindik lanean jarraitu behar dela sailen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren bidean.

ARRISKU EGOERA BEREZIEN BILAKAERA AZTERTZEA

4. ARRISKU EGOERA BEREZIEN BILAKAERA AZTERTZEA

Adingabeen taldearen baitan, eskubideak bereziki arriskuan dituzten zenbait talde edo sektore daude. Arartekoak lehentasunezko arreta ematen aritu da haurren eta nerabeen sektore horiei, eta urte hauetan, lan monografikoen eta txosten berezien xede izan dira. Sektore horiei urtero jarraipena egin zaie. Egiatan, [Eusko Legebiltzarrari](#) eman beharreko urteroko txostenaren adingabeei buruzko arloan emandako informazio gehiena jarraipen horiek osatu dute. Izan ere, jarraipen horiek sekuentzien edo segiden arabera antolatutako informazioa ematen dute urtetik urtera, eta horri esker, adingabe horiek bizi dituzten zailtasun-egoeren bilakaeraren berri izan dezakegu.

Beraz, jarraipen horiek eratzeko aukera diguten segida horien 2010eko informazioa batzeko garaian gaude. Hala ere, arrisku egoera berezietan dauden haurrei buruzko txosten berezia berehala argitaratuko denez, berriz pentsatu behar izan dugu kapitulu honen edukiei eta luzerari buruz. Txosten hori lortutako informazio zabala eta aberatsa laburtzeko asmoz egin da, eta aldi berean arrisku egoeren diagnostikoa eguneratzen du, eta bere garaian egindako gomendioen inguruan zer aurrerapen egin diren adierazten du. Zehazki, 2010. urteari buruzko informazioan arreta jartzea erabaki dugu: egoera-adierazleak, egindako esku-hartzeak, bilakaerari buruzko balorazioak, zailtasun berriak edo azaleratzen ari diren zailtasunak, etab. Helburua izan da laster argitaratuko den txosten berezi horren osagarria izatea.

4.1. Babesik gabeko haurrak eta nerabeak

EAEn, babesik gabeko egoeran dauden pertsonak artatzeko arduraduna da gizarte zerbitzuen euskal sistema. [12/2008 Legeak](#), [abenduaeren 5ekoak](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, profesionalen agindutako prestazioak jasotzeko pertsonen eskubide subjektiboa aldarrikatzen du, babesik gabeko egoeran daudela baloratzen bada. Era berean, kudeaketako, esku hartzeko, koordinatzeko eta parte hartzeko eskumen-elementuak arautzen eta antolatzen ditu. Babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeen kasu jakinean, aipatu berri dugun [otsailaren 18ko 3/2005 Legearen](#), haurrak eta nerabeak zaintzekoa eta babestekoaren III. Tituluak elementu zehatzago batzuk aurreratzen zituen, baina 2008ko legean zehaztutako gizarte zerbitzuen testuinguru orokorrean ezin hobeto kokatuta zeudenak.

Aipatutako arau-markoak Eusko Jaurlaritzari ematen dio arau-garapenerako eskumena, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren plangintza eta koordinazio orokorraren eskumena, eta informazio-sistema, Gizarte Zerbitzuen Behatokiaren eta Goi Ikuskaritzaren diseinuaren eta inplementazioaren eskumena. Foru Aldundiek eta udalek eskumena dute pertsonari arreta emateko prestazioez eta zerbitzuez hornitzen (lehenengoak bigarren mailako arretakoak dira, eta bigarrenak, lehen mailako arretako prestazioak eta zerbitzuak). Erantzukizunen eskema hori oinarri hartuta, datozen azpiatal hauek modu berezitan landuko dituzte zenbait gai, besteak beste: arau-garapenari buruzko gaiak, autonomia-mailako lankidetzako tresna komunak eta protokoloak egiteari buruzko gaiak, babesik gabeko egoeran dauden haurrei eta nerabeei arreta emateko beharrekin eta erantzunekin lotutako alderdiak, eta foru- eta udal-erantzukizunei buruzko gaiak.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei emandako arreta atal honetan sartzen, funtsean, babesik gabeko egoeran dauden haurrak baitira. Hala ere, atzerritarrak direnez, beste araudi bat, oro har estatu-mailakoa (Atzerritarrekin lotuta dagoena), ere aplikatu behar zaie. Araudi horrek batzuetan adingabe atzerritarren ahultasuna larriagotzen duten elementuak hartzen ditu bere baitan, eta horren ondorioz, babes-sisteman artatzen diren gainerako haurrei eta nerabeei egiten ez zaizkien jarduera bereziak eta osagarriak behar dituzte. Hori dela eta, kapitulu honetan sartzean babesik gabeko haurrak direla nabarmendu arren, une batean haur eta nerabe horien egoera bereziak aztertuko ditugu xehetasunez.

4.1.1. Arau-garapena, tresna komunak eta protokoloak

Urte hauetan, Arartekoak babesik gabeko egoeran dauden haurren arloan behin eta berriz azpimarratu nahi izan du babesik gabeko egoerak hautemateko mekanismoak hobetu behar direla, eta diagnostikoa, harreran eta egoera horren arretan esku hartzen duten eragile eta zerbitzu guztien arteko koordinazioa beharrezkoa dela. Izan ere, [otsailaren 18ko 3/2005 Legearen](#), haurrak eta nerabeak zaintzekoaren eta babestekoaren azken xedapenetako lehenengoak adierazten du "arriskua- eta babesik gabeko egoeretakako balorazio-tresnak eta aplikazio-protokoloak egin eta onartu behar direla".

EAEn haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaletako eta lurraldeetako gizarte zerbitzuetan arrisku- eta babesgabekia-egoeren larritasuna baloratzeko tresna garatzeko interesa egon da (BALORA tresna). Tresna hori egiteko lanean [Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritza](#) izan da buru. Esparru horren jarraipena egiteko eratu diren ofiziozko espedienteen markoan, adierazten zaigu babesik gabeko egoerak eta babesgabekia-mailak baloratzeko tresna komun horri arau izaera emango dion dekretu araupetzaila onartzeko hasi den prozesua bukatzeko zain dauden bitartean, lanean jarraitu dela tresna hori erabiltzen ikasteko prestakuntza-ekintzak eginez. Ekintza horietan hartu dute parte udaletako gizarte zerbitzuetako langile teknikoek, egoitza-harreraren, familia-harreraren eta adopzioaren esparruan lan egiten duten profesionalak, eta haurren eta gazteen eremu-taldeetako langileek (EZIA) eta Talde Psikosozial Judizialak Gipuzkoan. Saio horietan, tresna horren aplikagarritasuna hobetzeko ekarpenak eta iradokizunak jaso dira, eta gainera, ikastetxeetan eta [Osakidetzan](#) edo udalerrri txikietan informazioa biltzeko zailtasunak daudela adierazi da. [Arabako Foru Aldundiak](#) adierazi du bere kasuan balorazio tresna hori esku-hartzearen hasieran erabiltzeaz gain, Kasuaren Planen hurrengo berrikusketetan ere erabiltzen dela, dagokion unean zerbitzu eskudunei deribatuzko, kasuaren bilakaeraren eta beharren arabera.

Jarduera-protokoloei dagokienez, aipatutako legean xedatutakoari 131/2008 Dekretuaren, uztailearen 8koaren, gizartean babesik gabe dauden haur eta nerabeentzako egoitza-harrerarako baliabideak arautzen dituenaren, bosgarren, seigarren eta zazpigarren xedapen osagarriak gehitu behar zaizkio. Xedapen osagarri horiek Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak premiatzen dituzte gizarte zerbitzuen sistemaren barruan dagokien administrazio-mailen artean eta beste sistema batzuen artean (justizia, diru-sarreraren bermea, enplegua...) koordinazio-protokoloak egitera, bakarrik dauden adingabeen larrialdiko harrera-protokoloak eta baimendu gabeko urruntzeetarako jarduera-protokoloak egitera.

Gai horretan, aipatu ditugun jarraipen-espeditenteen bidez jasotako informazioaz gain, 2009ko abenduaren azken urteetan irekitako ofiziozko espeditetik (60/2009/31 espeditentea) ateratako informazioa ere badugu. Jaso genituen zenbait kexa-espeditenteen azterketak bultzatu zuen espeditente hori, eta beste gauza batzuen artean, protokolo horiek egitera premiatzen zuen.

Horri guztiari buruz hemen hau adieraz dezakegu: hiru Lurralde Historikoetako bakoitzak bere kabuz eratutako protokoloak erabiltzen jarraitzen diren bitartean, 2010eko udazkenean erakunde arteko lan-talde bat jarri dela abian ([Eusko Jaurlaritza](#), foru aldundiak eta [EUDEL](#)) eta 7 lan-taldetan banatuta dago. Lan-talde horiek aldi berean arin eta eraginkortasunez lan egin beharko dute beharrezko protokoloak sortzen.

Hala ere, oraindik ez dira aldarrikatu, gainerakoak ez bezala, bakarrik dauden adingabe atzerritarren larrialdiko harreraren jarduera-protokoloa eta baimendu gabeko urruntzeen protokoloa garatzeko taldeak. Arartekoaren ustez, 2010. urtean batez ere larrialdiko harreraren jarduera-protokoloa egitea izugarri errazten duten erabaki multzo bat hartu dira. Harrera horretan esku hartzen duten eragileek nahi eta espero duten protokoloa da.

Bukatzeko, ezin dugu bukatu babesik gabeko egoeran dauden haurren arretarako gizarte zerbitzuen jarduna arautzen duen arau-garapenari dagokion atala hau adierazi gabe: Arartekoko Haur eta Nerabeentzako Bulego honek [12/2008 Legea](#), [abenduaren 5koa](#), Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, garatzeko hasi diren prozesuei arretaz jarraitzen die, bai eta bere Plan Estrategikoa egiteko hasi diren prozesuei ere, gizarte zerbitzuen euskal sistemaren egituraketan eta hobekuntzan eragin zuzena duten neurrian.

4.1.2. Babesik gabeko haur eta nerabeentzako arreta

Babesik gabeko haurrei buruzko atal honen sarreran genioenez, foru eta tokiko administrazioaren eskumena da babesik gabeko haurren arretarako prestazio eta zerbitzu gehienak ematea. udalek lehen mailako arreta zerbitzuen erantzukizuna hartzen dute beren gain, eta foru aldundiek, berriz, bigarren mailako arreta zerbitzuei dagozkienak. Izan ere, zerbitzu horiek izan dira ardatza 2010eko ekitaldi honetako jarraipenen arretari dagokionez.

Hiru foru aldundien datuak eta ikuspegia biltzeko, arartekoak, azaroaren hasieran, ofiziozko bi espeditente helarazi zizkien aldundiei (espeditenteetako bat lagunduta ez dauden adingabe atzerritarrei buruzkoa), informazio kuantitatiboa eskatzeko: arreta jaso duten herritarrei buruzko datuak, familia banantzearen gaineko babes neurriei buruzkoak (bizileku-harrerak, familia-harrerak eta adopzioak), lagundu gabeko adingabe atzerritarren berariazko datuak (harrerako adingabeen kopurua, administrazio arauak eta egoerari buruzko informazioa...) eta datu kualitatiboak: egoitza baliabideen sarean eginiko aldaketak, zentroak dekretu arauemaileak ezarritako baldintzei egokitzea edo dagoeneko aipatuak ditugun arriskuak eta babesik ezak detektatzeko bideetan eginiko aurrerapenak. Emandako informazioa hobeto ulertzeko, lurralde historikoen arabera aurkeztu da informazio hori, baina azken atalak hiru lurraldeei buruzko ezaugarri komunak edo aplikaziokoak dakartza.

Nolanahi ere, foru aldundiek beren zerbitzuetan arreta jaso duten adingabe atzerritarren egoerari emandako informazioa osatzeko, Ararteko erakundearen beste jardueri buruzko aurreko informazioa eman da. Kexen ikerketa eta kudeaketa, ikuskapen-bisitak, etab. Aipamen berezia merezi du Espainiako herriaren defendatzailearen eta EAEko arartekoaren teknikari eta aholkulariek partekaturiko 2010eko urtarrileko tailerrak, *Atzerritarren Legearen erreformari buruzko 2/2009 Legeak* zekarren aukera baliatuz (Autonomia Erkidegoen eta jatorrizko gobernuen arteko akordioak egiteko aukera ematen zuen, tutoretzak beste Autonomia Erkidego eta gizarte erakunde batzuetara lekuz aldatzea, etab.). edo garapenari buruz aurreikusitako arautegia, edukietan eragina izatea ahalbidetuko lukeena. Nolanahi ere, lagundu gabeko adingabe atzerritarren eskubideen aldeko lanean dauden zenbait arazo edo zailtasun elkarrekin aztertzea zen xedea, eta bereziki azpimarratu dira autonomia erkidego bakoitzean erantzun berezia emateko zailagoak diren edo erakundeen arteko lankidetzaren beharrezkoen eta baliagarrien irizitako arloak.

4.1.2.1. Arabako Lurralde Historikoa

Arabako Foru Aldundiari eginko informazio-eskaeran, emandako datuen barruan *Gasteizko Udalar*i dagozkionak ere sartzeko eskatu zen; izan ere, haurren arretarako zerbitzu espezializatua dauka. Foru erakundearen erantzuna 2011ko urtarrilean jaso da, eta 2010eko abenduaren 20ko datuak ematen ditu (1, 2 eta 3. ataletan), baina ez dakartza Gasteizko Udalekoak, egun horretan ez baitzegoen halako daturik.

1) Espedientei eta 2009 eta 2010 urteetan arreta emandako biztanleriari buruzko datuak

3. taula. Arabako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen eta espedienteen kopurua (2009 eta 2010)

	2009	2010
Jasotako jakinarazpen kopurua	154	128
Kasu bakoitzean ageri den adingabe kopurua	205	189

2) Familia banantzeko babes neurriei buruzko datuak**4. taula. Adingabeen kopurua, familia banantzeko babes neurrien arabera (2009 eta 2010)**

	2009	2010
Familia gunetiko banantzeak:		238
Gain hartutako zaintzak	42	
Gain hartutako tutoretzak	24	
Egoitza harrerak:		110
Harrera eta Larrialdietarako Zentroak	92	
Bizitokiak	114	
Familia harrerak	131	122
Familia harreraren antzeko egoerak	5	6

3) Adopzioei buruzko datuak**Nazioartekoak**

2010ean aurkeztutako eskaera kopurua	29
Eratutako adopzioak	27

Estatukoak

2010ean aurkeztutako eskaera kopurua	12
Eratutako adopzioak	5

4) Azken urtean egoitza zerbitzuen sarean sartutako aldaketak

2010. urtean, [Arabako Foru Aldundiak](#) ondoko baliabide hauek kendu ditu; guztira 71 plaza eskaintzen zituzten:

- Canton de Santamaria Etxea. Bertan garatzen zen egoitzako harrerako oinarrizko programa 3-18 urteko haurrentzat. [IRSE elkarteak](#) kudeatuta zegoen, eta zerbitzuak [Gasteizko Udalarekin](#) kontratatuta zeuden. Abuztuan itxi zen.
- Aukera. Emantzipaziorako prestakuntza programa garatzen zen bertan 16-18 urteko nerabeentzat. [Kolare Guztiak](#) kultur arteko elkarteak kudeatuta zegoen, Arabako Foru Adlundiarekiko lankidetzeta-hitzarmenaren bidez; abenduan itxi zen.

- Estibaliz behin-behineko unitatea. Emantzipaziorako prestakuntza programa garatzen zen bertan 14-18 urteko nerabeentzat. Ixuri elkarteak kudeatuta zegoen, Arabako Foru Aldundiarekiko hitzarmenaren bidez; apirilean itxi zen.
- Zabaltzen. Emantzipaziorako prestakuntza eta harrera programa garatzen zen bertan Lagundu gabeko adingabe atzeritarrentzat. Hori ere Ixuri elkarteak kudeatuta zegoen, foru erakundearekiko hitzarmenaren bidez, eta azaroan itxi zituen ateak.

Gainera, zenbait aldaketa izan dira sareko beste baliabide batzuetan:

- Osasun Iturria Udal Etxea. Aldaketa bat gertatu da erakunde kudeatzailean; izan ere, [Izan elkartearen](#) eskutik [IRSE elkartearen](#) eskura pasatu zen irailean.
- Sansoheta gizarte-hezkuntzako etxea. Zentroa izan elkarteak kudeatuta dago, eta instalazio berriak inauguratu zituen abuztuan. Instalaziooi esker, 24 plaza izango dira eskuragai –orain artean 16 ziren– zerbitzua kontratu publikoaren bidez esleitzeko prozesua ebaztearekin batera. Aurreikuspenen arabera, 2011ko lehen hiruhilekoan esleituko da.
- Ibaia Nerabeentzako Harrera eta Larrialdi Zentroa. Uztailaz gero [Nuevo Futuro elkar-teak](#) kudeatuta dago (ordura arte, Salesko San Frantzisko Sozietate Salestarrak kudeatzen zuen). Aurreikuspenen arabera, 2011ko lehen hiruhilekoan ebatziko da zerbitzu-kontratuaren esleipena eta, ondorioz, kudeaketa modua aldatuko da, plazak (10etik 14ra) eta langileak gehitu eta aldaketak gauzatu dira instalazioetan.

Azkenik, esleitzeke dago bi pisu berrien kudeaketa: emantzipaziorako prestakuntzako pisu bat (12 plazakoa) eta emantzipaziorako beste pisu (6 plazakoa), biak Gasteizen kokatuko direnak.

5) Zentroak dekretu honetan ezarritako baldintzetara egokitzea: [131/2008 Dekretua](#), [uztailaren 8koa](#), [gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautu dituen](#)

Zentroen ezaugarri materialei dagokionez jakinarazi denez, sortu berriak diren zentroak erabat egokitzen zaizkie dekretuko xedapenei, eta gainerakoan, instalazioak eta ekipamenduak mantendu egin dira.

Langileria dagokionez, foru erakundearen ustez, oro har, egokitu egin zaizkie dekretuaren baldintzei lanbide kategoriaren eta kopuruaren aldetik (baina egiteke daude titulazioen zenbait homologazio).

Bestalde, zentroaren proiektuak eta funtzionamendu arautegiak eguneratzeko lanak bukatzen ari dira.

6) Lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoera

Azpiatal honetako datuen lehen blokean aurkezturiko datu orokorretatik, hauexek dira lagundu gabeko adingabe atzerritarrei berariaz dagozkienak:

5. taula. Arabako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010)

	2009	2010
Sartu berriak	122 ¹	46
Urtean barrena hartu diren adingabeak	233	148
Abenduaren 31n baliabideetan hartuta zeuden adingabeak	101	33
Abenduaren 31n emantzipazio-baliabideetan zeuden adingabeak	13	1

1 Zentroetan berriz hartu diren 17ak sartu gabe.

[Arabako Foru Aldundiak](#) bere erantzunean dioenez, arreta jaso duten mutilen kopuruaren jaitsierarekin du zerikusia aurreko urtearekiko izan den aldaketarik nabarmenenak; izan ere, ikus daitekeenez, oso adierazgarria da. Afrika beltzeko mutilen kopuruak behera egin duela ere esaten da, baita Magrebeko mutilen portzentaje handiagoa dagoela ere.

Ondoko taulan, Arabako Foru Aldundiak bere babes baliabideetan arreta jaso duten lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio egoerari dagokionez burutu dituen jarduerak ageri dira:

6. taula. Arabako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio egoerari buruzko datuak (2009 eta 2010)

	2009	2010
Urtean barrena onartutako tutoretzak	27	87
Eskatu diren egoitza-baimenak	34	23
Lortu diren egoitza-baimenak	27	18
Egoitza-baimena lortzeko denbora, gutxi gorabehera	10 hilabete eta 24 egun	18 hilabete
Eskatu diren lan-baimenak	4	0
Lortu diren lan-baimenak	4	0

Lau gai nabarmentzen ditu Arabako Lurralde Historikoan babesik gabe dauden adingabe atzerritarren arretaren inguruko kexa-espedienteen izapidetzeak ematen duen ikuskerak:

a.- *Egoitza bazterketan zeuden pertsonentzako gizarte arretarako udal zentroan (udal aterpetxea), adingabe atzerritarrak bizi ziren.*

Gasteizko Udalak igorritako informazioaren arabera, 2009ko uztailetik abendura 40 adingabe atzerritar izan ziren Gizarte Harrerako Udal Zentroan, eta halaxe jakinarazi zitzaion erakunde honi. Afrika beltzeko adingabe horiek zeramatzaten pasaporteek zekartenez, adingabeak ziren. 40 adingabe horietatik, soilik 10 bideratu ziren Zabaltzenera, 24 adingabe zentrotik joan ziren, eta 6k une hartan Gizarte Herrerarako Udal Zentroan jarraitzen zuten arreta jasotzen. Guztira 1.017 egunetan hartu dira aterpetxean adingabe atzerritar horiek. Hala gertatu zen, jendez gainezka baitzeuden Arabako Foru Aldundiko adingabe atzerritarren arretarako egoitzak.

Arartekoak ofizioz jarduteari ekin zion, eta aurretiazko zenbait ohar helarazi zizkion Arabako Foru Aldundiari, Arabako Foru Aldundiari dagokion adingabeen babesaren gaineko eskumenari buruzkoak, baita artikulua honi buruzkoak ere: 35.3. artikulua, **Azterritarrek Espainian dituzten eskubide eta betebeharren eta horien gizarteratzearen Lege Organikoarena.**

Erakunde honen aburuz, adingabe atzerritarrak adin nagusikoen gizarte baliabideetan izateak ez du lege babesik. Gazte horien adina ziur jakiterik ez izatearen arazoa gertatzen baldin bada, arreta ere babes zerbitzuei dagokie harik eta adina legez xedaturiko moduan ezartzen den arte. Nolanahi ere, behera egin du Arabako adingabe atzerritarren kopuruak 2010ean, ikusi dugunez. Hori dela-eta, ez da arazo hori berriz gertatu.

b.- *Arabako Foru Aldundiko egoitzetan zeuden adingabeak epailearen zitazioak jasotzen ari ziren dokumentuak faltsutzearen ziozko delituengatik inputatu gisa. Foru Aldundiak ez zuen bere gain hartzen babesik gabeko adingabe atzerritarren tutoretza, eta ez zuen egoitzarako baimen-eskabiderik aurkeztzen Gobernuak Araban duen Ordezkariordeztan.*

Arabako Heldu zerbitzuak erakunde honetan aurkezturiko txostenaren arabera, ez zen betetzen ari Arabako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren atzerritarrentzako arreta juridiko sozialeko zerbitzuaren (Heldu) artean aurreko urteetan izandako lankidetzarako prozedura, egoitza baimenak izapidetzean. Egoera horrek 41 adingaberi eragiten zien gutxienez, zeren kexak jaso baike nituen haiengandik guztiengandik. Kexetan adierazten zigitenez, hileak zeramatzaten (edo urtebete baino gehiago ere bai) adingabe atzerritarren egoitzetan Foru Aldundiak egoitza baimenik eskatu egin gabe. 2009an Bideberria I eta II egoitzara egin genuen bisitaldian, egoera horren berri izan genuen. Gainera, haietako zenbait 18 urte betetzear zeuden eta, beraz, zalantzazkoa zen haien berehalako etorkizuna.

Gure informazio-eskaerari emandako erantzunaren arabera, adingabeen benetako adinari buruz zituzten susmoengatik ez zuen Foru Aldundiak gazteon tutoretza bere gain hartu. Adingabe horiek gehienak Afrika beltzekoak ziren, eta Polizia Nazionalak

beste datu batzuk eman zituen horien inguruan Kanariar Uharteetan aurkitu zituztenean. Foru Aldundiak eskumuturreko proba erradiologikoak eginak zituen, eta zerbitzu medikoek emandako balorazioetan ondorioztatzen zenez, adingabeak 18 urtetik gorakoak ziren. Hortaz, Arabako Foru Aldundiak ez zuen bere gain hartu adingabe atzerritarren tutoretza sistematikoki, hots, ez zuen bere gain hartu babes baliabideetan arreta jasotzen ari zen adingabe baten tutoretza ere, eta haien kontrako salaketa jarri zuen epailearen aurrean, ustez dokumentuak faltsutzeagatik, gazteek zeramatzaten pasaporteak egiazkoak ez zirela irizita.

Adingabe atzerritarren salaketak bide judizialean artxibatu ziren: Ministerio Fiskala jakinaren gainean egon gabe egin ziren proba medikoak; izan ere, Ministerio Fiskalak horretarako baimena eman eta adingabeen adina ezarri behar du adinaren gaineko zalantzak daudenean, eta gainera, ez zuen parte hartu [Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak](#).

Kasu honetan, [Arartekoak ebazpen bat](#) eman zuen, eta hauxe gomendatzen dio [Arabako Foru Aldundiko](#) Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailari: Arabako Lurralde Historikoan dauden babesik gabeko adingabeen tutoretza bere gain hartzeko lege betebeharra bete dezala, haien tutore gisa dagozkion babes neurriak burutu ditzala, aurreikusitako eskubideak eta bermeak bete ditzala adina ezartzeko probak egin behar direnean eta egoitza baimena ematea gomenda dezala adin nagusikoak badira eta baimenik ez badute. Halaber, ez zettorren bat pasaporteei emandako tratamenduarekin, pertsonaren nortasuna egiaztatzeko baliozko agiri ofiziala delakoan pasaportea.

Ministerio Fiskalak ere jarduerak egin zituen Arabako Foru Aldundiak tutoretza bere gain hartu ez zuela-eta, [Fiskaltzaren Oroitidazkia 2010](#).

Tutoretza bere gain ez hartzeak berekin zekarren adingabe atzerritarren egoitza baimenaren eskaera aurkeztu ez zela ulertzea. Adingabe horietako zenbaitek 18 urte bete zituzten, eta Foru Aldundiak ere ez zuen egin adingabeek eskaturiko gomendioa. [Abenduaren 30eko 2393/2004 EDren](#) artikuluan ezarritakoaren arabera, horrelako baimenak eman dakizkieke 18 urte bete eta aurretiazko egoitza baimena ez duten adingabeei (Dekretu horrek *urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa onetsi du, atzerritarrek Espainian dituzten eskubideen eta askatasunen eta horien gizarteratzearen gainekoa*).

Egoera, azkenean, desblokeatu ahal izan zen, eta adingabe atzerritarrek egoitza baimenaren eskaera aurkezteko modua izan zuten. 18 urte bete zituztenek, berriz, salbuespenezko inguruabarren ziozko egoitza baimenaren eskaera egin zuten. Izapidetu genituen 41 espedienteetatik, 38k lortu dute egoitza baimena; bakarrik hiru adingabek ezin izan zuten hura eskuratu.

Hiru gazte horiek lehenago alde egin zuten adingabe atzerritarrentzako egoitzetatik eta, horregatik, Foru Aldundiak ez zien eman arestian aipatu dugun 92.5 artikuluan

ezarritako gizarteratze programak baliatzeari buruzko agiria. Egonaldiari buruzko ziurtagiri bat eman ziren. Horietako bat egoitza 2010eko urtarrilean utzitako adingabea zen eta, horregatik, atzerritarren fiskal eskuordetuak zitazioa egin zion 2010eko maiatzaren 3an adina ezartzeko proba medikoak egiteko. Adingabea azaldu ez zenez gero, fiskalak jarduerak artxibatzea erabaki zuen Txagorritxuko Ospitaleak 2008ko irailaren 22an eginiko txostenaren arabera. Proba haiek Ministerio Fiskalaren baimenik gabe eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeak parte hartu gabe egin ziren. Gainera, karmoaren erradiologia proba bat besterik ez zen izan. Jardun hori ez zettorren bat Auzitegiko Medikuntzako Erakundeek berriki erabakitakoarekin, hain zuzen auzitegiko medikuek lagundu gabeko adingabe atzerritarren adina ezartzeari buruzko lan-jardunaldiaren ondorioetarako erabakitakoarekin, ezta [Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2009 Kontsultarekin](#) Estatuaren Fiskaltza Nagusiaren 1/2009 kontsultarekin ere (*"Lagundu gabeko adingabe atzerritarren adina ezartzeari buruzko espedienteen gaineko zenbait ezaugarri"*). Kontsulta horretan ezarritakoaren arabera, egin behar zaizkien proben eta horien norainokoaren eta probak egiteari ezetz esateak dakartzan ondorioen berri eman behar zaie adingabeei. Baimendutako informazio hori garrantzi handikoa da; hain da garrantzizkoa, informazioaren baliozkotasuna zalantzan jarri da proba egin ezean.

Foru Aldundiak, haren menpeko zentroetan adingabe bat zegoela egiaztatzen zuen idazkian, Fiskaltzaren Dekretuaren arabera adinez nagusia zela jakinarazi zuen. Gobernu Ordezkariordeztzak ukatu egin zion egoitza baimena salbuespenezko ingurua-barrengatik. Arartekoak bere jarduna eten du bide judizialean baitago auzia.

c- Foru Aldundiko egoitzetan arreta jasotzen duten adingabe atzerritarrak hezkuntza trataeraz kexu ziren: jasotzen zituzten zehapenez, haien denbora libre gutxiaz eta jasan izan zituzten hainbat euste-jarduerez, besteak beste.

2010eko hasieran, gatazka piztu zen, eta ondorioak izan zituen Bideberria I eta II egoitzan; izan ere, oihartzun zabala izan zuen hedabideetan auziak, adingabe askok egoitzetatik alde egin baitzuten hotz handia egiten zuen unean, Gasteizen tenperatura baxuak zirela. Orduan, Bideberria I eta II egoitzetan hartutako 25 adingabek arartekoarengana jo zuten eta jasotzen zuten hezkuntza arretaren inguruko kexa agertu zuten. Neurritz eta tokiz kanpokotzat jotzen zuten hiru adingaberen kontra ezarritako zigorra. Ondorioz, elkartasunez, gainerako adingabeek lagundu egin zieten eta uko egin zieten irakasleek emandako jarraibideei. Hori dela-eta, egoitzatik alde egin zuten zenbait egunez.

Eginiko kexan, jasotzen zuten hezkuntza arreta aipatzen zuten, hain zuzen ere hezitzaileen tratua. Adierazi zuten, arauak etengabe aldatzen ziren, eta garrantzirik ez zuten jarrerengatik edo balorazio ezberdinak izan zitzaizketen jarrerengatik zigortzen zituzten. Hezitzaileen kontrako edozein iritzi zekarren edozein jarrera zigortzen zen. Janaria zigortzen zituzten: ohiko jatekoa barik gurin-ogitartekoak ematen zizkieten, edo esne hotza gosarian bete beharreko zigorra izanez gero. Egun guztietan lana eragiten zietela ere aipatzen zuten, adingabeen egoerak eta nahiak kontuan izan

gabe: lorezaintza, futboleko jolastea, etab. dituzte gustuko. Egoera gogortu egin zen azken hileetan, eta ondorio hau atera zuten: hain egoera zailean jartzen ari ziren, egoitzatik alde egitera bultzatu nahi zituztela zirudien zentroak gainezka zeudela-eta konponbidea bilatu nahian. Adingabe horiek, jakin ahal izan genuenez, ez ziren egoitzara itzuli hainbat egunetan eta, ondorioz, kezka handia piztu zen. Gure ustez egoitzara itzuli behar zutela adierazi genienean, tratu txar eta hezitzaileen komentario arrazista gehiago jasateko prest ez zeudela erantzun ziguten, baina azkenean gehienak itzultzen ziren egoitzetara.

Arartekoak hainbat argibide eskatu zuen: gertaera horiei buruz, zentroaren hezkuntza irizpideen aldaketei buruz, arau-hausteei buruz, adingabeei azken sei hileetan ezarritako zuzenketa-neurriei buruz, urtarrileko lehen egunetako gertaeretan izan ziren zenbait partaideri emandako ustezko zigorrei buruz hala nola 13 orduz biltegi batean sartzea edo heziketa zentroetara joatea galarazteaz. Arabako Foru Aldundiak ez zion erantzun idazkiari.

Ondoren, gizarte eta hezkuntza eragileen hezkuntza arretari buruzko kexa gehiago jaso genituen. Kexa horiek, gehienbat, jasotzen zituzten zigorren gainekoak ziren. Neurritz kanpokotzat eta haien eskubideen eta duintasunaren kontrakotzat jotzen zituzten zigorrak (garbiketako aparteko lanak, gurin-ogitartekoa bazkaltzeko eta afaltzeko, hainbat orduetan paretari begira eseraraztea...); edo hezitzaileekiko harremanen ingurukoak. Izan ere, kontrolatzaileen profila zuten, eta adibide bat jartzen zuten: hezitzaileari "lehenengotan" kasurik egin ezean, zigorra ezartzen zieten; edo ramadana egiteko zailtasunak (hasieran zigorra ezarri zitzaien); edo lanbide heziketa hasteko eta jarraitzeko zailtasunak eta aisialdi ekintzei buruzko erabakiak hartzeko askatasunik eza eta baliabidea eta jarduerak antolatzeko moduan eragina duten edozein erabaki hartzeko.

Kexak hainbat aldiz helarazi zaizkio Haur Zerbitzuko arduradunari. Arduradunak berak jakinarazi zigunez, kexaren zenbait arrazoi argitu eta gairen batean aurrera eginen ari ziren arlo horretan hala nola aisialdi ekintzen edo ramadana egiteko aldiaren gainean.

Halaber, erakunde honek kexa bat izapidetu zuen otsailean izan ziren zenbait gorabeheraren inguruan. Zigorra arrazoirik gabe ezartzearen kontrako protesta aldiaren zaintzaileetako batzuek eraso egin zieten esan zuten adingabeek. Telefono bidezko gestioa egin genuen gai honetaz interesa agertzeko, eta kautelazko neurri bat proposatzeko gertaerak argitu aurretik, adingabeak erakundera etorri ziren egoera eta egoitzara itzultzeari ezetz esaten zutela ikusita. Foru Aldundiak erantzun zuten, adingabeek egoitzan sartu behar zuten egoerari buruzko balorazioa egiteko. Idatzizko erantzunari dagokionez, Arabako Foru Aldundiak erantzuna eman zion erakunde honi 2010eko maiatzean, eta xehetasunez eman zizkiguten adingabeen arloan eginiko jarduerak. Horietako bat ekainean itzuli zen zentrori. Azkenik, eurek adierazi zuten, gertaera haien ondorioz, salaketa judizialak ezarri ziren; adingabeak prozeduran kondenatu egin ziren gertaerongatik, Bideberria Egoitzara azaroan

egin genuen bisitaldian jakin ahal izan genuenez. Aurrerago emango dugu horren berri.

Arartekoak, 2010ean, hainbat gestio egin ditu hezkuntza arretaz eta adingabeek kontatzen zituzten zigorrez kezkatu. Kexak aztertzen ari zirela erantzun zigun Foru Aldundiak. Erakunde honek kexeekin lotutako bisitaldiaren ondorioen berri ere eman du, eta 2011n hezkuntza arretaren gaineko jarraipena egingo duela adierazi du.

Oso kezagarria da egoitzetan aurreko urteetan baino adingabe gehiago egotea; izan ere, ez zaie ematen ari araudian ezarritako betebeharren arabera arretarik, agiriak erregulatu beharri dagokionez. Ondorioz, kexa ugari izapidetu dira. Egoera horren ondorioz, hainbat bilera egin ditu erakunde honek Fiskaltzarekin, Gobernuak Araban duen Ordezkariordezarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin.

Maiatzaz gero, behera egin zuen Arabako Lurralde Historikoan dauden adingabe atzeritarren kopuruak eta, aldi berean, hobetu egin zen erakundeen arteko lankidetzatza. Adingabeen tutoretza bere gain hartu eta egoitza baimenaren eskabideak aurkeztu ziren. Adingabeek 18 urte bete izanaren ondoriozko ezohiko inguruabarreratiko egoitza baimenak ere izapidetu ahal izan ziren, beharrezko gomendioa dagoela-eta.

d.- Adingabe atzeritarrek, 18 urte betetzen zituztenean, ez zuten laguntzarik izaten beti autonomia eskuratzeko, eta baldin bazuten laguntza ez zen nahikoa.

Kexak jaso ditugu, 18 urteko adina betetzen duten adingabeen egoeran eragina dutenak; ez dute Foru Aldundiaren estaldura egokirik (beste lurralde historikoetan, ordea, badute estaldura hori). Espedientea izapidetzen ari da oraindik.

Bestalde, beste lurralde batzuetan ez bezala, [Gasteizko Udalak](#) gazteei arreta emateko programa bat burutu du. Horri esker, zenbait kasutan, adingabe atzeritarrek ostata eta hezkuntza arreta jasoko dituzte eta, beste batzuetan, diru-laguntzak edukiko dituzte.

Bestalde, 2010eko amaieran, egoitza harrerari uztearen gaineko kexa bat jaso zen. Kexan adierazten zenez, Arabako Foru Aldundiak ez zion eman uzteari buruzko ebazpena Bideberria egoitzako hezitzaileek azaroaren 15ean hauxe jakinarazi zitzuten: adina ezartzeko eginiko proben arabera, adinez nagusikoa zenez gero, egoitza utzi behar zuen nahitaez. Dirudienez, fiskaltzak 2010eko abuztuan adin nagusikoa zela erabaki zuen, baina azaroan jakinarazi zioten egoitzako arduradunek zentroa utzi behar zuela. Azkenik, Foru Aldundiak tutoretzari uzteko ebazpena jakinarazi dio. Adingabeak bide judicialera jo du tutoretza uztearen kontra. Adingabeak zeukan pasaporteak zekarrenez, adingabea da eta, beraz, indarrean jarraitzen du pasaportearen baliozkotasunari buruzko eztabaidak. Arabako Fiskaltza proba medikoak egiteko baimena ematen ari da, adingabeen pasaportearen adingabeak direla ageriarazita badago ere.

Arabako Lurralde Historikoari dagokion beste kexa bat hauxe da: Arabako Foru Aldundiak ez zuela eskatu dokumentazioa harrera familian zegoen adingabe baten tutore gisa. Adingabe horrek ez zuen dokumenturik eta, beraz, ez genekien jatorrizko herrialdea ez adina. Ondorioz, denborak aurrera jarraitzen zuen dokumentaziorik izan gabe, eta horrek zailtasunak dakartza. Halakoetan, [Atzerritarren eskubideen eta betebeharren eta haien gizarteratzearen Lege Organikoan](#) ezarritako araudia aplikatu behar da dokumenturik gabeko pertsonen dagokien eta nazionalitatea eskuratzeari dagokionez, baldin eta adingabea Espainiako herritar edo erakunde baten tutoretza, zaintza edo harrerapean badago bi urtez. Foru Aldundiak adierazi zuenez, ez zen dokumentaziorik ezaren inguruko arazoa, baizik eta jaiotze dataren eta tokiaren, filiazioaren, eta abarren gaineko daturik eza. Hori dela-eta, ez du nortasun juridikorik ondorio guztietarako. Hortaz, erregistroko espediente eskatu zuen erregistroan epez kanpora inskribatzeko, eta onartu egin da eskaera.

Ikustaldia Gasteizko Bideberria zentrora

Gasteizko Bideberria zentroan emandako hezkuntza arretaren inguruan jasotako hainbat kexa ikertzearen eremuan, Arartekoaren pertsonalak ikustaldia egin zuen zentrora 2010eko azaroaren 18an aurretik abisurik eman gabe. Zentro horretara beste ikustaldi bat egin zen 2009ko azaroan, eta horren berri eman zen urteko txostenean ([Urteko txostena 2009](#)).

Ikustaldia egin zeneko Bideberri egoitza eraikin independente batean dago, Gasteizko Molinuevo parkean. Egoitza lxuri elkarteak kudeatuta dago [Arabako Foru Aldundiarekin](#) duen hitzarmenaren bidez, eta 2009ko ekainean inauguratu zen. Oinarrizko programa orokorrak premiazko harrera programak garatzen ditu; azken programa hori Zabaltzen zentroa itxi zenetik ikustaldia baino egun batzuk lehenago. Zentroa eraikineko bi solairutan kokaturiko bi egoitza-unitate independentetan dago banatuta. Bien funtzionamendua nahiz instalazioak (Bideberri I eta II) antzekoak dira. Bisitaldian haietako bat izan zen ardatza, premiazko harrera programa garatzen den unitatea. Ikustaldiaren egunean, 27 nerabek edo gaztek jasotzen zuten arreta (12k unitate batean eta 15ek bestean), horiek guztiak mutilak eta lagundu gabeko atzerritarrak.

Ikustaldi zehatza egiteko, Arartekoak babes zentroak ikuskatzeko eginiko behaketa-gida erabili zen, erreferentziatuz [uztailaren 8ko 131/2008 Dekretua](#) hartzen duena. Dekretu horrek gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak araupezen ditu. Bestalde, informazioa, funtsean, hauexek erabilia bildu zen:

- Sakoneko elkarrizketa zentroko zuzendariekin.
- Zentroan arreta jasotzen duten bi mutilei elkarrizketa.
- Zentroko instalazioetarako ikustaldia.
- Zentroan arreta jasotzen duten adingabeen hainbat espediente pertsonal berrikustea.
- Irakasle taldearen aretoan dauden artxibo informatikoen eta dokumentazioaren zati bat berrikustea.
- Zentroaren dokumentazioa berrikustea, azterketarako emandakoa: Bizikidetzeta gida, zentroaren arau orokorrak eta erregistroak (baimendu gabeko absentziak, ezarritako neurriak, etab.).

Ikustaldiaren ondorioetatik, honako hauek nabarmendu nahi ditugu elementu positibo gisa: instalazioek dituzten baldintzak, irakasleen bulegoa antolatzea eta banako arreta hobetzea, gehienbat adingabeek egin nahi dituzten aisialdi jardueri buruzko erabakietan parte hartzeari dagokionez; izan ere, gai hori aurreratu du Haur Zerbitzuko arduradunak.

Kezka sortzen diguten elementuei artean, honako hau deigarria iruditu zitzaigun:

- o Logelak ez daude pertsonalizatuta. Adingabeek ezin dute objektu pertsonalik logeletan eduki. Logeletan oinarritzko elementuak falta dira, hala nola, armairua, mahaia, apalak eta aulkiak.
- o Ez daukate intimitatea izateko lekurik: adingabeak gauzez bakarrik sar daitezke logeletan.
- o Zentroan ezin da bisitarik jaso. Horrez gain, ez dago telefonorik adingabeen esku, familiarekin eta lagunekin harremanetan egoteko. Zentroan ez daukate baimenik telefono mugikorra kargatzeko.
- o Hezkuntzako materialak urriak dira: liburuak, egunkariak, Internetera sarbidea duen ordenagailua.
- o Jarduera beragatik zenbait hezkuntza-ondorio daude (zigorrak) -gutxienez ikuskapean aztertu genuen espedienteetan-.

4.1.2.2. Bizkaiko Lurralde Historikoa

1) *Espedienteak eta 2009 eta 2010. urteetan arreta emandako biztanleak*

7. taula. Bizkaia Lurralde Historikoan Foru Aldundiak zenbat espediente ireki dituen eta zenbat adingaberi eman dien arreta (2009an eta 2010ean)

	2009	2010
Irekitako espedienteen kopurua	852	926
Kasu bakoitzean ageri den adingabeen kopurua	852	926

(Bi adierazleetak datuek bat egiten dute, [Bizkaiko Foru Aldundiak](#) espediente bat irekitzen duelako atenditutako adingabe bakoitzeko).

2010eko abenduaren 31n 2.405 espediente zeuden irekita.

2) *Familia banantzeko babes neurriak 2010eko abenduaren 31n*

2010. urtean Bizkaiko Foru Aldundiak 283 tutoretza hartu ditu bere gain, eta 262 zainketa tutoretzarik gabe. Horietan denetan, familiarengandik banantzea gertatu zen. Hona hemen 2010eko abenduaren 31ko datuak:

8. taula. Adingabeen kopurua, familia banantzeko babes-neurrien arabera (Bizkaia, 2010)

	2010
Tutoretzapeko adingabeak	731
Zaindutako adingabeak	262
Egoitza harrerak	633
Familia harrerak	357

(Egoitza harreraren kopuru horrek bere baitan hartzen ditu bakarrik dauden adingabe atzerritarrek).

3) 2010. urteko adopzioak**Estatukoak**

Jasotako eskaera berriak	98
Eratutako adopzioak	23
2010-12-31n irekita zeuden espedienteak	216

Nazioartekoak

Jasotako eskaera berriak	106
Eratutako adopzioak	96
2010-12-31n ebatzi gabe zeuden eskaerak (2011ko urtarrilean baloratzeko)	6

4) Azken urtean egoitza zerbitzuen sarean sartutako aldaketak

Ez da funtsezko aldaketarik izan [Bizkaiko Foru Aldundiaren](#) egoitza zerbitzuen sarean. Daturik nabarmenen gisa, Sailak adierazi duenez, ez da segurtasun zerbitzurik hartu El Vivero zentroan, eta murriztu egin da El Garmo zentroan, bi pertsona izatetik bat izaera, biak lagundu gabeko adingabe atzerritarren berariazko arretaren sarekoak. Iaz genionez, behera egin du bi zentro horien plazen kopuruak (30etik 27ra eta 24tik 18ra, hurrenez hurren).

5) Zentroak dekretu honetan ezarritako baldintzetara egokitzea: [131/2008 Dekretua](#), [uztailaren 8koa](#), [gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautu dituena](#)

Iaz bezala, Sailak uste du zentroak Dekretuan ezarritako baldintzei egokitzeko modua nabarmen mugatu dela egungo inguruabarrengatik, dela aurrekontuen aldetik, dela egoitza plazen beharren aldetik.

6. Arreta jaso duten lagundu gabeko adingabe atzerritarrek**9. taula. Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010)**

	2009	2010
Hartu berriak	346	350
Urtean barrena hartutako adingabeak, guztira	702	686
Abenduaren 31n hartuta zeuden adingabeak	359	325
Abenduaren 31n emantzipazio-baliabideetan zeuden adingabeak	73 ¹	- ²

¹ 169 urtean zehar.

² Aldundiko Haur Zerbitzuak datuak bidaltzeko datan, Zerbitzu horrek ez ditu jaso sail egokiaren aldetik emantzipazio baliabideei buruzko datuak.

Sailak jakinarazi duenez, bakarrik iritsi diren adingabe atzerritarren tasa ia aurreko urtekoa bezalakoa da. Aurten ere ez da gatazka handirik izan harrerako adingabeen artean, ez langileen taldearekin, ez ingurunearekin. Kexen izapidetzeak ematen duen ikuspegia bat dator irudi horrekin, zeren eta aurten ez baita izapidetu adingabe atzerritarren egoitzako harreran eragina duten kexa espedienterik.

Sartze berrietan, gora egin du nabarmen adingabe magrebtarren portzentajeak, eta jaitsi egin da Afrika beltzekoen kopurua.

Sailak egiaztatu duenez, sartu diren hainbat lagunek nahikoa denbora eman dute beste autonomia erkidego batzuetan Zornotzako lehen harrerako zentrora iritsi baino lehen.

Lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio araupetzeari dagokionez, hauxe zen egoera 2010eko amaieran:

10. taula. Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzeritarren administrazio egoerari buruzko datuak (2009 eta 2010)

	2009	2010
Urtean zehar hartutako tutoretza-kopurua	187	200
Eskatutako bizileku baimenen kopurua	191	252 ¹
Lortutako bizileku baimenen kopurua	112	79
Bizileku baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera		
Heldu zirenetik	13,01 hilab.	17,12 hilab.
Eskatzen denetik	5,34 hilab.	6,9 hilab.
Eskatutako lan baimenen kopurua	17	22
lortutako lan baimenen kopurua	17	22
Lan baimena lortzeko batez besteko denbora, gutxi gorabehera	1 hilab.	3 hilab.

¹ Hasierako 186 egoitza baimen eta 66 berritzapen.

Premiazko kasuetan edo zentrotik ihes egiteko kasuetan eman beharreko tutoretzaren inguruan erabili den irizpideari dagokionez, Sailak jakinarazi duenez, halakoetan egoitzako harrerari uzten zaio, tutoretza eta administrazio espediente irekia eutsiz.

Adingabeek gizarteratze-prozesuan izan dituzten zailtasunik nabarmenenei buruzko galderak eginda, hauxe jakinarazi du Sailak:

- *“Dificultades en el procedimiento de realización de pruebas forenses para la determinación de la edad de los menores indocumentados: no se cumple el Protocolo acordado en su día y se producen retrasos significativos.*
- *Retrasos en la comunicación del resultado de las reseñas policiales, de manera que se pueda saber fehacientemente el itinerario que el menor ha realizado en el Estado. De esta forma se podría conocer con exactitud si ha estado o está bajo la protección de alguna otra entidad pública.*
- *Negativa de diversos ayuntamientos a tramitar el empadronamiento de los menores si estos no disponen del pasaporte individual en vigor. Esta denegación conlleva una serie de perjuicios a los menores: no se computa la antigüedad real en la fecha de inicio de su vecindad en la Comunidad Autónoma, se imposibilita la tramitación de la Tarjeta Individual Sanitaria ordinaria, etc.*
- *La autorización de residencia inicial no se concede en ningún caso con carácter retroactivo a la fecha de ingreso del menor en el Centro de Primera Acogida. Los expedientes para la concesión de la autorización residencial no inician su tramitación en Extranjería hasta pasados por lo menos 9 meses desde la fecha de ingreso.*

IV

- *Cráterios dispares en los diferentes Centros de Salud a la hora de asignar Médico referente a los menores que no disponen de Tarjeta Individual Sanitaria, produciéndose en muchas ocasiones negativas a dicha adjudicación.*
- *Plazos de matriculación en los PCPIs que suponen una dificultad para aquellos menores que requieren escolarización fuera de dichos plazos.*
- *Dudas sobre la adecuación de los motivos de denegación de las autorizaciones de residencia a menores tutelados.*
- *La tramitación de los pasaportes de los menores tutelados por las embajadas de los países de origen se está demorando varios meses alargando, si cabe aun más, el proceso de documentación."*

Ikustaldia Barakaldoko Argileku etxera

Arartekoaren pertsonalak Barakaldoko Argileku etxera eginiko ikustaldia 2010eko apirilaren 23an burutu zen. Ikustaldia aurretik hitzartu zen, eta bi helburu zituen: 1) erakunde honek eginiko behaketa tresna baliozkotzea babes zentroetarako ikustaldietarako; dagoeneko aipatu dugu tresna hori aurreko ataleko Arabako egoitzari eginiko ikustaldiaz hitz egitean, eta 2) zentrorra ikuskapena egitea.

Informazioa, funtsean, hauexek erabiliz bildu zen:

- Elkarrizketa sakona zentroko zuzendariari, aipaturiko lehen gida oinarri hartuta.
- Zentroan arreta jaso duten eta une honetan bertan dauden 2 neskei elkarrizketa.
- Elkarrizketa zentroan dagoen hezitzaile bati.
- Zentroko instalazioetarako ikustaldia.
- Zentroan arreta jasotzen duten adingabeen hainbat espediente pertsonal berrikustea.
- Irakasle taldearen aretoan dauden artxibo informatikoen eta dokumentazioaren zati bat berrikustea.
- Zentroaren dokumentazioa berrikustea, azterketarako emandakoa: hezkuntza proiektua, barne araudia, memoria, fitxak eta plantillak...

Ikustaldia izan zuen Argileku etxea biritza-bloke batean dago kokatuta, eta [Bizkaiko Foru Aldundiarenak](#) diren hiru solairu hartzen ditu, elkarrekin lotuta, Barakaldo udalerriko pisu-bloke batean.

Argileku etxea, Ahizpa Hirugarrendar Kaputxinoek kudeatua Bizkaiko Foru Aldundiarekiko hitzarmenaren bidez, 2005ean hasi zen martxan erlijioso berek kudeaturiko Bilboko Familia Sakratua Egoitza itxi ondoren; egun batean Arartekoaren pertsonalak egoitza hori bisitatu zuen. Bi programa garatzen ditu: Premiazko harrera programa (3 plaza) eta oinarrizko programa orokorra (10 plaza). Ikustaldian, 11 nerabek edo gaztek jaso zuten arreta, guztiak neskak, eta goizalde hartan bertan sartu zen bat zentroan premiaz. Gainera, beste adingabe batek etxean zuen plaza, baina gehienetan zentrotik kanpo egoten zen.

Arreta jaso zuten nerabeen adina 14 eta 18 urte bitartekoa da, baina gehienek 17 urte zituzten. Jakinarazi zigutenez, plazen kopuru handi bat hartuta zeuden 2009an, eta adingabe atzeritarrei zegozkien (%73,4), gehienbat afrikarrei. Premiazko plazei dagokienez, adingabe autoktonoek hartuta zegoen plazen ia %50.

Erakunde honek ondoen baloraturiko elementurik nabarmenenak honelaxe laburbildu daitezke: harrera giroa, banako arreta, gertutasuna eta familia giroa. Hauexek ondorioztatu ziren:

- Adingabeen gelak, gehienak beste neska batekin partekatuak, modu abegikorrean daude apainduta. Bakoitzak gunea bere gustura apaintzeko aukera du (argazkia, marrazkiak, pelutxeak...). Gela bakoitzean armairua, ikasteko gunea eta ordenagailu partekatua dituzte.
- Neskek, geletako ordenagailuez gain, interneteko konexioa duen ordenagailu bat daukate, etxeko toki komun batean kokatua.
- Nerabeek familiakoen eta lagunen bisitak jaso ditzakete etxean.
- Profesionalek gertuko harremanak dituzte harrerako neskekin. Hezitzaile taldea, hiru erlijiosok eta bi sekularrek osatua, trinkoa eta oso egonkorra da.
- Zentroaren antolaketa eta familia estiloa dira nabarmenenak, harrerako neskek gehien baloraturikoak.

Gainera, balorazio ona jasotzen duen elementu gisa, dekretu arau-emilean exijituriko dokumentazioaren zati handi bat dauka zentroak (zentroaren proiektua, fitxak eta erregistroak...).

Hobetu beharreko zenbait xehetasun txiki:

- Etxearen barne araubideak eskubideak, betebeharrak eta bizikidetzara arauak dakartzatza, baina ez dira aipatzen horiek bete ezean aplikatu beharreko hezkuntzako zuzenketa neurriak. Hala eta guztiz ere, elkarrizketaturiko adingabeek diote badakitela zein diren arauak eta aplikatu beharreko zigorak (funtsean diruzkoak dira).
- Adingabeek zentroko bizitzaren antolaketa ezagutzen dute (ordutegiak, zereginak...) eta lantzean behin antolatzen diren bileretan hartzen dute parte. Noizean

behin egiten diren bileretan, adingabe guztiek eta hezitzaileek hartzen dute parte, unean uneko beharren arabera, baina ez dute aldizkakotasun finkorik ezarrita.

4.1.2.3. Gipuzkoako Lurralde Historikoa

1) Espedienteak eta arreta jaso duten herritarrak 2009 eta 2010ean

Babes sisteman alta eman zaien famili unitateei dagokie espedienteen kopurua, eta hiru egoera mota ezarri dira ondorengo zutabeetan. Adingabe arau-hausleen kategoriaren barruan, Adingabeen Fiskaltzak eginiko espediente bidalketak sartzten dira adingabe arau-hausleentzat, 14 urtetik beherako gazteentzat (Adingabeen erantzukizun penala arautzen duen urtarrilaren [12ko 5/2000 Lege Organikoa](#) dela bide) baita, adin hori gaindituta ere, Fiskaltzak egokitzen jotzen duenean babes neurri egokiak hartze aldera.

11. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen eta espedienteen kopurua (2009 eta 2010)

	Espedienteak	Bertakoak	Arau-hausleak	BDAA
2009	415	172	124	119
2010	490	175	227	88

Espedientearen barruan dauden gazteei dagokienez:

12. taula. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen kopurua (2009 eta 2010)

	Adingabeak	Bertakoak	Arau-hausleak	BDAA
2009	496	253	124	119
2010	570	255	227	88

2) Familia banantzea babesteko neurriak

13. taula. Adingabeen kopurua familia banantzeko babes neurrien arabera (2009 eta 2010)

	Neurriak data honetan: 2010/01/01			Neurriak data honetan: 2010/12/31		
	Bertakoak	BDAA	Guztira	Bertakoak	BDAA	Guztira
Epailearen erabakia ¹	6	0	6	4	0	4
Behin-behineko tutoretza	10	5	15	10	4	14
Tutoretza	310	110	420	350	97	447
Zaintza	67	0	67	67	0	67
Behin-behineko zaintza	1	0	1	1	0	1
Norberaren eskaera ²	8	0	8	9	0	9
GUZTIRA	402	115	517	441	101	542

¹ Epaileak, prozedura judizial baten barruan, zaintza Foru Aldundiari esleitzea erabakitzen deneko egoeraz ari da.

² Hamazortzi urte beteta, babes egoitzako baliabideetan egoteko luzapena eska dezaketen gazteen taldeaz ari da.

Zaintzaren burutzapena jarraian adieraziko den moduan banatzen da:

	2009/12/31	2010/12/31
Egoitza harreran dauden adingabeak	298	290
Familia harreran dauden adingabeak	239	266

2010eko abenduaren 31n egoitzako harreran zeuden 290 adingabeetatik, 35 premiazko programan zeuden, 174 oinarrizko programan, 5 emantzipaziokoan eta 76 adingabe programa espezializatuetan.

Honelaxe daude banatuta famili harrerako 266 adingabeak:

- Lurralde historikoan bizilekua duten famili harrerak, [Gipuzkoako Foru Aldundiak](#) gauzaturikoak. 196 adingabe, 160 familia.
- Lurralde historikoan bizilekua duten famili harrerak, Gipuzkoako Foru Aldundiak gauzaturikoak. 16 adingabe, 13 familia.
- Lurralde historikoan bizilekua duten famili harrerak, beste autonomia erkidego batzuek gauzaturikoak: 15 adingabe, 13 familia.
- Gauzatu gabeko famili harrerak (behin-behineko egoerak izateagatik edo zaintza kudeatzeko aukerarik onena dela iritzi zaiolako): 23 adingabe, 18 familia.
- Gauzatzeko izapidetan dauden harrerak: 10 adingabe, 7 familia.

IV

Gainera, 84 adingabe izatezko zaintzan daude. Halakoetan, familiakoek hartzen dituzte, babesik gabeko egoera gerta ez dadin azkenean. Kasu horietan, ez dago jarraipenik ez laguntza teknikorik; soilik diru-laguntza.

3) 2010eko adopzioei buruzko datuak

	Estaturako adopzioa	Nazioarteko adopzioa
Aurkeztutako eskaerak	42	73
Eratutako adopzioak	8	57

4) Azken urtean egoitza zerbitzuen sarean sartutako aldaketak

Sareko hiru zentrotan izan dira aldaketa nagusiak:

- Amara zentroa. Zentroa [Hogares Nuevo Futuro](#) erakundeak kudeatuta dago kontratu bidez, eta arreta jaso duen taldea aldatu du. Gaur egun, 0 eta 12 urte bitarteko adingabeei ematen zaie arreta oinarritzko harrera programa orokorraren barruan; lehen, berriz, 13-17 urteko gazteentzat zen.
- Matsaria zentroa. Zentroa Eibarren dago, eta abenduan hasi zen martxan. Gipuzkoa Babesten SL erakundeak kudeatuta dago kontratu bidez, eta 0 eta 12 urte bitarteko adingabeak hartzeko edukiera du, oinarritzko harrera programa orokorraren barruan.
- Endoia zentroa. Deban dagoen zentro hori urtarrilean itxi zen berrikuntza obrak egiteko eta arreta programa aldatzeko. Azaroan ireki da berriz ere. Hori ere Gipuzkoa Babeste SL erakundeak kudeatuta dago, oraingoan hitzarmen bidez. 13 eta 18 urte bitarteko lagundu gabeko adingabe atzeritarrak hartzeko edukiera du, jarra arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatuaren barruan. Orientazio terapeutikoko baliabidetzat hartzen da, Elgetako Aixola zentroko bigarren fasea izateko.

5) Zentroak dekretu honetan ezarritako baldintzetara egokitzea: [131/2008 Dekretua](#), gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautu dituen

Urrats hauek egin dira:

- Zentroak kudeatzeko kontratuak aldatzea. Sortutako zentro berriak edo programan aldaketak izan dituztenak (Amara, Endoia eta Matsaria) egokituta daude baldintza berrietara.

- Guneak zentroetan egokitzea; ondorioz, berrikuntza eta hobekuntza lanak egin behar izan dira.
- Prozesuak eta prozedurak berrikustea. Zentro guztietako zuzendariekin eta ardura-dunekin hileroko egiten diren bileren barruan, dekretuari egokitzeko sei hileko egin-kizunak ezarri dira, non, besteak beste, honako hauek landu diren: formatu berriak dokumentazioaren batean (kasuko plana, gestio plana...) edo kexen sistema. Eta zenbait aldaketa sartu beharra dagoela gogoratu da (larrialdi irteeren seinaleak jar-tzea, adingabeek dekorazioan parte hartzea, erlijio sinboloak debekatzea gune komunetan...).

6) Arreta jaso duten lagundu gabeko adingabe atzerritarrak

14. taula. Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010)

	2009	2010
Hartu berriak	119 ¹	88 ²
Urtean barrena hartutako adingabeak, guztira	340	198
Abenduaren 31n hartuta zeuden adingabeak	116	105 ³
Abenduaren 31n emantzipazio-baliabideetan zeuden adingabeak	117	43

¹ 33 sartze barne.

² 12 sartze barne.

³ 100 egoitza harrean, 2 famili harreran eta 3 toki ezezagunean daude.

Nabarmen egin du behera zentroetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopuruak aurtun: 340 adingaberi eman zitzairen arreta 2009an eta 2010ean, berriz, 198ri.

Sailak adierazi duenez, ez da aldaketarik antzematen 2009an hasitako joeretan. Sareak erantzuna emateko duen ahalmena nahikoa izan da sarrera fluxuen bolumenari aurre egiteko; izan ere, aldaketa handirik gabe eutsi zaio bolumen horri urte osoan.

Azkenik, foru erakundeak hauxe adierazi duela nabarmendu nahi dugu: *“esan dezakegu gehienak nerabeak eta gazteak direla eta, kultura aldaketaren eta bizimoduaren ondorioz zailtasunak izan arren, ondo aprobeztatzen dituztela eskaintzen zaizkien baliabideak eta aukerak. Ez dugu antzeman portaera disruptiborik, ezta delituzko jarduerarik ere, eta toxikoen kontsumoa bertako gazteen ohiturekin bat datorrela esan daiteke.”*

Administrazio egoerari dagokionez, hauxe da foru erakundeak emandako informazioa:

15. taula. Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio egoerari buruzko datuak (2009 eta 2010)

	2009	2010
Urtean barrena onartutako tutoretzak:		
Behin-behineko tutoretzak	24	32
Behin betiko tutoretzak	63	47
Eskatu diren egoitza-baimenak	81	59 + 24 baimen-berritze
Lortu diren egoitza-baimenak	73	52
Egoitza-baimena lortzeko denbora, gutxi gorabehera	12 hilabete	
Sarreratik		11,5 hilabete
Eskatzen denetik		13,3 hilabete
Eskatu diren lan-baimenak	5	3
Lortu diren lan-baimenak	6	3
Lan-baimena lortzeko denbora, gutxi gorabehera	24 hilabete	36 hilabete (sarreratik eskaera egin arte) eta 38 baimena lortzeko

Zentroetako absentzietan edo ihesaldietan eman beharreko tutoretzan erabili den irizpideari dagokionez, Sailak jakinarazi duenez, Fiskaltzaren orientazioak jarraituz, ez zaio tutoretzari utzi, eta indarrean eusten zaio babes neurriari, desagerpena salatzearekin batera.

Gipuzkoako Lurralde Historikoan izan diren **kexen** ziorik ohikoena, 2010. urtean, adingabeen adina ezartzeko arazoekin dago lotuta; izan ere, adina ezartzeko dekretu baten ondorioz, adin nagusikoak zirela ebatzi zen. [Foru Aldundiak](#) tutoretzari utzi zionez gero, haiek zeuden egoitzak utzi behar izan zituzten.

Ararteko erakundeak eten egin zuen jarduera, zeren adingabeek bide judizialera jo baitzuten. Hala ere, ofiziozko jarduerari ekin genion eta [Estatuko Herriaren Defendatzaileari](#) igorri genion, zeren Ministerio Fiskalak adina ezartzeko emandako dekretuaren zioz utzi baitzitzaion tutoretzari. Esku artean genuen informazioaren arabera, [Estatuko Fiskaltza Nagusia](#) lanean ari zen adina ezartzeko prozedurari eta Fiskaltzak lagundu gabeko adingabe atzerritarren inguruan egiten dituen jardueri eragiten dieten jarraibideak emateko. Gipuzkoako Fiskaltzak jarduteko prozedura bat ezarria zuen Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta, ondorioz, adina berriz ezartzeko beste proba bat egingo zitzaizen zenbait adingaberi.

Horrenbestez, pasaporteen baliozkotasuna zalantzan jartzea izan da ezaugarri nagusia 2010ean. Hori dela-eta, fiskaltzetara jo da lurraldeetan zeuden adingabeen adina ezartzeko, iritsi berriak diren adingabeena nahiz gure Erkidegoan zeuden zenbait adingabere-na. Ondorioz, kontsultak egin eta ebazpenak eman dira, Arartekoak adierazitakoa adibidez.

Gainera, gai honen inguruko ondorioak bildu dira adingabeen eta atzerritarren fiskalen arteko topaketetan.

[Azaroaren 10eko 1/2009 Kontsulta](#), lagundu gabeko adingabe atzerritarren adina ezartzeko espedienteari buruzko zenbait ezaugarriren gainekoa, Gipuzkoako Fiskaltza Probintzialak eginiko kontsultan du jatorria. Bertan aztertzen da norainokoa den Ministerio Fiskaleko ki-deek adina ezartzeko proben inguruko erabakiak hartzeko ahalmena, adingabearen baimenik izan gabe ere, eta proba egiteari uko egiten jarraitzen badu, hauexen gainekoak: hertsapen fisikoa erabiltzeko aukera, hertsapen fisikoa erabiltzea erabakitzeko irizpide determinanteak adingabeak aurretik baimena emanda; adingabeak proba egiteko baimenik eman ezean fiskalek jarduteko dituzten moduak edo adingabea izateari buruzko Dekretua aldatzeko aukera bat-batean gertaturiko inguruabarrak direla medio, esate baterako, atzerriko agiri publikoak aurkezten direnean eta Dekretuak beste lurralde organo batean egun batean finkaturiko adina ez bestelako adina ondorioztatzen denean.

Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitzetan hartutako zenbait adingaberi adina ezartzeko proba egin zitzaizen dokumenturik ez zutelako, eta ondoren, beharrezko gestioak egin dituzte pasaporte emateko, eta horixe da honako espediente honen xedea. Aldundiak hala erabakita, beste proba bat egin die Ministerio Fiskalak adina ezartzeko, hain zuzen ere dokumentazioa aztertzean datzana (jaiotze-agiria edo -akta, famili liburua edo Marokoko bizileku-ziurtagiria, argazkia dakarrena).

Espediente hartan Estatuko arartekoari jakinarazi genionez, erakunde honen iritziz, Ministerio Fiskalak adingabe atzerritarren adina ezartzeko eskumenak irizpide argiak behar ditu, adingabeen eskubideak errespetatuz betiere. Ministerio Fiskalaren ordenamendu juridikoan adina ezartzeari dagokionez ezarritako ahalmenek premiazko egoera bati erantzuten diote, ez baitugu adingabeak adierazten duen adinaren berri. Osterantzean, haren eginkizuna argitu beharko litzateke, zeren eta ez baitago xedaturik [Atzerritarren eskubideen eta askatasunen eta horien gizareratzearen Lege Organikoko](#) artikuluan. Agintaritzaren eskudunak emandako pasaporte eta pasaporteak dakarren adina ere baliozkotzat ez hartzea kezkarri irizten geniola ere jakinarazi genion, noiz-eta pertsona dokumentatzeko prozesuan ezinbesteko agiria denean. Pasaporte hori aurkeztuko da egoitza baimenaren eskabidearekin batera kasuan kasuko Gobernuaren Ordezkariordeztan. Ez du zentzurik tutoretzari uzteak edo tutoretza bere gain ez hartzeak adin nagusikoa delakoan, pasaporte baliozkotzat ez hartzeak eta ondoren agiri bera aurkeztu behar izateak bizileku baimenaren eskubideetan.

Bestalde, gainera, adingabeei lortzen zaila den dokumentazio bat aurkezteko eskatzeak zentzurik ez duela ere adierazi genuen, behar bezala itzulia eta legeztatua, noiz-eta pasaporte baliozkotzat hartu ez denean; izan ere, pasaporte emateko dokumentu berak behar dira, besteak beste (marokarren kasuan, behinik behin: jaiotze-agiria). Izapidetzen ari da espedientea.

Adingabeek planteatu zituzten prozedura judizialei dagokienez, garrantzikoa da nabarmen-tzea ezen auzitegiek kautelazko neurria hartu dutela eta, beraz, baliorik gabe gelditzen dela tutoretzari uztea, eta Foru Aldundiari agintzen zaio adingabeen tutoretza bere gain har

IV

dezala atzeraeraginezko ondorioekin harik eta adingabeak adin nagusikoak diren egunera arte (besteak beste, Donostiako 1. Instanztziako 3. Epaitegiaren epaia, 442/2010 neurrien kontrako prozedura). Epai horietan adierazten zenez: “pasaportea baliozkoa da nazioarte mailan, eta titularrari dagokionez dokumentatzen duen gertaera, ekintza edo egoeraren gaineko froga-balio oso-osokoa da, kontrakoa frogatu ezean eta legeztatu beharrik izan gabe...” Adingabe horiek egoitza harrerako zentroetan sartu dira.

Garrantzizkoa da nabarmentzea adingabeek doako justiziaren onura baliatu zutela, eta laster izendatu zitzaizkien ofiziozko abokatuak.

2009. urtean Debako Oilur zentrorra bideratu ziren adingabeen jarraipena egiteari ere eutsi zaio, eta jarraipena gauzatu egin da adingabeak bideratu ziren egoitzetan zuten egoeraren berri eta Foru Aldundiak bizileku baimena eskatua zuenaren berri izanda.

Adingabeak, oro har, normaltasunez hartu dira, eta bizileku baimenak aurkeztu dira. Hala ere, zenbait kasutan eta hainbat inguruabar tarteko, atzerapenak gertatu dira, gehienbat adingabeek ez zutelako pasaportetik. Hala gertatu zen Deban izan ziren nesketako batekin. Pasaportea galdu zuenez Debara bideratzen ari ziren bitartean, zailtasunak izan zituen bizileku baimena eskuratzeko adingabea izan den artean. Hori dela-eta, bizileku baimena eskatu du 18 urte bete dituenean. Baldintzak betetzeko zailtasunak izaten ari den beste adingabe baten kasua ere izan da; izan ere, atzeratzen ari da bizileku baimena emateko prozesua. Beste kasu batean gure jarduera bukatu genuen, adingabea famili harreran baitzegoen eta Foru Aldundiak onartu egin baitzuen.

Gertaera positibo gisa, Gobernuak Gipuzkoan duen Ordezkariordeztza bizileku baimena ematen ari dela aipatu behar da, eta adingabea adingabeak babesteko zerbitzuen esku jartzen diren unetik aurrera ditu ondorioak baimen horrek. Gai honetaz ari garela, Etorkinei dagokien [urteko txostenaren](#) zati orokorreko III.8. kapitulua aipatu beharra dago, non adingabe atzerritarren administrazio egoerari eragiten dioten jarduerak jasotzen diren.

Azkenik, buruko osasun arazoak dituen adingabe atzerritar baten gaineko kexa aipatu behar dugu; Ibaiondo barnetegian neurri judiziala betetzen ari zen eta 18 urte egin zituen orduan. Kexa horrek agerian uzten ditu arreta sistemen eta sailen arteko koordinazioan dauden zailtasunak.

Mendekotasunari buruzko balorazioa, ezintasunaren kalifikazioa eta egoitzetara bideratzea eskatu zituen zentroak 2009ko azaroan. Baina ezintasunaren kalifikazioa ez zen egin bilakaera klinikoaren menpe zegoelakoan eta, beraz, ez zitzaion egoitza baliabiderik esleitu zentrotik irtendakoan. Horixe izan zen arazoa. Halaber, egiteke dago bizileku baimenaren berriztapena, ez zitziolako eman erantzunik arretaren jarraipenari. Ezintasunaren kalifikazioaren eskabidea berriz ere aurkeztu zuenean, hura izapidetzea ezinezkoa zela esan zioten, iraungita baitzegoen bizileku baimena.

Egoera paradoxiko horrek erakusten duenez, garrantzizkoa da sailen arteko lankidetzak egokia, pertsonen osotasunean arreta eman ahal izateko. Kasu honetan, bizileku baimena

berritzeko eskatu zuenez gero, [Gipuzkoako Foru Aldundiari](#) eman genion horren berri. Eta, Atzerritarren eskubideen eta askatasunen eta horien gizarteratzearen Lege Organikoa garatu duen arautegiko 37. artikulua aplikatuz ([abenduaren 30eko 2393/2004 EDren](#) bidez onetsia), berritzapen eskabidea epearen barruan aurkezteak luzatu egiten du aurreko baimenaren baliozkotasuna harik eta prozedura ebatzi arte.

Foru Aldundiak hasieran balorazioa ez egiteko zioen gaineko erantzuna eman zuen, baina, ondoren, balorazioa egin ahal izan zen aurkezturiko txosten berriekin. Aldundiaren aburuz, buruko osasuneko gizarte-osasuneko baliabide bat zen pertsona horien beharrentzat eta ez gizarte zerbitzuen sareko ezintasunen baliabide bat. Hori dela-eta, batzorde soziosanitariora eraman zuten gaia, baliabiderik egokienaren esleipena aztertzeko. Batzordeak erakunde arteko jarduera-plan bat sortu du, mailaz mailakoa. Lehen fasea, egonaldi psikiatriko ertaineko baliabide bateko egonaldia izan da.

Ikustaldiak Aiako Iturriotz-Azpi zentrorra

Arestian azaldutako bi lurralde historikoetan moduan, Ararteko erakundeko pertsonalak ikustaldia egin zuen adingabeen arreta zentrorra, orduan Aiako Iturriotz-Azpi egoitzara, 2010eko maiatzaren 27an aurretik abisurik eman gabe.

Informazioa, funtsean, hauexek erabiliz bildu zen:

- Sakoneko elkarrizketa zentroko zuzendariei.
- Zentroan arreta jaso duten eta une honetan bertan dauden 3 mutuli elkarrizketa.
- Zentroko instalazioetarako ikustaldia.
- Zentroan arreta jasotzen duten adingabeen hainbat espediente pertsonal berrikustea.
- Irakasle taldearen aretoan dauden artxibo informatikoen eta dokumentazioaren zati bat berrikustea.
- Zentroaren dokumentazioa berrikustea, azterketarako emandakoa: Iturriotz-Azpi zentroaren hezkuntza proiektua, [Dianova Elkartearen](#) adingabeen egoitzetako barne araubidea. Iturriotz-Azpi Oroitidazkia 2009.

Ikustaldia egin deneko Iturriotz-Azpi egoitza [Gipuzkoako Foru Aldundiaren](#) antzinako mendi aterpetxe batean dago kokaturik, baso batean eta biztanle-guneetatik urruti. Aia udalerriko biztanle-gunetik 10-12 km-ra dago egoitza, eta nork bere ibilgailua behar du hara iristeko.

Dianova elkarteak kudeatzen du zentroa Gipuzkoako Foru Aldundiarekin izenpeturiko hitzarmenaren bidez. 2008an hasi zen martxan, eta jokabide arazoak dituzten nerabeen arretan espezializaturiko programa garatzen du, betiere kontsumo toxikoen arazoak dituzten lagundu gabeko adingabe atzerritarren arreta ardatz hartuta. Lehen faseko tratamendu zentroa da, eta bertatik bideratzen dira adingabeak beste zentro terapeutiko batzuetara, Dianovak berak kudeaturiko Mendixka (Errenteria) izenekora esaterako. Hezkuntza eta aisialdi jarduera eta jarduera terapeutiko guztiak zentroan egiten dira, edo kanpoan eginez gero,

hezitzaileek uneoro ikuskatuta burutzen dira. Ikustaldiaren egunean hamaika nerabe edo gazteri ematen zitzaaien arreta zentroan, guztiak mutilak, eta lau zeuden zentroan bertan.

Zentroan arreta jasotzen duten nerabe edo gazte gehienak marokoarrak dira, eta zentro mistoa bada ere, gehienak mutilak dira. Sei hilekoa da egonaldia batez beste; gutxienez hiru hilabetez eta gehienez zazpi izaten dira bertan.

Erakunde honek gehien baloraturiko ezaugarriak nabarmenenei dagokienez, hauexek azpimarratu behar dira:

- Neska-mutilen eta familien arteko harremanak sustatzen dira, gehienbat telefono bidez. Astean 15 minutuko deia egin dezakete.
- Gazteek protagonismo handia dute zentroko eguneroko jardueren antolaketan. Adingabe bakoitza, hezitzaileek ikuskaturik, eginkizun baten antolaketaz arduratzen da (sukaldea, garbiketa, oilo-tokia...) eta besteen artean banatzen du. Besteak beste, menuak egiten, erosketak egiten eta janaria prestatzen hartzen dute parte, sukaldeko laguntzaileak ikuskatuta.
- Adingabeek euren gela eta guztien zenbait toki euren erara jar dezakete, jantokia adibidez; harrerako mutilen argazkiekin eta objektuekin apainduta daude. Oro har, egituren eta altzarien garbitasun eta mantentze maila ona ikusten da.
- Zentroko pertsonala laguntzeko eta gainbegiratzeko tresnak daude. Dianova elkarteak psikologo bat dauka kontraturik bi eginkizunetarako: zentroaren zuzendaritza laguntzea eta hezitzaileak gainbegiratzea (taldearen zailtasunak eta kasuko ikuskapenak)

Hona hemen elementu kezagarri nagusiak:

- Badirudi adingabeek bertan sartu aurretik ez dutela Haurren Lurralde Zerbitzuaren informazioa jasotzen, zentroaren funtzionamenduari eta zentroaren ezaugarriei buruzkoa. Horrek zaildu egiten ditu hezkuntza jardunak, adingabeek ez baitakite zentroa lehen faseko zentro terapeutikoa dela. Baliabidearen ezaugarriei eta, zehazkiago, lehen faseko izaera trinko horri buruzko aurretiazko informaziorik eza da, hain zuzen, elkarrizketaturiko gazteen kexetako bat.
- Komunek ez dute kisketarik (kanpotik desblokeatzeko gailuren bat eduki beharko luke); nahiz eta intimitatea errazten ez duen, dirudenez ez du bizikidetzaz arazorik sortzen.
- Geletan ez dago mahairik eskolako lanak egiteko (horietako bat izan ezik; esku-lanak egiteko erabiltzen da). Aulkirik, apalategirik edo goiburuko lanpararik ere ez daukate.
- Janarien biltegia sukaldean dago, eta giltzaz itxita egoten da. Zikin eta desordenatuta dago; izan ere, garbiketako zenbait produktu janariaren ondoan gordetzen da. Sukaldea ere ez zegoen batera txukun eta ordenatuta, baina komeni da aipatzea erabiltzen ari zirela eta adingabeek eurek parte hartuta.
- Gela gehienbat gaztelania eskoletarako erabiltzen da. Mahai luze bat, aulkiak eta arbela dauzka. Bertako apalategian deigarria da irakurketarako materialik ez dagoela ikustea. Zentroak ez du ordenagailurik eta interneteko konexiorik adingabeen eskura, eta horixe da elkarrizketaturiko mutilen eskarietako bat.

Programa terapeutikoa lehen faserako sortu da eta, beraz, iraupen laburrekoa da. Hori dela-eta, programaren arduradunek beharrezkotzat jotzen dute prestakuntza zentroan bertan ematea. Zentroak, horretarako, gaztelania eskoletarako irakasle bat dauka.

Garrantzizkotzat jotzen dugu prestakuntza eskaintza handitzea eta gelari baliabide gehiago ematea (liburuak, komikiak, ordenagailua eta interneteko konexioa, etab.), are gehiago adingabeen egonaldiaren batez besteko denbora sei hilabetekoa izanik. Horixe da zentroko gazteek balorazio txarrena egiten duten elementua; izan ere, eskari nagusia zentrotik kanpoko tailerren batera joatea da lanbide bat ikasteko (HLPI) edo zentroan sartzean etendako prestakuntzarekin jarraitzeko.

Dekretu arau-emailean exijituriko dokumentazioaren zati handi bat dauka zentroak, baina ez dago garatuta edo ez da neurri berean erabiltzen; are gehiago, zenbait kasutan erregistro informatikoa dago, baina ez da erabiltzen. Ikustaldian ikusi ahal izan genuenez, adingabeen espediente pertsonalak giltzaz itxita daude eta informazio garrantzitsu guztia dakarte (judiziala, dokumentazioa, osasuna...), osoa eta ordenatua. Halaber, egunkarian bildutako informazioa eta gorabeheren artxibo informatikoa erkatu ziren (egunero jazotako gorabeherak xehetasunez erregistratu behar ziren), eta kointzidentziarik eza gertatu da kasuren batean.

4.1.2.4. Hiru Lurralde Historikoetako zenbait ezaugarri komun

Lagundu gabeko adingabe atzerritarrei eragiten dieten kexa-espediente izapidetuetan, ondoren sakonago aztertuko ditugun zenbait arazo planteatu dira.

a) [Atzerritarren eskubideak eta askatasunak eta horien gizarteratzea araupetzen dituen Lege Organikoaren 35. artikuluan](#) xedaturikoarekin bat etorritik, soilik adingabeak identifikatuta ez daudenean egin behar dira adina ezartzeko proba medikoak. Baina proba horiek sistematikoki egiten zaizkie adingabeei, dokumentazioa izan zein ez; horixe da arazoa.

Arartekoak hainbat alditan adierazi duenez, ezin egin dakieke proba lehen begiratuan eta ohiko ahalmenak dituen edozein pertsonarentzat argi eta garbi hamazortzi urtetik beherakoak diren adingabeei. Estatuko fiskal nagusiak ere halaxe adierazi du Espainian dauden atzerritarren araubidearen gaineko zenbait ezaugarri buruzko [2006ko uztailaren 27ko 2/2006 Zirkularrean](#)

" Si el menor extranjero indocumentado es por sus características físicas indubitadamente menor de edad, o concurriendo el presupuesto del art. 35, lo procedente será ponerlo a disposición de la Entidad Pública de Protección de Menores, sin la realización urgente de pruebas previstas en el precepto de referencia y sin perjuicio de las ulteriores gestiones para determinar la concreta edad del menor, que habrán de tener trascendentes efectos jurídicos, gestiones a practicar por su tutor legal."

Adina ezartzeko probak egin behar dira pertsona adingabea edo adin nagusikoa dela jakiteko beste modurik ez dagoenean eta ez adingabeak dokumentazioa duenean, hots, adingabea dela ezarrita dagoen dokumentazioa.

Baldin eta pasaporteak ez dela pentsatzeko arrazoirik edo datuak direla-eta faltsutasun zantzurik ez badago, pertsona identifikatzeko balio behar du pasaporteak. Herrialde batek ematen duen eta nazioarte mailan balioa duen dokumentua da pasaporteak, zenbait lege arauen, nazioarteko akordio eta segurtasun neurriren arabera (hala nola [Abiazio Zibilaren Erakundearenak](#); izan ere, Nazio Batuen erakunde espezializatua da, pasaporteak egiteko eta erabiltzeko gomendioak ematen dituen Chicagoko Konbentzioak sortua).

Pasaporteak agiri ofiziala da pertsonak eta haien naziotasuna identifikatzeko. Atzerritarren administrazio espedienteetan ematen den agiria da, eta espediente horiek atzerritartasun bulegoetan izapidetzen dira atzerritarrek Espainian duten bizilekuari dagokionez (aurreko Legearen 4. art.).

Erroldan inskribatzea ahalbidetzen duen agiria ere bada eta, ondorioz, osasun arreta eta EAEko Gizarte Zerbitzuetako Sistemaren zerbitzuak eta prestazioak eskuratzeko ere bai. Auzitegiek adierazi dutenez, kontrako frogaren bidez desegin behar da pasaportearen egiazkotasun-presuntzioa: Santanderreko 1. Instantziako Epaitegiaren Epaia, 2004ko maiatzaren 6koa; Madrilgo Justizia Auzitegi Gorenaren Administrazioarekiko Auzietarako Salaren 7. Sekzioaren 424/2006 Epaia; Gipuzkoako Entzutegi Probintzialaren Epaia, 2007ko abenduaren 18koa; Donostiako 1. Instantziako 3. Epaitegiaren Autoa, 2010eko otsailaren 25ekoa; borondatezko jurisdikzioaren 156/2010 prozedura; Donostiako Lehen Instantziako 3. Epaitegiaren Epaia, 2010eko azaroaren 34koa; neurrien kontraktasuna 442/2010, besteak beste.

Faltsutasun zantzurik dagoenean edo akatsak edo okerrak daudenean edo iruzurrezkoa denaren zantzuak daudenean, beharrezko egiaztapenak egin behar dira.

Gai hau dela-eta, garrantzizkoa da aipatzea [Egoera Zibilaren Nazioarteko Batzordea \(CIEC\)](#); horren barruan dago Espainia ere. Erakunde horren xedea da egoera zibilaren arloko nazioarteko lankidetzak sustatzea eta egoera zibilaren zerbitzu nazionalen funtzionamendua hobetzea. Erakunde horrek alde anitzeko hitzarmenak onetsi ditu eta gomendioak egiten dizkie estatuei; nahitaez bete beharreko tresna juridikoak dira. Gomendio horien artean, egoera zibilaren arloko iruzur dokumentalaren kontrako borrokari buruzko 9. gomendia eta Estrasburgoko Batzar Nagusiak 2005eko martxoaren 17an hartutako azalpen-memoria aipatuko ditugu. Gomendio horrek, oraingoz, Erregistroen eta Notarioen Zuzendaritza Nagusiaren [2006ko martxoaren 20ko jarraibidean](#) izan du isla. Egoera zibilaren arloko iruzur dokumentalaren prebentzioari buruzko jarraibidea aplikatu behar dute Espainiako Erregistro zibilek, udalekoek eta kontsularrek eta erregistro nagusiak.

Gomendio horretan, deia egiten zaie estatuei dokumentu batek eta bertan jasotako datuak benetakoak izateko dokumentuak bete behar dituen baldintzak aintzat har

ditzaten, eta agiri batek akatsak edo okerrak edukitzearen edo iruzurrekoa izatearen gaineko hainbat zantzu aipatzen ditu, dokumentua egin edo idatzi zeneko baldintzekin lotuta, baita kanpoko dokumentu batek akatsak edo okerrak edukitzearen edo iruzurrezkoa izatearen gaineko izaera agerian utz dezaketen zantzuen gainekoak ere, kanpoko elementuei lotuak.

Gomendioan aurreikusita dagoenez, zantzuak direla-eta zalantzan jar badaiteke aurkezturiko dokumentuan agertzen diren datuen zehaztasuna, edo dokumentua bera, arlo horretako agintari eskudunak beharrezko egiaztapen guztiak egingo ditu, bereziki interesa duenarekin. Beharrezkoa denean, ahal den neurrian eta kasuan kasuko tokiko agintariekin bat etorriz, akta hori jatorrizko estatuko erregistroan badagoela eta aurkezturiko dokumentuarekin bat datorrela egiaztatuko da. Hala, iruzurrezkoa dela ondorioztatzen bada, ez zaio ondoriozik emango, eta akatsak edo okerrak dituela ondorioztatuz gero, agintari eskudunak erabakiko du ondoriozik eman dakioken dokumentuari akatsa edo okerra izanik ere.

Nolanahi ere, bide administratiboan edota judizialean errekurtsua aurkeztu eta froga osagarriak ekartzeko eskubidea duela jakinaraziko zaio.

b) [Ministerio Fiskalak](#) erabaki behar du zein adin duen, eta horretarako, osasun erakundeek lagunduko dute; lehentasunez, beharrezko probak egingo dituzte.

Auzitegi medikuek, euren eginkizunen artean dute, Fiskaltzari laguntasuna eta laguntza teknikoa ematea haren funtzioak betetzean.

Probetan, azterketa erradiologikoa egiten da, eta gorputz-ebakuntza arintzat hartzen denez gero, behar-beharrezkoa denean baino ez da egingo.

Teknologia aurreratuaren bidez egingo dira probak, eta aditu independenteek begin behar dute balorazioa, adibidez: [Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeek](#).

Proba erradiologikoak egiteko erabakia hartu baino lehen, adingabeen erregistroan kontsulta egitea ere garrantzizkoa da, adingabeak identifikatzeko daturik dagoen ikusteko. Nahikoa funtsezko arrazoi daudenean baizik ez dira errepikatu behar proba erradiologikoak.

Bestalde, bere eskubideen eta atxilotzeko zioen berri eman behar zaio adingabeari, eta probak egitearen alde edo kontra agertu behar du nahitaez. Adingabeen adostasuna behar da probak egiteko, baita haien duintasuna errespetatu ere. Baime-nik ematen ez badu ([1/09 kontsulta](#)), profesional trebatuek egin beharreko proben helburuaren, osasunarentzat dakarren kaltearen eta adingabea edo adin nagusikoa dela erabakitzeak edo probak egiteari uko egiteak dakartzan ondorioen berri eman behar die Ministerio Fiskalak, zeren: *“Se tratará de un indicio poderoso, pero no determinante, pues la orientación fundamental ha de ser evitar tratar indebidamente como mayor de edad a un verdadero menor, contumaz o temeroso.”*

Adingabeari entzunaldia ematea, hots, jakinarazitako adostasuna, premia egin daiteke Poliziarenean (Adingabeen eta atzerrien arloko fiskal adituen topaketaren ondorioak, Madril, 2010eko apirilak 20). Foru Aldundiak ere egin dezake adina ezartzearen inguruko proba gehigarriak egitekotan badira.

Auzitegiko medikuek lagundu gabeko adingabe atzerritarren adina ezartzeari buruz Madrilen Estatuko Herriaren Defendatzaileak antolatutako 2010eko urriaren 7ko lanaldiaren ondorioetan (Jardun onen gaineko adostasun dokumentua, Espainiako Auzitegiko Medikuntzako Erakundearen artekoa), probak egiteari buruzko gomendioak egin ziren, hala nola medikuaren txostenean akatsak jaso behar dituela, probak berariazko prestakuntza duten profesionalak egin behar dituztela eta emandako txostenen gainean kalitatea kontrolatzeko sistemaren bat bete behar dela, Auzitegiko Medikuntzako Erakundeko mediku adituek egin ditzatela balorazioak, nahikoa denbora izatea probok egiteko, azterketan pertsonaren duintasuna eta segurtasuna zaindu behar direla eta ustezko adingabeak ulertzeko modukoa eta beren beregi baimendua izan behar dela. Gainera, erabilitako metodoak errore-marjina handiak dituela nabarmendu dute. Eta, besteak beste, pertsona berriz ere ebaluatzea eta aztertzea saihestea garrantzizkoa dela irizten diote guztiek.

Adingabeen eta atzerritarren fiskalek ere gomendioak eman dituzte, non probak egiteko modua ezarri den. Adin-tarteko adinik txikiena hartu behar da kontuan adina ezartzerakoan. Ez da zuzena "gutxi gorabehera x urte" edo "x urte inguru" esatea, zeren eta gutxi gorabehera 18 urte direnean 17 ere izan baitaitezke. Jardun ona da errore-edo zalantza-marjina izatea, bermea baita eremu geografiko ezberdineko edo etnia ezberdineko adingabeek dituzten hezur garapen ezberdinen aurrean. Baldin eta txostenetan ez bada sartzen adin-tarte hori edo nahikotzat hartzen ez badira edozein arrazoi dela tarteko, tartea handitu edo zalantzak argitzeko eskatu behar dute. Herri Erakundeak adin-proba gehigarriak egitea erabakitzen badu, haien eskubideen berri eman behar die, eta 16 urtetik beherakoa bada eta nahikoa pertsona heldua ez bada, defentsari judiziala izendatu behar zaio. Ministerio Fiskalari jakinarazi behar zaizkio probak.

Berme horiez ari ginen 4.1.1. atalean eta protokoloari buruz hauxe genionean: 2010ean aurrerapen nabarmena gertatu zela probak egitea erraztuko luketen irizpideak eta prozedura ezartzea.

c) Bizileku baimenaren eskabidea berandu aurkeztea. Atzerapen horiek adingabearen goren interesaren kontrakoak dira. Bizileku baimenak adingabeak gizartratzea eta laneratzea errazten du. Adingabeen eta atzerritarren fiskal adituen topaketaren ondorioetan –arestian aipatuak–, jarduteko ildoak eman ziren hala nola tutoretza hiru hilabeteko epearen barruan ezarri beharko litzatekeela eta adingabea aberriratu daitekeen ala ez erabakitzeko gestioak bizkorrago egin beharko liratekeela. Hortaz, hilabete pasa ondoren, bizileku baimena emateko beharreko izapideak egin beharko lirateke. Garrantzizkoa da gogoraraztea Kode Zibilaren 22.2. artikuluan ezarritakoa: babes erakundeak adingabeen nazionalitate espainiarra eska dezakeela baldin eta

babes erakunde baten tutoretzapean bi urtez egon izana eta urtebetez bizitzeko baimena dagoela egiaztatzen bada.

d) Adingabeen egoitzako harrera zentro batetik alde egitea ez da tutoretzari uzteko zioa, ez baita Kode Zibilean edo Haurren eta [Nerabeen Arreta eta Babeserako Euskal Legean](#) ezarritako kausa. Adingabeen fiskal adituek 2009ko azaroaren 5 eta 6an Leonen eginiko jardunaldiko ondorioetan ere halaxe zioten. *“Es esencial que se erradique la práctica en ocasiones detectadas consistente en que cuando un menor extranjero se fuga del centro de protección, la Entidad Pública dicta una resolución declarando extinguida la tutela. La extinción de la tutela solo es posible por las causas establecidas en el Código Civil, por lo que la Comunidad que en su día asumió la tutela debe seguir desempeñándola, aunque el menor sea localizado en una Comunidad distinta, sin perjuicio de que pueda ejercerse la guarda por delegación en una Entidad Pública distinta en virtud de acuerdos entre Comunidades.”*

Bestalde, eta amaitzeko, hiru foru aldundiekin hasitako ofiziozko espedientearen berri ematen genuen hemen, hain zuzen ere jasotako zenbait kexa zirela medio banaturiko gurasoak dituzten familien eta bakoitzaren ardurapeko haurren egoera dela-eta, noiz-eta aldundietako haurren zerbitzuek esku hartzen dutenean babesik eza antzeman delako edo zaintza duen gurasoak laguntza eskatu duelako. Zehazkiago, erakunde honek haurren zaintza ez duen gurasoak gizarte-familian jarduteko programan parte hartzea eta hori aintzat hartzea ahalbidetzeko jardura-protokolorik edo jarraibide jakinik dagoen galdetzen dio bere buruari, baita guraso eta seme-alaben arteko neurri judizialak daudenean foru zerbitzuaren eta epaitegiaren arteko koordinaziorik dagoen ere. Foru aldundiek adierazitakoaren arabera, modu ezberdinean baina hirurek jakinarazten dizkiete bi gurasoei eginiko jardura eta balorazio guzti-guztiak, eta laneko plan bat ezartzen du seme-alaben inguruan guraso bakoitzarengan antzemandako zailtasunen arabera. Adingabeak bere zaintza ez duen gurasoekiko babesik eza duela ondorioztatzen bada, zaintza bide judizialean eskatzeko bideratuko da guraso hori. Bestalde, Foruko Haurren Zerbitzuak adingabearen inguruan hartutako edozein babes neurri edo inguruabarren berri emango dio gurasoen eta seme-alaben arteko neurri judizialak hartu dituen epaitegiari. Hala ere, espedientea irekita dago oraindik.

4.2. Adingabe lege-hausleak

Arartekoak 1998an [Adin txikiko lege-hausleak](#) txosten berezia argitaratu ondoren, erakunde honek jarraipena egin du zentroetara aldiro joanda, urtero datuak eskatuta eta sektoreko arduradunekin, taldeekin eta profesionalekin bilerak eginda. Horien guztien berri aurreko urteetako txostenetan eman da.

2010ean egindako jarraipenei dagokienez, [Justizia eta Herri Administrazio Sailari](#) ofizioz eskatutako datuak daude. Ondorengo orrietan datoz emaitzak.

1. Azken urteetan burututako neurrien eboluzioa

Adingabe lege-hausleei buruzko Arartekoaren txostenarekin bultzatu nahi zen oinarrizko jarduera lerroetako bat zen, [urtarrilaren 12ko, 5/2000 Lege Organikoaren](#) ahalmen guztiak garatzea aurreikusitako neurri guztiei zegokienean eta, bereziki, askatasuna hainbeste mugatzen ez zuten haiei zegokienean. Neurriak egiaz ezartzeko funtsezko faktoreetako bat eskura dagoen bitarteko eta baliabide kopurua izaten da, eta horiek burutzea euskal Administrazioaren eskumena da.

Burututako neurrien eboluzioaren datu globalek horiek zenbat ezarri diren gehiago edo gutxiago jakiteko aukera ematen digute, baita joera orokorren berri izateko ere. Datu global hauek taula honetan daude:

16. taula. EAEEn buruturiko neurrien kopurua (2009 eta 2010)

Neurri judizialak	2009	2010
Erkidegoaren mesederako prestazioak	314	347
Zaintzapeko askatasuna – kautelazkoa	30	39
Zaintzapeko askatasuna – irmoa	310	327
Tratamendu anbulatorioa	22	10
Gizarte-heziketako ekintzak	186	146
Barneratzea – kautelazkoa	67	59
Barneratzea – irmoa	116	209
Asteburuetako egonaldia	152	128
Heziketa taldearekin elkarbizitza	5	11
Heziketa taldearekin elkarbizitza – kautelazkoa	3	4
Eguneko zentrora joan	34	26
GUZTIRA	1.239	1.306
Bariazioa	+196	+67
% hazkundea	%18,8	%5,4
Behin betikoak	1.139	1.204
<i>Kautelazkoak</i>	<i>100</i>	<i>102</i>

(Iturria: Eusko Jaurlaritzako [Justizia eta Herri Administrazio Saila](#))

2005. urteaz gero, nolabaiteko egonkortasuna ikusten zen neurri judizialen hazkundean, lau urtez oso igoera handien ondotik (2000tik 2004ra). 2008. urtean, joera hori eten egin zen %9,1eko jaitsierarekin aurreko urtearekin alderatuta, eta goranzko bideari eutsi zion 2009an (ia %19) eta 2010ean (%5,4).

Hauexek dira kautelazko neurriek izan duten bilakaeraren ezaugarriak:

- Kautelazko askatasun zainduen kopuruaren igoera: 30 izan ziren 2009an eta 2010ean, berriz, 39.
- Kautelazko barneratzeen kopuruak behera egin du: 67 izan ziren 2009an eta 2010ean 59. Nabarmenezkoa da barneratzeari buruzko kautelazko neurrien iraupena luzatu izana ere. 2010ean, ezarritako kautelazko neurri kopuru handia luzatu egin da sei hilabete igarotakoan –5/2000 [Lege Organikoaren](#) azken aldaketaren ondotik: hiru hiletik seira luzatu zen kautelazko barneratzeen hasierako iraupena–. Beraz, luzatu egin da askatasuna kentzeko neurri horien behin-behinekotasuna
- Hezkuntza-taldean bizitzeko kautelazko 4 neurri izan dira. Sailak berak iazko gogoe-tari eusten dio, eta hauxe deritzo: *“ez da batere egokia neurriaren lege izaera eta erregulazioa, eta neurria betearazteko lana, atsedena eta arreta behar dira, baina kautelazko izaera horrek ez ditu halakoak ahalbidetzen.”*

2010ean, aldaketa nabarmenak izan dira neurri irmoetan. Aire zabaleko neurri irmoei dagokienez, hauxe nabarmendu beharra dago:

- Gizartearen mesederako prestazioen kopuruak %10,5 egin du gora 2009koarekiko, 2008an jaitsiera handia izan ondoren, baina oso urruti dago aurreko urteetako zifretatik, non nabarmen gaintzen baitzen lauhun kasuen muga (2006 eta 2007).
- Zaindutako askatasunerako neurriak goranzko joerari eusten dio, eta aurten 327 kasu izan dira.
- Gizarte-hezkuntzako lanen kopurua nabarmen jaitsi da, 2009an %17 igo ondoren. Hala, 2007ko antzeko zifretan gaude.

Barneratzeko neurri irmoei dagokienez, aplikazioaren hazkunde handia nabarmendu behar da (2009an baino %80,2 gehiago), baita iraupenaren igoera nabarmena ere. Hori dela-eta, igo egin da gazteen justizia sareko ikastetxeen okupazio-tasa, eta %100 inguruan kokatu da, plaza eskuragarrien kopuruak gora egin badu ere. Tasa horrek %100 gaintuko luke leku ezezagunean dauden eta plaza erreserba duten adingabeak kontuan hartzen badira. Aste-buruko egonaldietan, iaz hazkunde nabarmena izan ondoren, %16ko murrizketa gertatu da 2010ean.

Familia barruko indarkeriarekin eta bikotekidearen kontrako indarkeriarekin lotutako delituek, 2009an ia %30 igo ondoren, berriz ere egin dute gora, %4,7. 111 neurri ezarri ziren delitu horiengatik, guztizkoaren %8,5. Neurri horien %30 neskei ezarri zaizkie (iazko kopurua bi halako ia-ia).

2. Barnetegietako zentrozen eta baliabideen sareetan eta aire zabaleko zerbitzuetan 2009an sartutako aldaketak

2.1. Ikastetxeen sarea

Sailaren oinarrizko egiturari eutsi egin zaio ikastetxeen sareari dagokionez. Hala eta guztiz ere, sareko plazen kopurua igo eta zentro berria sortu dela nabarmendu nahiko genuke.

Hala, 2010ean, jarraitu egin da Mendixolako (Aramaio) ikastetxea birmoldatzeko lanekin, Itxaslur (Muskiz) zentroa egokitu da zentroan sartzeko neurriak betetzeko hasierako faseetan eta Andoio/Gorbeia (Gasteiz) zentroko plazak gehitu dira. Gainera, Biosko ikastetxea ireki da (2. maila) Artean, asteburuko egonaldien neurrien kopuruaren igoerari aurre egiteko, eta soilik neurri horiek betetze aldera. Biosko zentroak 6 plaza ditu eskuragarri, eta zabalik egoten da ostiral goizetik igande goizera arte.

Ibaiondo ikastetxea (1. maila) zabalik izan da bere bost taldeekin, eta guztira 39 plaza eskaini ditu.

IKASTETXEA	Maila	HERRIA	PLAZAK	KUDEAKETA	LANGILEAK (2010-12-31n)
IBAIONDO	I	Zumarraga	39 (mutilak) 5 talde	Justizia eta Herri Administrazio Saila	64 + 13 irakasle + zerbitzuak (sukaldaritza, garbiketa, zaintza)
MIGUEL ÁNGEL REMÍREZ (CEMAR)	II	Ortuella	7 (mutilak)	Berritzu Hezkuntza Elkartea	15
MENDIXOLA	II	Aramaio	Berriztatze lanengatik itxita. 2011ko bigarren seihilekoan berriz irekitzeko asmoa dute		
URIBARRI	II	Arrazua-Ubarrundia	16 (barneratuta) eta 4 (eguneko zentroan)	Berritzu Hezkuntza Elkartea	30
ITXASLUR	II	Muskiz	6 (barneratuta, anaitasunezko bilerak hezkuntza-taldean eta asteburuetakongo egonaldiak)	Zentroa zabalik egongo da 2011ko ekainaren 30era arte	
BIOSKO	II	Artea	6 (asteburuetakongo egonaldiak)		
ANDOIO/GORBEIA	II	Andoio	15 (neskak)	Gaztaroan Ekin elkartea	30
AUTONOMIA EGOITZA. BILBAO	III	Bilbao	6 (mutilak eta neskak)	Berritzu Hezkuntza Elkartea	8

IKASTETXEA	Maila	HERRIA	PLAZAK	KUDEAKETA	LANGILEAK (2010-12-31n)
AUTONOMIA EGOITZA. DONOSTIA - 1	III	Donostia- San Sebastián	4 (mutilak)	Berritzu Hezkuntza Elkartea	6
AUTONOMIA EGOITZA. DONOSTIA - 2	III	Donostia- San Sebastián	6 (mutilak eta neskak)	IRSE- Birgizarteratzeko Euskadiko Erakundea. Bizkaia	8

Zentroan sartzeko neurriak betetzeko eta hezkuntza taldeko bizikidetzarako neurrietarako dauden plaza eskuragarrien kopuruak %13,8 egin du gora. Beraz, zentroan sartzeko neurriak burutzeko plazen kopurua, 2010. urtean, 99 izan da guztira, betiere zentroan aste-buruko egonaldiak betetzeko 6 zenbatu gabe (urritik gaur egunera arte). Honelaxe dago banatuta mailaka:

- 39 plaza I. mailan (5 hezkuntza talde dituen zentroa).
- 44 plaza II. mailan (lau zentro). 6 plaza gehiago asteburuko egonaldiak betetzeko urritik hasita gaur egunera arte.
- 16 plaza III. mailan (hiru egoitza-unitate, horietako bat familiaren barruan mehatxu, eraso, eta abarren zioz neurriak ezarrita dituzten pertsonen arretan espezializatua).

Sailaren datuen arabera, eta aurreko urteetan bezala, ez da zentroan sartzeko neurriak betetzea Autonomia Erkidegotik kanpoko beste zentro batzuetara bideratu, gazteen justiziaren euskal sarean plazak falta direlako. Adingabeen Epaitegi egokiak EAetik kanpora irtetea komeni dela zehaztu duenean edo adingabea beste autonomia erkidego batzuetan bizi denean, ordea, betetze hori gertatu egin da.

2.2. Aire zabaleko zerbitzuen sarea

2010ean hiru hezkuntza taldeei eutsi zaie aire zabaleko neurriak betearazteko: Talde 1 Bizkaian (14 profesional), talde bat Gipuzkoan (8 profesional, sei hiletan beste 2 profesionalen errefortzuarekin) eta bestea Araban (4 profesional).

Eguneko zentroen sarea finkatu da:

- *Zabalik* Bizkaian: 20 plaza eskuragarri. 8 profesionalen arreta jaso du.
- *Ireki* Gipuzkoan. 12 plaza eskuragarri. 4 profesionalen arreta jaso du.
- *Uribarri* Araban: 4 plaza eskuragarri. 2 profesionalen arreta jaso du (horietako bat lanaldi erdian).

Aurreko urteetan bezala, profesional bakoitzeko 15 adingabeko ratioari eustea lortu da.

3. Zerbitzuen araudia

Arartekoaren erakundearen hainbat alditan nabarmendu dugu bi arau garatzeak eta aplikatzeak duten garrantzia. Bi arauok 2005ean onetsi eta sartu ziren indarrean: [5/2000 Lege Organikoaren Arautegia](#) eta Haurren eta Nerabeen Arretari eta Babesari buruzko [Legea, Eusko Legebiltzarrak](#) onetsia 2005eko otsailean.

Sailak jakinarazitakoaren arabera, [apirilaren 21eko 80/2009 Dekretua](#) onetsita eta argitaratuta, Euskal Autonomia Erkidegoan askatasuna kentzeko neurriak betetzeko ikastetxeei buruzkoa, bete egiten da Haurren eta Nerabeen Arretari eta Babesari buruzko [3/2005 Legea](#). Dekretu horretan, zentroek askatasuna kentzeko neurriak betearazteko bete behar dituzten baldintza materialak, funtzionalak eta pertsonalaren arlokoak arautzen ditu, eta beren beregi ezarri ditu adingabeen eta haiei arreta ematen dieten profesionalen eskubideak eta betebeharrak, baita barne araubidea eduki behar izatea ere, zentroaren eta hezkuntza proiektuaren berezitasunei lotuta.

4. Harremanak babes sistemekin

[Justizia eta Herri Administrazio Sailari](#) eginiko eskaeran, beste behin azpimarratu zen ondoko hauei buruzko informazioa eman beharra:

- Babes sistematik datozen adingabeen proportzioa (jarrera arazo larriak dituzten nerabeak eta, berariaz, lagundu gabeko adingabe atzerritarrak; horien arazoen gaineko jarraipena egiten da).
- Koordinaziorako mekanismoak, jarduteko irizpide komunak, informazioa trukatzeko sistemak, jardueraren jarraipena... babes sistematik datozen adingabeekin.

Justizia eta Herri Administrazio Sailak, bere erantzunean, berriz ere agerrarazten du gazteen justizia sisteman ikusitako bilakaera eta babes sistemetatik datozen adingabeen proportzio altua.

Datuek, beste behin, sistemen arteko erlazioa erakusten dute, bereziki zentroan sartzeko neurriei dagokienez. Egoera bereziki aipagarria da lagundu gabeko adingabe atzerritarren kasuan. 2010ean jaitziera gertatu da gazteen justizia zentroetan arreta jaso duten adingabe atzerritarren portzentajea. Hala eta guztiz ere, zentroan sartzeko kautelazko neurrien %50 eta neurri irmoen %46 dira.

Bost taldek hartzen dute parte maizen bi sistemetan:

- Lagundu gabeko adingabe atzerritarrak (gehienak Marokokoak).
- Amerika Latinoan eta Errumanian jaiotako adingabeak, famili erreferente gutxiekin eta berdinen taldearen mendekotasun handiarekin.

- Familiaren barruan edo bikotekideei eraso egiten dieten adingabeak, eta adingabea ingurunetik bereizi beharra dago.
- Emantzipaziorako aukera errealik ez duten 18 urtetik gorakoak.
- Babes zentroan bizi diren adingabeak. Igoera handia gertatu da nesken kopuruan.

Bi sistemen arteko koordinazioari dagokionez, nabarmen hobetu dela adierazi du Sailak. Alabaina, adingabe atzeritarren eta jarrera arazoak dituzten tutoretza edo zaintzapeko adingabeen arazoak dirau; izan ere, askotan, ez dute aurkitzen babes sisteman haien beharretarako erantzun egokirik eta, beraz, sistema penalak ematen du erantzuna azkenean.

laz bezala, Sailaren aburuz, aipamen berezia merezi du osasun mentaleko eta jarrera arazoak dituzten nesken egoerak, zeren eta *“erantzunik ez dagoenez edo erantzun egokirik ez dagoenez, biderkatu egin baita adingabeen epaitegien jarduna.”*

5. Zentroetan bertan eskainitako hezkuntza eta osasun arreta eta hezkuntza eta osasun zerbitzuekiko lankidetzak

Hezkuntza arreta ezberdina da zentroeiei esleituriko mailaren arabera: III. mailako zentroetan, ohiko sarean egiten da eskolaratzea kasu guztietan; II. mailako zentroetan, egoera mistoa dago, kasuen arabera: ohiko sarean eta barnetegietan bertan; eta Ibaiondo zentroan (I. maila) gelako 6 irakasle eta tailerreko 7 irakasle daude, 2010ean osorik betea eta [Hezkuntza Sailaren](#) mendekoa.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburuak [2001eko azaroaren 7an emandako 6973. zk.ko aginduak](#) araututa dago barnetegietan bertan jasotako hezkuntza arreta, eta aztertzeke eta aldatzeke fasean dago.

Osasun arretari dagokionez, badira aldaketak zentro batzuetatik besteetara; izan ere arreta horixe da Justizia Sailaren eta [Osasun Sailaren](#) arteko lankidetzak hitzarmenaren xedea. Oro har, ez da arazo nabarmenik antzematen premiazko arretan, hasierako arretan edo eguneroko arretan, dela osasun etxeetan bertan, dela barnetegietan (Ibaiondon, adibidez: egunero medikuntza eta erizaintzako bi orduko arreta du Osakidetzako personalaren bidez).

Osasun mentaleko arazoaren arretari dagokionez, arestian esan dugun hitzarmenak bete egiten ditu premiazko egoeretan zentroetan sartzeko beharrak –ospitale orokorretako akutuen unitateetan–, betiere hiruzpalau asteko iraupeneko egonaldiak badira. Sailaren aburuz, barnetegian egonaldi luzeagoak izateko beharrek ez dute erantzunik [Osakidetzan](#), non ez baitago nerabeentzako egonaldi ertain edo luzeko baliabideen sarerik. Sare pribatuan ere ez dago baliabide hori, eta EAetik kanpora ere ia ez dago.

Adierazitakoaren arabera, herritarrentzat ematen da oro har osasun mentaleko zentroetako arreta anbulatorioa. Zenbait kasutan, terapeuta pribatuen kontrataziora jo behar izan da, sistema publikoaren estaldura nahikoa izan ez dela eta. Gizarte edo osasun zerbitzuen

arloetatik erantzun publikorik ez dagoela ere adierazi da, noiz-eta famili sistema osotasunean hartzen duen jarduera gauzatu beharra dagoenean.

Balorazio kritikoa egiten da toxikomanien arretan ere, aurreko txostenean jasotakoaren antzekoa, zeren eta arreta ez baita nahikoa eta Saitetik osatu beharra baitago sare pribatuko zerbitzuetarako laguntzarekin.

6. Eskariari behar bezalako erantzuna emateko edo 2008-2012ko epealdirako onetsitako plana betetzeko sisteman sartu diren hobekuntzak

[Justizia eta Herri Administrazio Sailak](#) uste du nahikoak izan direla egon dauden zerbitzuak eta programak eskaria betetzeko, baina egia da ere zentroan sartzeko neurriak bete behar dituzten zentroak okupazio mailarik handienean zeudela urtearen amaieran. Hori dela-eta, plazak gehitu behar izan dira nahitaez eta, 2011. urteari begira, Sailak ezinbestekotzat jotzen du zentro berriak irekitzea. Ildo horretan, hauxe agerrarazi du Sailak: *“zailtasun handiak daude zentro berriak irekitzeko, ez bakarrik zenbait auzokideren aldetik, baizik eta, askotan, udal arduradunen aldetik.”*

Hauexek dira 2010ean zentroetan sartutako hobekuntzak:

- 12 plaza gehiago sartzea zentroan sartzeko neurriak bete behar dituzten ikastetxeetan.
- Zentro berri bat abiaraztea asteburuetak egonaldietarako neurriak betetzeko (Biosko, Artean).
- Higiezin bat egokitzea Andoiuko ikastetxea handitzeko. Arreta emateko ahalmena igo da: 11 plazatik 15 plazara.
- Mendixola ikastetxea osorik birmoldatu da, eta aurreikuspenen arabera, 2011ko bigarren seihilekoan irekiko da.

Sarturiko beste hobekuntza batzuei dagokienez:

- Luzatu egin da 2010era Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren eta [Justizia](#) eta [Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioen](#) arteko lankidetzahitzarmena, zertarako-eta EAEn bete ahal izateko Audientzia Nazionaleko Adingabeen Epaitegi Nagusiak terrorismo delituengatik ezarritako neurriak.
- Eutsi egiten zaio [KREI](#) erakundearekiko lankidetzari, jardueren kalitatea hobetzeko azterlanak, ikerketak eta ebaluazioak gauzatze aldera.
- Lan-talde bat sortu da gazteen justiziako ikastetxeetan hezkuntza formaleko arretaren arloko araudia egokitzeko; dagoeneko aipatua dugu aurreko orrialdean.
- Lan-talde egonkor batean parte hartu da gazteen babes eta justizia sistemen arteko lankidetzaproto-kolo bat egiteko, babesik gabeko haurrei buruzko atalean aipaturiko protokoloetako bat.
- Hainbat material argitaratu da gazteen justiziako zentroeiei eta neurriei buruz.

4.3. Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak

Gai honen inguruan eginiko jarraipenen abiapuntua, funtsean, 2001eko txosten berezia da: *EAEko hezkuntza behar berezietarako erantzuna*. Nahiz eta jarraipen horien hasieran txosteneko 21 gomendio guztiei buruzko informazioa eskatu zen, zenbait ezaugarriren gaineko eskaera bereziak egitea aukeratu zen 2007an, eta argitasun handiagoa lortu nahi zen datuak ematean, gaiaren irakurketa eta ulermena ulertze aldera. Bestalde, azken urteetan “hezkuntza” arloan behar bereziei emateko erantzunari dagokionez konpromisoak dakartzaten planak onetsi dira, edo hobeto esanda, zenbait pertsona-talderen berariazko beharrei. Badirudi, beraz, informazio egituratua eskatzen eta aurkezten zela konpromiso horiek ere kontuan izanik. Horren guztiaren ondorioz, 4 ataletan banatuko dugu kapitulu hau:

- 1) Ezintasunarekin lotutako hezkuntza behar bereziei erantzuna ematea. Eskaturiko informazioa ere sartuko dugu hemen, ikastetxeetan barrera arkitektonikoak kentzeari buruzkoa.
- 2) Etorkinen berariazko beharrei erantzunak ematea.
- 3) Haur eta nerabe ijitoen berariazko beharrei erantzunak ematea.
- 4) Gizarte mailan egoera txarrean dauden herritarren berariazko beharrei erantzunak ematea.

Hezkuntza behar berezien arreta dela-eta, eguneko zentroei edo hezkuntza-terapia unitatei buruzko informazioa bildu da, eta horren berri emango dugu 4.5. atalean *Osasun mentaleko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak*.

4.3.1. Ezintasunarekin lotutako hezkuntza behar bereziei emandako erantzuna

Ezintasunarekin lotutako hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleei dagokienez, eguneratutako datuak eskatu genizkion sailari (37/2010/42O zenbakiko espedientea), 2010-2011 ikasturteari dagozkionak (eskolaratzea lurralde, sare, etapa eta abarren arabera), egoki irizitako terminoetan edo banakatze-mailan. Era berean, aipaturiko txostenaren 10. gomendioari dagokionez, (ezinduak irakasleen plantillan sartzeari) eta ondorengo “*Pertsona ezgaituen lanerako aukerak EAEn*” izeneko gure txostenaren gomendioei dagokienez (plazaren erreserben kupoaren %10eko kuotara iritsi arte; kontratazio mota guztietara hedatzea aplikazioa; hainbat talde eta kategoria profesionaletan banatzea lortzea; ezinduak enplegu publikoan sartzeari errazten duten neurri positiboak prestatzea), proposamen horiek modu eraginkorrean aplikatzeko neurriei buruzko informazio eguneratua eskatzen dugu, baita sailak kontratatutako ezinduei buruzko datuak ere.

Hezkuntza zerbitzuetan eta zentroetan sartzeari dagokionez, sailak Ikastetxe Publikoetako Azpiegiturak Hobetzeko 2008-20120 Plan Bereziari buruz 2010eko maiatzean emandako informazioa ikusita, aurreikuspen zehatzei buruzko eta martxan jarritako planei edo proiektuei buruzko informazioa eskatu zen (39/2010/42O zenbakiko espedientea), arlo horretan izandako aurrerapenak hobeto baloratzea ahalbidetu ahal izateko.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, azaroaren 26an, idazkia igorri zion, zertarako eta Bigarren Hezkuntzako irakasleen eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan sartzeko Arartekoari 2010/2011 ikasturterako praktiketako funtzionario izendaturiko ezinduen datuen berri emateko. Hona hemen datuak:

- Bigarren Hezkuntzan: Ezintasunaren ziozko erreserba-txandarako eskaintako 7 plazetatik bat hartu da.
- Lanbide Heziketan: Ezintasunaren ziozko erreserba-txandarako eskaintako 7 plazetatik bat hartu da.

Ikus daitekeenez, ikasturte horretan sarturiko irakasle ezinduei dagozkien datuak dira, baina honako hauen inguruko informazioa falta dela uzten dute agerian: Haur eta Lehen Hezkuntzan ezintasuna duten irakasleak, irakasleak ez diren eta ezintasuna duten kontrataturiko pertsonak eta, azkenik, 2010-2011 ikasturterako deialdia baino lehen hezkuntza sistemaz zeuden profesional ezinduek, horietatik baitagozkie emandako datuak.

Txosten hau bukatzean, ez zen erantzunik jaso eskaturiko gainerako informazioaren gainean.

Amaitzeko, haur eta nerabe ezinduen hezkuntza behar berezien arretari buruz 2010ean jasotako banako kexen artean, zilegi izan bekigu [Arartekoaren 2010eko azaroaren 4ko ebazpena nabarmentzea](#). Ebazpen horren bidez, hezkuntza behar bereziak dituen adingabe baten eskolaratzearen jarraipenari buruzko jarduera bukatu da, non, egoera konplexu baten inguruko jarduerak azalduta eta baloratuta, hezkuntza zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzen jarraitu behar dela azpimarratzen da, hezkuntzan horrelako behar bereziak dituzten ukituriko adingabeei ematen zaien erantzunaren ebaluazio egokia eta behar bezalako jarraipena bermatzeko, baita familien arteko laguntza handiagoa ere.

4.3.2. Etorkinen berriazko beharrei erantzuna ematea

Azaroaren 5ean, eta ofiziozko espedientearen bidez (Espt.: 41/2010/42O) informazioa eskatu zitzaion Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, honako hauei buruzkoa:

- a) Ikasle horiek (ez bakarrik matrikulazio berriak) lurraldeen arabera eta sareen arabera banatzeari buruzko datu eguneratuak, 2009-2010 ikasturteetakoak.
- b) Gure hizkuntzetako baten aurretiazko jakintzari eta jatorriari buruzko datu eguneratuak.
- c) Ikasle horien eskolako emaitzei buruzko datu eguneratuak; lehen etapa amaitzean onetsitako tasak; errepikapen-tasak; eskolako graduatuak lortzeko tasak; ordaintze-tasak 16 urte bete baino lehen edo DBH bukatu baino lehen.
- d) Hizkuntza errefortzuko programei buruzko datuak.
- e) Kulturartekotasuneko koordinatzailearen postua sartu duten ikastetxeak (ikastetxe kopurua, ikastetxe mota, banaketa irizpidea...).

- f) Hiru lurralde historikoetako eskolatze batzordeetan 2009-2010 ikasturtean aurkezturiko eskabideen kopurua eta eskolatze proposamenak, hots, eskolatu diren ikastetxeak.

Kulturartekotasunari dagokionez, irakasleei eskainitako prestakuntzari eta izandako partaide-tza mailari buruzko informazioa eskatu genuen, baita aniztasuna ikaskuntzan txertatzeko buruturiko ekintzei buruzkoa ere.

Txosten hau idaztea amaitzean, ez da jaso datu eskaera horri buruzko erantzunik.

4.3.3. Haur eta nerabe ijitoen berariazko beharrei erantzuna ematea

38/2010/42 ofiziozko espedientearen barruan kasu honetan eskaturiko informazioa aurreko atalekoaren antzekoa da ikasleen banaketari buruzko datuei (lurraldeen eta sareen arabera) eta eskolako emaitzei buruzko datuei dagokienez. Ikasle ijitoen berariazko datuak lortzeko eta ezagutarazteko legezko zailtasunen inguruan aurretik emandako argudioa ikusita, ikasle ijitoen nortasunik batere ez dela eskatzen, datu orokorrak baizik. Horretaz gain, honako hauei buruzko informazioa eskatzen genuen:

- a) Biztanle sektore honen berariazko beharrei emandako erantzuna eta eskolako emaitzen hobekuntzan duten eragina hobetzeko programak edo laguntzak.
- b) Programaren egoera ikasle ijitoen eskolatzea hobetzeko.
- c) [Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako II. Euskal Planean](#) ezarritako jarduerak abiarazteko aurreikuspenak, horiek buruzko urratsak egin badira, horretarako erabiliko diren baliabideak eta betetze-planei buruzko aurreikuspenak.

Txosten hau idaztea amaitzean, ez dugu eskaturiko informazioa.

4.3.4. Gizartean babesik ez duten herritarren berariazko beharrei erantzuna ematea

Etorquinek eta ijitoek dituzten berariazko hezkuntza beharrei ematen dizkieten erantzunak aurreko bi ataletan ikusita, orain "gizarte babesik ez duten herritarrak" deritzogun sektore zehaztugabeago bat aipatuko dugu (gizarte, kultura eta diru aldetik babesik ez dutenak). Eskolako ume horien zati handi bat babesik gabeko zonaldeetan kokaturiko zenbait ikastetxetan biltzen dira eta, kasu guztietan hezkuntza behar berezi batekin ere identifikatzen ez bada ere, eskolako emaitzetan eragin erabakigarria izan ditzaketen zenbait ezaugarri ditu eta, azken finean, hezkuntzarako eskubidea erabiltzean.

Bereziki zaila den laugarren bloke horri dagokionez, Arartekoak, 2010eko azaroaren 5ean, ofiziozko beste espediente bat helarazi zio [Hezkuntza Sailari](#) (45/2010/420 zenbakiko espediente), informazio zehatza eskatzen deneko lau gomendio ardatz hartuta:

1. Babesik gabeko ikasleen hezkuntza goiztiarra lehenestea (hezkuntza behar bereziei buruzko txosteneko 1. gomendia).
2. Diskriminazio positiboa baliabideak esleitzean bereziki babesik ez duten ikasleei neurri handi batean arreta ematen dieten ikastetxeei (txosten horretako 2. gomendia).
3. Hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatu eta "eskola-ghettoak" galarazten dituzten neurriak hartzea (txosteneko 3. gomendia).
4. LHak argitzea eta irakaskuntza arautuaren eta ez arautuaren artean bideratzea (txosteneko 5. gomendia).

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren erantzunaren ardatza txosteneko 5. gomendia da (eskaturikoetatiko 4. puntua), eta Lanbide Hastapeneko Gaitasun Programen (aurrerakinak ditu LHletan) printzipioei eta helburuei buruko informazioa ematen du, baita ikastetxe eta ikasleen datuak eta adierazleak, emaitzak, etab. ere. Ondoren azalduko ditugu horiek guztiak.

Lanbide Hastapeneko Gaitasun Programak 16 urtetik gorakoentzat dira (salbuespenez, 15 urtekoentzat), eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatuaren titulua eskuratu ez duten ikasleei beste aukera bat eskaintzea du xede eta, aldi berean, laneratzea erraztuko duen lanbide gaitasuna lortzea. 2009-2010 ikasturtean, 398 talde eratu dira, 69 zentrotan banatuak, eta horietatik 29 udalen menpekoak dira, 21 irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuen mendekoak eta 12 itunpeko ikastetxeak eta 7 ikastetxe publikoak.

17. taula. EAEko Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programak dituzten ikastetxeen kopurua, lurralde historikoen eta erakunde titularren arabera

	Udala	Irabazi asmorik gabeko erakundea	Ikastetxe publikoa	Itunpeko ikastetxea	Guztira
Araba	2	2	7	4	15
Bizkaia	14	13	0	5	32
Gipuzkoa	13	6	0	3	22
EAE	29	21	7	12	69

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

18. taula. EAEko Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programen talde kopurua, lurralde historikoen eta erakunde titularren arabera

	Udala		Irabazi asmorik gabeko erakundea		Ikastetxe publikoa		Itunpeko ikastetxea		Gutzizkoak		Guztira
	1°	2°	1°	2°	1°	2°	1°	2°	1°	2°	
Araba	7	7	3	3	11	11	8	7	29	28	57
Bizkaia	60	59	42	43	0	0	22	21	124	123	247
Gipuzkoa	31	31	11	11	0	0	5	5	47	47	94
EAE	98	97	56	57	11	11	35	33	200	198	398

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

19. taula. EAEko Hastapeneko Lanbide Gaitasuneko Programetan matrikulaturiko ikasleen kopurua, lurralde historikoen eta erakunde titularren arabera

	Udala		Irabazi asmorik gabeko erakundea		Ikastetxe publikoa		Itunpeko ikastetxea		Gutzizkoak		Guztira
	1°	2°	1°	2°	1°	2°	1°	2°	1°	2°	
Araba	107	94	44	38	133	106	112	85	396	313	709
Bizkaia	651	623	474	475	0	0	263	236	1.388	1.334	2.722
Gipuzkoa	349	317	140	103	0	0	43	56	532	476	1.008
EAE	1.107	1.024	658	616	133	106	418	377	2.316	2.123	4.439

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

Sexuari dagokionez, emakumeak ikasle guztien %27 dira. Adinak direla-eta, gehienak 16 eta 17 urtekoak dira, hots, neska-mutilen %79. Bestalde, etorkinak guztizkoaren %30 dira.

[Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak](#) dioenez, ikasketak 2009-2010 ikasturtean bukatu dituen programan horietako lehen promozioak lortu dituen emaitzek gainditu egiten dituzte hasierako aurreikuspenak, honako hauez ari baikara:

- Bigarren mailako ikasleetatik %75ek lortu dute ziurtagiria.
- Maila ertaineko prestakuntza zikloetan sartzeko probetara aurkezten direnetatik %42k gainditu dituzte probak, guztizkoaren %7 baino ez badira ere.
- Bigarren mailako ikasleen artean %27,6k gainditu dute graduatua, baina aurkeztu direnen %59k eskuratu dute titulua.

Genioenez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 2010eko azaroan eginiko informazio-eskaerari emandako erantzuna orain arte aurkeztu dena baizik ez da izan, baina kome-nigarria da adieraztea ezen, gomendioetako bigarrenaren inguruan, hots, gizartean babesik ez duten ikasleenganako bereizkeria positiboko ekintzen inguruan, 2009-2010 ikasturteko zenbait kasu bildu direla ezohiko txosteneko 3.5. puntuari, hain zuzen ere argitaratzeko fa-sean dauden babesik gabeko haurrei buruzko txosten berezian. Zehazkiago, hauexen berri ematen dute: hezkuntzako berariazko jarduera-proiektuak; ikaskuntza erkidegoen proiektuak; eskola laguntzarako programa (PROA); curriculum-aniztasuneko proiektuak.

4.4. Eskolako tratu txarrak edo jazarpena

2006. urtean, *Bizikidetzaren eta gatazkak ikastetxeetan* izenburuko txosten berezia argitaratu zen. Ikastetxeetako bizikidetzari eragiten dioten oinarrizko arazoak zein diren antzeman eta gatazkak neurri egokian baloratzea zuen helburu. Harremanen kalitatearen inguruan zehaz-turiko bizikidetzaren eta positiboaren ikuspegitik, zenbait gatazka kudeatu edo bana-tzeko jarduera hutsetik urruti, ikastetxeetan zabalduetako sei gatazka motaren azterketan sakontzen du. Horien artean, aztergai duguna dago: berdinaren arteko jazarpena edo tratu txarra, botere-abusuagatik.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila izan zen gure ikastetxeetako bizikidetzaren egoera eta berdinaren arteko jazarpen edo tratu txarren egoeren jarraipena egiteko identifika-turiko informazio-iturri nagusia. Bestalde, logikoa denez, Sail hori zen txostenen ondorioe-tan azaltzen ziren 28 gomendioen zati handi baten hartzailea. Hala, urterik urte, tratu txarrak eskolako eremuan duen eragina zenbatzea ahalbidetzen duten datuak eskatu zaizkio, baita ikastetxeetan bizikidetzaren hobetzeko gomendioetan adierazitako ildoen barruko jarduerak ere. 2010erako eginiko informazio-eskaera horri erantzun zaien ondoko lehen ondorioetan.

2009-2010 ikasturtean, Ikuskaritzak esku hartu du berdinaren artean tratu txarrak egon zitez-keela iritzi dionean, hain zuzen ere 33 kasutan, eginiko 90 salaketa edo espediente irekietatik. Hots, guztizkoaren %27. Portzentaje horrek behera egin du sorta 2006-2007 ikasturtean hasi zenetik, eta honako ibilbidea izan du erregistraturiko lehen ikasturtetik aipaturiko ia-zko ikasturtera: %68tik %27ra.

20. taula. Berdinen arteko bilakaera azken ikasturteetan (2006-2007tik 2009-2010era), lurraldeen arabera. Jasotako kasuak

Lurraldea	2006-2007 ikasturtea		2007-2008 ikasturtea		2008-2009 ikasturtea		2009-2010 ikasturtea	
	Erregistratuta	Tratu txar nabarmenak	Erregistratuta	Tratu txar nabarmenak	Erregistratuta	Tratu txar nabarmenak	Erregistratuta	Tratu txar nabarmenak
Araba	13	10	35	20	22	8	23	3
Bizkaia	45	29	56	29	35	19	53	22
Gipuzkoa	48	33	23	13	20	13	14	8
EAE, guztira	106	74	114	62	77	40	90	33
% nabarmentasuna	%68		%54		%52		%27	

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

Ondoko tauletan eta grafikoetan laburbiltzen da 2009-2010 ikasturteko informazioa, aldagaien arabera banakatua:

21. taula. Berdinen artean izandako eta Hezkuntza Ikuskaritzak jasotako tratu txarrak, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2009-2010 ikasturtea

Tratu txarren kasuak	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Mutilak	13	38	7	58
Neskak	10	15	7	32
Salaketak, guztira:	23	53	14	90
Tratu txarrak bai, ikuskariaren iritziz	3	22	8	33


Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

22. taula. Berdinen artean izandako eta Hezkuntza Ikuskaritzak jasota tratatu txarrak, lurralde historikoaren eta eskolatzeko mailaren arabera. 2009-2010 ikasturtea

Eskolatzeko maila:	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Haur Hezkuntza, 3 urte	0	0	0	0
Haur Hezkuntza, 4 urte	0	0	0	0
Haur Hezkuntza, 5 urte	1	2	0	3
Haur hezkuntzan, guztira:	1	2	0	3
Lehen Hezkuntzako 1. zikloa	3	4	0	7
Lehen Hezkuntzako 2. zikloa	7	6	0	13
Lehen Hezkuntzako 3. zikloa	4	17	1	22
Lehen Hezkuntzan, guztira:	14	27	1	42
DBHko 1. maila	2	9	3	14
DBHko 2 maila	2	9	5	16
DBHko 3 maila	3	2	3	8
DBHko 4 maila	0	1	2	3
DBHn, guztira:	7	21	13	41
Batxilergoko 1. maila	1	1	0	2
Batxilergoko 2. maila	0	0	0	0
Batxilergoan, guztira:	1	1	0	2
Erdi mailako heziketa zikloa	0	2	0	2
Goi mailako heziketa zikloa	0	0	0	0
Zikloetan, guztira	0	2	0	2

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

5. grafikoa. Salaturiko tratatu txar mota



Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

23. taula. Hartutako neurriak eta izapidetzearen egoera lurralde historikoaren arabera. 2009-2010 ikasturtea

Kautelazko neurriak:	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Zaintzeko neurri gehiago jartzea	17	42	9	68
Ikasgela aldaketa	0	0	0	0
Berariazko langileak gehitzea	0	0	0	0
Beste neurri batzuk	6	11	5	22

Izapidetze-egoera:	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	EAE
Izapidetzen, jarraipen-planarekin	11	39	12	62
Izapidetzen, jarraipen-planik gabe	0	0	0	0
Bukatuta	12	14	2	28
Ordezkaritari txostena bidali zaio	14	15	1	30
Ikuskariaren proposamena Fiskaltzari	1	5	1	7

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.

Salaturiko egoeren portzentajea izan den atzerapen horretaz gain, non Ikuskaritzak berdinen arteko tratu txarra benetan izan dela iritzi dionean, aztertutako datuek bilakaera positibo ematen dute, eta honako ondorio hauek ematea ahalbidetu dezakete:

- Oraindik mutilei dagozkienak dira nagusi salaturiko berdinen arteko tratu txarren kasuetan (%64)
- Gehienbat Lehen Hezkuntzako azken zikloan eta Bigarren Hezkuntzako lehen bi mailetan biltzen dira. 4 maila horietan izan da salaturiko kasuen %58.
- Zuzeneko eraso fisikoen portzentaje altua (%39), hitzezko erasoekin batera (%29).
- Zaintzako neurrien igoera lehenestea lehentasunezko kautelazko neurri gisa.

Nolanahi ere, ñabardura bat egin beharra dago: baieztapen horiek irmoagoak izan daitezten, kexen edo balizko tratu txarren aurrean esku hartzen duten beste erakunde batzuetakoekin erkatu eta osatu beharko lirateke (Adingabeen Fiskaltza, Arartekoaren erakundea bera, [Ertzaintza](#)). Hori guztia adierazi beharra dago honako hauek ahaztu gabe: hainbat metodologiarekin eginiko azterlanek eta ikerketak biltzen duten informazioa erkatzeko zailtasunak, lagina hautatzeko hainbat irizpide, eginiko galderak eta eskolako jazarpen gisa tipifikatuko diren jarrerak aintzat hartzea.

Aztergai dugun txosten berezian eginiko gomendioen aurrerapenerako 2010. urte honetan eginikoari dagokionez, [Hezkuntza](#), [Unibertsitate eta Ikerketa Sailak](#) 5 arlo horietan izandako aurrerapenen berri eman du.

Martxoa eta ekaina bitartean, eta bizikidetzaren planak egiteko eta EAEko ikastetxeetako bizikidetzarako behatokiak egiteko berrikuntza proiektuen deialdia amaitutakoan, [Berri-
tzeguneko](#) ikerlari, ikuskatzaile eta aholkularien talde batek, euren ibilbidea eta erantzukizunak direla-eta arlo horretan bereziki jabetuta, ikastetxe talde baten esperientzia aztertu eta baloratzeko eginkizuna hartu zuen bere gain, non bizikidetzaren hezkuntza proiektuen barruko berriazko hezkuntza eremu gisa agertzen zen. Arrakastarako gakoak eta zailtasunak, behatokiak urtetik urtera bizirik irauteko dinamikak, etab. zein diren jakitearekin du zerikusia lanak, zertarako-eta esperientzia arrakastatsu horiek ezagutarazteko (1. gomendioa) eta laguntza ikastetxe guztien eskura jartzeko, laguntza praktikoa, benetakoa eta posiblea bizikidetzaren positiboa eraikitze bidean.

Zentzorei bizikidetzaren planak aplikatzen laguntzeko (2. gomendioa), hiru lan-ildo aipatzen ditu Hezkuntza Sailak.

- Unibertsitatekoak ez diren ikastetxeei urtero deitutako AGINDUAREN bidez biderturikoa, hain zuzen prestakuntza proiektuak eta hezkuntzako berrikuntza proiektuak egiteko ikastetxeetan. 2009-2010 ikasturte honetan, 305 proiekturi eman zaien tokia (34 Araban, 124 Bizkaian eta 147 Gipuzkoan).
- Banako ikastaroak irakasleentzat Garatu Programaren barruan. Bizikidetzaren, kulturartekotasun, hezkuntza emozional eta metodologia interaktiboetarako jokoak, edo berriaz, bizikidetzaren planak dira ikastaro horietako zenbait eduki.
- Berrituzegunekoak bultzatu eta koordinaturiko zonaldeko mintegiak: 15 Bizkaian, 16 Araban eta 9 Gipuzkoan.

[2008ko abenduan Ikasleen Eskubideei eta Betebeharrei buruzko 201/2008 Dekretua](#) argitaratu ondoren (4. gomendioari erantzuna ematen ziona), hainbat jardura burutu ditu Hezkuntza Administrazioak ikastetxeei laguntzeko araua behar bezala interpretatzeko eta garatzeko. Horietako lehenengoa "[Dekretu hau aplikatzeko gida](#)" egitea izan zen, EAEko eskola-mapako zonaldeetako zuzendaritzaren taldeentzako bileretan aurkeztua. Bertan jaso ahal izan zen talde horiek Antolaketa eta Jardunbide Arautegiak (AJA) edo Barne Araubideak (BA) aldatzeko ezarritako epea betetzeko benetako aukeraz duten kezka. [Ikuskaritzak](#) ikasturte berean horri dagokionez eginiko txostenen agerrarazi denez, ikastetxe gehienak txostenak egiteko prozesuan ari ziren. Txosten horretako datuak kontuan izanik, txostena egiteko epea xedatu da [Hezkuntzako sailburuordearen ebazpenaren](#) bidez. Gainera, Ikuskaritzaren 2011-2012ko urteko planean sartu da AJA, BA eta Bizikidetzaren Planaren baterako azterketa, indarreko legeriari lotzen zaion ala ez egiaztatzeko.

201/2008 Dekretuan ere islatu dira berdinaren arteko tratua txarrak, baita ikasleek teknologia berriak modu ezegokien erabilera agertu izana ere. Horren ondorioz, [Ikastetxeetan berdinaren arteko tratua txarren aurrean jarduteko gida](#) berrikusi beharra sortu da. Dagoeneko erantzuna eman dio behar horri Hezkuntza Ikuskaritzak aldaketarako proposamen batekin, eta behin betikoa izatea espero du honako txosten hau egiten ari den garai honetarako. Era berean, cyberbullying deritzonaren inguruan agertzen hasi diren tratua txarren egoera berriak direla-eta, 2010ean Cyberbullying Protokolo bat egin da; seguru asko argitaratuta egongo da txosten honek argia ikusten duenerako.

Protokolo hori egiteko prozesuan, arazoaz jabetuta dauden eta interesa duten pertsonen eta erakundeen edota adituen iritzia jaso dira. Horien artean, Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Bulegoa da, eta egokitzat jotzen dituen ekarpenak egiteko proposamena luzatu ondoren, halaxe egin zuen Bulegoak.

Jarraipenei dagokienez (26-28. gomendioak), [ISEIk](#) Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 163 ikastetxeetan berdin arteko tratatu txarrari buruz urtero egiten duen ikerketarekin jarraitu da. Era berean, berdin arteko tratatu txarren inguruko jarduera protokoloan bilduko jarduerak erregistratzeari eutsi zaio. Hala ere, protokoloan eginiko aldaketei egokitzen ari zaie erregistrarako sistema, arestian aipaturiko aldaketei hain zuzen.

4.5. Buruko osasuneko arazoak dituzten haurrak edo nerabeak

Haurren eta nerabeen buruko osasuna eta horien hezkuntza arreta terapeutikoa dagoeneko aztertuak ditu erakunde honek [Buruko gaitzaren trataera ospitaletik kanpo](#) eta [EAEko hezkuntza-premia bereziei emandako erantzuna](#) txosten berezietan, baita bertan eginiko gomendio orokorren jarraipenen barruan eta hainbat elkartek eta zerbitzuek adierazitako kexetan eta kezketan ere.

Eusko Jaurlaritzaren [Osasun eta Kontsumo Sailari](#) eta [Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari](#) ofizioz eginiko datu-eskaeran, Ortuella, Lasarte eta Gasteizko hezkuntza-terapiako zentroyen egoeren gaineko interesa agertu genuen: aldaketak plazen kopuruan edota arreta jaso duten adingabeen kopuruan, zentroan sartzeko baldintzei buruzko araudia, itxarotzerrenda egotea (edo ez) eta ukituriko adingabeak (kopurua, adinak, patologiak)

Osasun eta Kontsumo Sailari, gainera, hauxe eskatu zitzaion:

1. Aurreikusitako lanbide-plazak bete diren eta noiz aipaturiko hezkuntza-terapia zentroetako plazen igoerarako.
2. Basurtu, Donostia eta Santiago ospitaletako ospitalizazio unitateei dagokienez, azken urtean ohe kopuru, profesional eta abarren aldetik izan diren aldaketak edo hobekuntzak... 2009ko arretaren gaineko datuak (sartzeak, altak, batez besteko egonaldia...).
3. Unitate ambulatorio eta komunitario espezializatuei dagokienez, azken urtean zentroyen kopuru, profesionalen kopuru eta abarren aldetik izan diren aldaketak edo hobekuntzak eta 2009ko arretaren gaineko datuak (paziente ezberdinen kopurua, lehen kontsultak, ondoz ondoko kontsultak...).
4. EAEko Osasun Sailak haurren eta gazteen buruko osasunari, baliabideak sektoreko beharretara egokitzeko mailari edo hobetu beharrekotzat jotzen dituen arazoei buruzko balorazioa.

Txosten hau amaitzean, ez dugu informazio hori jaso izanaren berri.

Alabaina, eta Ararteko erakundean gai honek pizten duen kezka beste erakusgarri baten gisa, Ararteko erakundearen eta [Andaluziako Adingabearen Defendatzailearen Erakunde-ko](#) pertsonen arteko baterako lan-tailer bat egin izana aipatu behar dugu hemen, haurren buruko osasunari buruzkoa, jakintza partekatzeko eta elkarren aberasgarri izateko. 2010eko martxoaren 22an eta 23an egin zen, eta lan horri esker, egoerari buruzko diagnostikoak partekatu eta erkatu ahal izan dira. Aldi berean, arlo horretako beharrei erantzuna emateko modalitateen berri jasotzea ahalbidetu zuen.

4.6. Beste arrisku egoera batzuk

1) Gehiengoarena ez bezalako sexu-orientazioa duten nerabeak

Erakundearen hainbat jardueraren bidez lorturiko informaziok eta Arartekoaren [Adingabekoei balioak transmititzea](#) izeneko txostenaren emaitzek agerian utzi dituzte bereziki nerabeen gizarteratzean oraindik ere sexu-orientazio ezberdinek edo genero-nortasunak dakartzaten bereizkeriak edo zailtasunak. Era berean, hezkuntza lana irmotasunez jorratzeko premia aipatzen dute, zeharo osagarriak diren bi ildotan: Lehenengoan, sexu-orientazio edo genero-nortasun ezberdina duten haurren eta nerabeen erabateko garapenerako laguntza emanaz; bigarrenean, LGBT pertsonen eskubideak erabat errespetatzeko eta gizarteratzeko herritarren kultura sustatuz eta trebatuz haurtzarotik.

Horren uste osoa izanik, [homosexualen eta transexualen eskubideei buruz zati orokorreko](#) III.9. kapituluan aipatzen diren jarduera guztien artean, Ararteko erakundeak Europako *Rainbow* deritzon proiektuan parte hartu izana nabarmendu nahi dugu hemen. Proiektu horren xedea da Europar homofobiaren kontra borroka egitea eta homosexualen eskubideak erabat errespetatu eta onartzeko kultura bat sortzea. [Europako Batzordeak](#) proiektua onartu eta hautatuta eta diru-laguntza eman ondoren 2010ean, oinarriak finkatu dira proiektua behar bezala abiarazteko tartean diren 10 erakundeetan (7 herrialdeetakoak), eta 2011n eta 2012an erabat garatzea aurreikusten da.

2) Sasoikako langileen seme-alabak.

Nahiz eta kapitulu honetan jakinarazi ditugun jarraipen-jarduerak eragin zuten txosten berezian [Sasoikako langileen egoera Arabako mahats eta patata bilketan](#) (2002) delakoaz arduratu, honako hau da Ararteko Erakundearen Haurren eta Nerabeen Bulegoaren arretaren ardatza: nekazaritzako langile horien seme-alaben eskolako arreta familiekin batera doazenean. Hala, aurten berriz ere eskatu zaio informazioa Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, mahats-bilketaren eta patata-bilketaren azken kanpainan buruturiko jardueri eta neurriei buruzkoa, aipaturiko txosten bereziaren 13. gomendioa betetze aldera hain zuzen ere ("[Adingabeen eskolatze-maila igotzea baliabide guztiak erabiliz](#)") eta 14. gomendioa ("[Ikastetxeen hezkuntza erantzuna hobetzea](#)"), edo [Sasoikako](#)

[Lanaren Arretarako II Plan Integrala 2008-2012](#) garatzeko. Txosten hau amaitzean, ez dugu informazio hori jaso izanaren berri.

3) Herrizaingo Saila

Arkauteko eta Donostiako [Ertzaintzaren](#) atxiloketa-zentroetara eta Sestaoko Udaltzaingoaren bulegoetara aurrean eginiko ikuskapen-bisitaldietan ikusi ahal izan denez, lehenago antzemandako zenbait arazo daude, adingabeak zaintzeko berariazko bulegorik ezarekin (kasuren batean, bulegoa ez egokia) eta haiantzako berariazko atxiloketa-erregistrorik ezarekin lotuta. Hori dela-eta, berriz esan behar dugu atxiloketa-zentro guztiek eduki behar dituztela elementu horiek.

Azkenik, honako posibilitate hau helarazi zaio Herriaren Defendatzaileari: Herritarren Seguratasunaren Babesari buruzko [otsailaren 21eko 1/1992 Lege Organikoa](#) aldatzea. Horri esker, babesari emango zaio adingabeei arlo horretan jarritako diru-zehapenen ordezkuntza eta prebentzio mailako beste batzuk jartzeari. Halaxe planteatu zen guk haren eskumeneko kexa batean parte hartu izanaren ondorioz. Erakunde horrek [Barne Ministerioari](#) helaraziko dio arazoa, eta proposamena baloratzea hitzartu du.

5

TXOSTEN BEREZIAK

5. TXOSTEN BEREZIAK

5.1. Gai honi buruzko ezohiko txostena: *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan*

2010eko apirilean, *EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan* izeneko txostena eman zitzaion Eusko Legebiltzarreko presidenteari. Ondoren, 2010eko ekainaren 23an aurkeztu zena Eusko Legebiltzarreko *Giza Eskubideen eta Eskabideen Batzordearen* aurrean.

Txosten honek *Eusko Legebiltzarraren* eskaerari erantzuten dio, eta gizartean eztabaidatzen den eta kezka sortzen duen gai bati heltzen dio: nerabeen eta drogen arteko erlazio, askotan arazoak sortzen dituena.

Kasu honetan, ez gaude ezezaguna egiten zaigun kasu baten aurrean. Izan ere, aurreko hainbat ikerlanetan aztertu den gaia da, gutxienez azken 25 urteetan.

Argitaratutako ikerlan horietako gehienak epidemiologikoak dira eta adingabeek drogekin duten harremanaren bilakaera ezagutzeko behar diren datuak ematen dizkigute.

Hori guztia hartu zen aintzat txosten honen ikuspegia eztabaidatzerakoan eta erabakitzekoan. Arartekoaren txostenak datu horiek erabiltzen ditu, jada ezagunak direnak, baina harago joan nahi du: nagusiki, egoera aldakor horien aurrean erakundeek (tokikoak, autonomikoak...) ematen dituzten erantzunak aztertzen ditu, emaitzak zein diren, eragileek emaitza horri buruz duten iritzia zein den, sendotu edo hobetu beharreko jardura ildoak zein diren... Beraz, haren ardatza –izenburuak berak adierazten duenez– erakundeen erantzuna da, euskal erakundeek kontsumo horien inguruan betetzen duten eginkizuna. Datuek erakusten dutenez, drogen eta nerabeen arteko erlazioa gero eta zabalagoa dago gure gizartean. Hala eta guztiz ere, ikasle gehienek noizbait drogak probatzen dituzten arren (batez ere tabakoa, alkohola eta cannabisa), egia da gehienek ez dutela drogak aldizka kontsumitzen jarraitzen denbora aurrera joan ahala. Hortaz, garrantzitsua da desberdintzea noizean behin kontsumitzea, maiz kontsumitzea, arrisku larriarekin kontsumitzea, mendekotasuna... Zorionez, nerabe askok ez du drogarik kontsumitzen edo noizean behin kontsumitzen du, askotan garapen prozesuari lotuta, esperimintatzeko edo taldean sartzeko, kide berdina izanik. . Honek ez du esan nahi etorkizunean droga-mendekotasuna duen pertsona izango denik.

Txostenak berezko izaera duten bi zati nagusi ditu: lehenengoa *Datuei* buruzkoa; eta bigarrena *Iritziei* buruzkoa, bertan jaso eta aztertu baititugu iritzia.

Txostenaren amaieran, laburpen gisa, kapitulu batzuk daude (*Ondorioak* ataleko 8. kapitulu edo *Arartekoaren Gomendioak* izeneko 9. kapitulu adibidez. Gainera, kapitulu batean (7.) Europako zenbait herrialdetan burutu diren programen berri ematen da, jardun onen adibide modura.

Datuak direlakoei dagokionez, txostenak ibilbide historiko bat egiten du gure inguruko kontsumo ereduaren gainean (1. kapitulua), ondoko droga-mendekotasun planen azterketa egiten du (2. kapitulua), ikasleek kontsumitzen dituzten substantziei buruzko datu nagusiak laburbiltzen ditu (3. kapitulua) eta 4. kapitulutik aurrera, argi eta garbi desberdintzen ditu esku hartzeko “eremu” eta “esparru” nagusiak. Oro har, prebentzio unibertzala eta prebentzio selektiboa. Eta, bi esparru horien barruan eskolako, familiako eta komunitateko giroak; izan ere, inguru horietan biltzen da gazte jendea nagusiki.

Iritziak zatiari dagokionez, 5.3 kapitulu edo atalarentzat arreta berezia eskatu nahi dugu: Kapitulu horretan nerabeen beren ahotsa bildu dugu. Hor nerabeek hainbat eta hainbat konturen gainean duten iritzia bildu dugu: zer den haientzat prebentzioa; nor den haien ustez toxikomanoa, zergatik kontsumitzen duten; drogak lortzea erraza zaien; adinak edo sexuak kontsumoan duen eragina; nola sailkatzen dituzte drogak “haiek”, nola baloratzen dute eragile sozialen esku-hartzea (polizia, eskola, familia, hedabideak...). Gai honetan eta haiek tartean hartzen dituzten guztietan, oso garrantzitsua iruditzen zaigu adingabeen iritzia jasotzea: haien iritzia zuzenean ezagutzea. Txosten honen VII. txostenean –gure haurren eta nerabeen ahotsa–, txosten berezi honetan islatu ziren nerabeen iritzien laburpen bat bildu da.

Nolanahi ere, jakina, beste gizarte eragile batzuen iritzia jasotzen ditu txostenak (5 eta 6. artikuluetan) hala nola familienak, irakasleenak eta adingabeekin lotutako beste gizarte erakunde batzuenak.

Txostenak argi nabarmentzen duenez, bi arlo handitan egin behar dira hobekuntzak premiaz:

- 1) Arlo honetan lan egiten duten erakunde guztien arteko koordinazioa.
- 2) Prebentzio selektiboa gehiago garatzea, berariaz arrisku egoera berezian dauden nerabeen zenbait sektorarentzat.

Arartekoaren lehen **gomendioen** ardatza, hain zuzen ere, bi arlo edo jarduera-ildo horiek dira.

Txosteneko 9. kapituluan bildutako 21 gomendioak ondoko bloke hauetan daude egitura-tuta:

- **Erakundeen koordinazioari eta lidergoari buruzko** 5 gomendio: Barne mailako nahiz sektoreen eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea planteatzea lehenasunezko helburu gisa droga-mendekotasuneko hurrengo planetan; Droga-mendekotasunen Kontseilu Aholku-emailearen eraketa eta dinamika berrikustea; egon dagoen pertsonalaren prestakuntza eta trebakuntza hobea sustatzea eta erraztea; ebaluazioa programen diseinuan sartzea eta poliziaren esku-hartzerako berariazko protokolo komun bat ezartzea adingabeak tartean direnean (1-5 gomendioak).

- **Prebentzio selektiboko jardueri buruzko** 6 gomendio: prebentzio selektiboko programak garatzea arriskuan dauden herritarrengan hutsune psikosozialak eta gizarte-hezkuntzako hutsuneak gainditze aldera; kontsumo arazoak eta justiziaren arloko arazoak dituzten nerabeentzako programak garatzea; osasun mentaleko problemak dituzten adingabeentzako programak garatzea; bereziki arriskuan egon daitezkeen sektoreentzako programak garatzea; adingabeak eskubide osoekin gizareratzea zailtzen dituzten gizarte-ekonomiako eta kulturako arazo eta zailtasun ugari biltzen diren zonaldeetan programa osoak garatzea eta adingabe nerabeentzako eta gazteentzako prebentzioko berariazko arreta baliabideei laguntzea, kontsumo arazoak edota jarrera arazoak badiutuzte eta prebentzio selektiboko programak haientzat onuragarriak ez badira. Horrelako baliabide berriak sortzea egon daudenak nahikoak ez badira (6-11. gomendioak).
- **Eskola eremurako** 3 gomendio: Erakundeen arteko konpromisoa lortzea (Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ekintzaren artean) babes faktoreak indartzeko baterako estrategia-rako; arreta berezia jartzea bereziki babesik ez duten herritarren sektoreak biltzen diren zentroetan, edo eskola porrot edo uzte tasa handienak biltzen diren zentroetan, eta LHI (egungo HLPi) ikastetxeetan burutzen diren eskolako prebentzio selektiboko programak baloratzea eta indartzea, edo antzeko ezaugarriak dituzten beste zentro batzuetan egin ahal izatea (12-14. gomendioak).
- **Famili eremurako** 3 gomendio: Familien prestakuntza, partaidetza eta konpromisoa sustatzea hainbat ekimenaren bidez, gurasoen eskolak edo beste antzeko batzuk; behar handienak edo arazorik handienak dituzten familiei laguntzea, baita bitartekotza programekin edo formulekin ere; kontsumo arazoak edota jarrera arazoak dituzten nerabeen eta gazteen familientzako berariazko arreta baliabideak bultzatzea, hain zuzen ere prebentzio selektiboko programek erantzun egokia ematen ez dutenean. Horrelako baliabide berriak sortzea egon daudenak nahikoak ez badira (15-17. gomendioak).
- **Aisialdi eremurako** 2 gomendio: Hainbat profesionalen aire zabalaren eta gizarte-kulturako animazioaren arloko lana onartzea eta bultzatzea, askotan baliabide gutxiarekin eta bereziki sektore arazotsuekin lan eginda, eta prebentzio selektiboko programak garatzea nerabeak eta gazteak izaten diren aisialdi guneetan (18 eta 19. gomendioak).
- **Nerabeen gizarte irudipenari eta partaidetzari buruzko** 2 gomendio: Informazioa zaintzea eta koherentziarik eza galaraztea nerabeei heltzen zaizkien mezuetan, bereziki publizitatearen bidez eta hedabideen ematen den informazioaren bidez jasarikoetan, eta nerabeek eurentzako programetan eta ekimenetan parte-hartze handia izatea erraztea. Prebentzio eragile gisa duten eginkizuna indartzea (20 eta 21. gomendioak).

5.2. Arrisku egoeran dauden haurrei buruzko txosten berezia

2010ean, *Arrisku egoeran dauden haurrei* buruzko txostena egitea amaitu da. Txosten hau idazten ari garen honetan, argitaratzeko fasean dago, eta aurreikuspenen arabera, 2011ko lehen hileetan ikusiko du argia.

Arartekoaren beraren baliabideekin egin da oso-osorik txostena (zehazkiago, Haurren eta Nerabeen Bulegoko erakundeko pertsonalarekin), eta azken urteetan eginiko beste txosten eta jarraipen askoren laburpena izateko sortu da. Azterturiko sektore bakoitzari buruzko ikuspegi sintetikoagoa eskaini nahi du, ez hain zehatza; ikuspegi ebolutiboa.

Txostenaren ardatza arrisku berezian dauden haurren eta nerabeen egoera da, zehazkiago Arartekoak azken urteetan arreta berezia jarri duen egoeretan.

Bost kapitulutan egituratu da txostenaren funtsezko zatia:

- Haurren ezaugarritzeari buruzko lehen kapitulua eta, ezaugarritzearen barruan, "arrisku egoeran dauden haurrei" buruzkoa.
- Marko juridikoa eta eskumenen markoa labur aurkezteko bigarren kapitulua.
- Txostenaren zatirik garrantzitsuenak, hots, hirugarren kapitulua, non arrisku egoera guztiak aztertzen diren. Beraz, adibidez: Arriskuan edo babesik gabe dauden adingabeak, lagundu gabeko adingabe atzerritarrak, adingabe arau-hausleak, hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleak, eskola porrota, haurren eta gazteen buruko osasuna...
- Diagnostikoari buruzko laugarren kapitulua, eta antzemandako zenbait arazo komun nabarmentzen dira.
- Arartekoaren gomendioei buruzko bosgarren kapitulua.

5.3. Beka: Adingabeak ala atzerritarrak? Lagundu gabeko adingabe atzerritarren jarduera politiken azterketa

Ararteko erakundeak azken urteetan adingabe atzerritarrei emandako berariazko arreta **lkerketa beka** batean ere islatu da Arartekoak lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoeran laguntza emateko izan duen berariazko arreta. Azken bi urtean egin da eta berriki aurkeztu da, non, aurkezturiko proiektuaren arabera, informazio gehigarria eman nahi zen, metodo jakin baten bidez. Izan ere, metodoak behar duen denbora dela-eta, gutxitan erabiltzen da: espedienteak aldi-aldi berrikustea. Hala, lagundu gabeko adingabe atzerritarren 329 espedienteko lagin bateko informazioa hustu eta ustiatu du, hiru lurralde historikoei eta 2006 eta 2007ko urteei dagokienez. Horretarako, harrera prozesuaren edo ibilbidearen ezaugarri funtsezkoenak biltzen dituen datu-bilketa fitxa erabili da.

- Adingabea eta bere datuak identifikatzea, hezur-proben emaitzak barne.
- Zentroan sartu eta lehenengo unean dauden baldintzak eta inguruabarrak.
- Adingabea erregulatzeko eta dokumentatzeko buruturiko administrazio gestioak (tutoretza bere gain hartzea; erroldatzea; pasaporte eskuratzea; bizileku eta lan baimenak eskuratzea, etab.).
- Adingabe bakoitzak babes sisteman jarraituriko ibilbidea.
- Jatorrizko familiarekin egoitzaren testuinguruan izandako harremanak.
- Heziketa edo eskolatze prozesua, edo lan munduan sartzeko aukerak.
- Osasuna zaintzea.
- Emantzipazio edo babes sistematik irteteko prozesua...

Horiei gai guztiei buruzko informazio zehatza ematen du lan honek, baina ez fidagarritasun berarekin horietan guztietan. Zeren eta ikerketak aipatu beharreko baldintzazaile bat izan baitu: azterturiko espediente edo historia pertsonal guztiek (multzoaren lagin adierazgarritzat hartutako 329 espediente pertsonalak, Lurralde bakoitzarekiko proportzionalak) ez zekarten beti beharrezko informazio guztia. Are gehiago, funtsezko zenbait arlotan oso informazio gutxi ematen zen, hots, informaziorik gabeko espediente gehiago zegoen informazioa zutenak baino.

Nolanahi ere, eta muga hori gorabehera, lanak datu asko ematen ditu, elkarren osagarriak, berriak batzuk, erabili ohi den informazioari dagokionez. Honako txosten hau idazteko unean, ikerketaren ondorioak laster aurkeztekotan dira egin diren aurreikuspenen arabera eta, beraz, Arartekoaren web orrian aurkitu beharko dira.

**HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO
KULTURA SORTZEN
LAGUNTZEKO JARDUERAK**

6. HAURREN ESKUBIDEAK ERRESPETATZEKO KULTURA SORTZEN LAGUNTZEKO JARDUERAK

6.1. Gizarte laguntzaileekiko lankidetzak

Arartekoaren erakundeak, eta berariaz Haurren eta Nerabeen Bulegoak, honako dokumentu honen lehen atalean aipatzen denez, aukera garbiari eusten dio bere jardueraildoen artean: haurren eta nerabeen arloan lan egiten duten gizarte eragileekiko lankidetzak. Dela haien eskubideak ezagutarazteko edo horien alde egiteko, dela egoera bereziki arazotsuan diren adingabeen sektoreentzat askotan izaten diren zenbait baliabideren kudeaketan.

Lankidetzak harreman horiek urtero gauzatzen dira, eta hainbat formatu erabiltzen dira: bilerak, bisitak, kolaborazioak dokumentuetan edo proposamenetan, informazio-eskaerak, etab. Elkarrekin edo erakunde hauek: [EDEX](#), [Pantallas amigas](#), [SOS Arrazakeria](#), Picor Taldea, [Harresiak Apurtuz](#), Haurrei eta Nerabeei Laguntzeko Elkarrekin (APIA), [Bazen behin clown](#), Argilekuko Ahizpa Hirugarrendar Kaputxinoak, Hernaniko Zikuñaga zentroko [Nuevo Futuro Elkarrekin](#), Iturriotz-Azpi zentroko [Dianova](#) taldea, [Fernando Buesa fundazioa](#), [Gestionet](#), Haurren Tratu Txarren Prebentzioarako Elkarrekin ([FAPMI](#)), Gipuzkoako Banaturiko Aitaren Elkarrekin ([AGIPASE](#)), [Kale dor Kayiko](#)...

Atal honetan, honako txosten berezi hau gai honetan inplikaturiko elkarrekin guztiei edo nerabeen programak dituzten elkarrekin guztiei bidali izana aipatu behar dugu: [EAEko erakundeekin jarduna nerabeen droga kontsumoen arloan](#). Oraingoan, norabide bakarreko erlazioa da ageri-agerian, baina harreman egonkorragoak eta hobeagoak zabaltea errazten du.

Arlo zehatzean edo hezkuntzarekin loturikoan, honako hauek izandako harremanak eta trukeak aipatu behar ditugu: ikastetxeekin, hainbat ikastetxetako gurasoen elkarrekin, zuzendaritza taldeekin, unibertsitateko ikasleekin eta irakasleekin, edo sektore jakin batzuetako hezitzaile taldeekin. Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseilua eratzeko prozesua dela-eta, harremanetan izan gara askotan: lehenik eta behin, jardun eta dinamika parte-hartzaile ezagunak eta, neurri batean, finkatuak dituzten ikastetxeen gaineko orientazioa ematen duten hezkuntza zerbitzuetako arduradunekin; bigarrenik, balizko ikastetxe hauetako arduradunekin eta behin betiko aukeraturikoekin; hirugarrenik, Kontseiluko 12 nerabeen gurasoekin.

Azkenik, era berean, atal honetan sartu ditugu ikerketa eta azterketa taldeekin izandako bilerak eta harremanak, zenbaitetan jakintza kudeatzen duten unibertsitateekin edo ikastetxeekin lotuta, hala nola [Droga-mendekotasunen Deustu Institutuarekin](#) edo Eguía-Careaga Fundazioaren [SIIS](#).

6.2. Erakundeekiko eta erakundeetako baliokideekiko lankidetzak

Era berean, askotarikoak dira erakundeetako edo baliabide publikoetako ordezkari politikoekin eta teknikariekiz izandako lankidetzak guzuriak eta unekak. Ondoren aipatuko ditugu zenbait solaskide:

- Lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoeran interesa duten zenbait parlamentario.
- Eusko Jaurlaritzaren Lan eta Gizarte Gaietako Saileko sailburua eta Gizarte Gaietako sailburuordea.
- Immigrazio zuzendaria eta lagundu gabeko adingabe atzerritarrei buruzko “[Patrikako ametsak](#)” izeneko liburuaren ikerketa-taldea.
- Droga-mendekotasunen zuzendaria.
- Ijitoen Euskal Kontseilua.
- Heldu-ko (Etorkinei Arreta Juridikorako Zerbitzuko) koordinatzaileak.
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko arduradunak.
- Hezkuntza Saileko Ikuskaritza.
- Eskola 2.0 Programaren taldeko arduradunak.
- Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko eta [Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakunde-ko](#) arduradunak.
- Eusko Jaurlaritzako Gazteriako zuzendaria.
- Gobernuak Araban duen ordezkariordea.
- Arabako adingabeen fiskala eta fiskal burua.
- Gipuzkoako adingabeen fiskala eta fiskal gorena.
- 3 foru aldundietako Gizarte Ekintza eta Gizarte Politika Saitetako Haurren Zerbitzuko arduradunak.

Aipamen berezia merezi dute aurten Eusko Jaurlaritzako [Famili eta Gizarte Politikako Zuzendaritzarekin](#) hasitako harremanek. [Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren](#) eta Gizarte Gaietako Sailordetzaren asmoak eta lehentasunak aurretik ezarri ondoren, hainbat topaketa izan dira Famili eta Gizarte Politikako zuzendariarekin, haurren eta nerabeen egoerari buruzko diagnostikoa konpartitzeko eta erkatzeko, erakunde bakoitzak aurreikusitako programak eta jarduerak ezagutzeko eta dagoeneko desagertuta dagoen Haurren eta Nerabeen Aldeko Erakundearen gaiak konpontzeko, zeren eta hauxe ezarrita baitago Haurren eta Nerabeen Arretaren eta Babesari buruzko Legea aldatu duen [abenduren 23ko 3/2009 Legean](#). *“Haurren eta Nerabeen Aldeko Erakundearen izapidetzen ari diren espedienteak, haurren eta nerabeen eskubideen urraketen eta mehatxuen ziozko kexei eta salaketei buruzkoak, Ararteko Erakundeari helaraziko zaizkio, jakinaren gainean egoteko eta ebazpena emateko; gainerako espedienteak Lan eta Gizarte Gaietako Sailari helaraziko zaizkio.”*

Bi erakundeen jarduera zehatz bakoitzean gelditu gabe, gustatuko litzaiguke, ordea, Zuzendaritzak Bulegoarentzat bereziki interesgarria den ekimen bat azpimarratzea: Haur eta nerabeentzako laguntza guzuriak –orientazioa, aholkularitza eta informazioa–, web orri honen eta doako laguntza telefono baten bidez egituratua, hots, [Zeuk esan!](#) ekimenaren bidez.

Maiz gertatzen dira **beste autonomia erkidego batzuetako herriaren defendatzaileen** erakundeetako haur eta nerabeen arloekiko harremanak. Hori dela-eta, orain bereizita emango ditugu horietako zenbaitekin izandako harremanak, bereziki garrantzizkoak:

- Lagundu gabeko adingabe atzerritarrei buruzko tailerra. [Herriaren defendatzailea](#). Madril, urtarrilak 27.
- EAEko arartekoaren eta [Andaluziako herriaren defendatzailearen](#) lan-taldea, bi lurraldeetan buruko osasun arazoak dituzten adingabeen arretari buruzkoa. Sevilla, martxoak 22 eta 23.
- Balio demokratikoak hezkuntza prozesuan izateari buruzko mintegia. [Herriaren defendatzailea](#). Madril, maiatzak 5 eta 6.
- [ENOC](#) Urteko Hitzaldia (European Network of Ombudspersons for Children). Estraburgo, urriak 7 eta 8.

Azken erakunde horrekin lotuta, Europako haurren defendatzaileen sarean onartzeko eskaerarekin du zerikusia 2010eko gertaerarik nabarmenenak, hain zuzen ere gogoetarako gu-
neak partekatuzeko, informazio trukerako modua izateko eta jardun onak eratzeko, Europako eremuko herrialdeetako haurren eta nerabeen egoera ezagutzeko, etab.

6.3. Ekintzetan parte hartzea

Elkarteekin eta erakundeekin izandako lankidetzak horren eremuan, Ararteko erakundeak berak zuzenduriko ekimenak direla-eta, Arartekoak berak edo erakundeko pertsonalak gure Erkidegoko nahiz kanpoko haurren topaketetan eta eztabaidetan izan duen parte-hartzea nabarmendu daiteke. Hauexek dira 2010ean izandako partaidetzarik nabarmenenak, orain artean dokumentu honetan aipatu ez direnak:

- *Giza Eskubideei buruzko VI prestakuntza mintegia hezitzaileentzat*. [EHU](#). Donostia, otsaila.
- *Aniztasun afektibo eta sexualeko hezkuntzari buruzko I. jardunaldiak*. [Errioxako Unibertsitatea](#). Logroño, martxoak.
- Hitzaldia [Santo Tomas Lizeoan](#). Donostia, apirila.
- [Valsain Fundazioaren](#) mintegiak, *balio demokratikoen alde egiteko eta horiek sustatzeko*. Madril eta Gasteiz, maiatza eta azaroa.
- *Herritartasun Digitaleko Nazioarteko I. Kongresua*. Diarivasco.com, Eusko Jaurlaritzaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren bultzadaz. Donostia, apirila.
- *Lagundu gabeko adingabe atzerritarrei buruzko profesional arteko I. jardunaldiak*. [Gipuzkoako SOS Arrazakeria](#). Donostia, maiatza.
- Familia, irakasle eta gazteentzako *Bizikidetzari buruzko FECAPP Eskuliburuak* aurkezteko ekitaldia. [FECAPP](#). Bilbo, maiatza.
- *Adingabearen eskubideak eta zaintza partekatua*. [Kidetza](#), Banaturiko Aiten Elkarte-ko Euskal Federazioa. Gasteiz, maiatza.

- Agerraldia [Eusko Legebiltzarreko](#) Kultura eta Gazteria Batzordeko Mahaiaren aurrean, Gazteriaren Euskal Legearen proiektua eta horren eragina baloratzeko. Gasteiz, ekainak 4.
- EHUren udako ikastaroak: *Lana, familia eta bizitza pertsonala bateratzea laguntzeko publikoak berrikustearen bidean*. Donostia, uztailak 9.
- *Lagundu gabeko adingabe atzeritarren lege arazoei buruzko mahai-ingurua* Kongresuan: *Adingabeak eskubiderik gabe?* EHUko [Gizarte Laneko Eskola](#). Gasteiz, azaroa.
- *Tratu txarrak jasan dituzten haurren X Estatu Kongresua*. Haurren Tratu Txarren Prebentziorako Elkarleen Federazioa (FAPMI). Sevilla, azaroa.
- [Galdakaoko Udalaren](#) VI. Berdintasun Jardunaldiak: *“Nerabeak, gizarte sareak eta generoa”*. Galdakao, azaroa.

Aipaturiko horietan ekitaldi guztietan, hizlari gisa hartu da parte, baina partaide gisa ere hartu izan da parte beste zenbait ekitaldi interesgarritan. Hona hemen kategoria horretako ekintzarik nabarmenenak:

- *Gol bat hezkuntzaren alde* munduko kanpaina. Eibar, apirila.
- Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari eta haurren lanari buruzko Nazioarteko Kongresua. [Proiektu Solidarioa](#). Toledo, ekaina.
- Haurren eta nerabeen eskubideei buruzko Munduko IV. Kongresua. [Defensores Pro-CDN](#). Puerto Rico, azaroa.

6.4. Ikastetxeetara igorritako materialak

Ararteko erakundearen hogeitun urteotan, etengabe egin eta zabaldu dira haurren eskubideez jabeazteko eta horiek ezagutarazteko materialak haurrentzat eta nerabeentzat eurentzat. Hainbat formatu izan dira: [Haurren Eskubideen Konbentzioan](#) ezarritako eskubideak sakon lantzea ahalbidetzen duten unitate didaktikoak, berariazko gaiei buruzko ikus-entzunezko materiala, foiletoak, DVDak, egutegiak edo orri-markagailuak. Hezkuntza sarea erabili ohi da hartzaileengana iristeko.

Azken urte honi dagokionez, **Giza Eskubideen Nazioarteko Eguna** abenduaren 10ean ospatu behar zela-eta, Arartekoak kartel baten 5.600 ale eta eransgarri formatuko 180.00 egutegi argitaratu zituen, eta EAEko lehen edota bigarren hezkuntzako ikastetxe guztiei bidali zitzaion.

6.5. Adingabeentzako web orria

Nolanahi ere, orain arte erabili ez den bide bat Ararteko erakundearen web orria bera izan zen. Helduentzat sortua da, eta aurten hasita, adingabeentzako berariazko atari bat bilduko du. Hain zuzen ere 6 eta 11 urte bitarteko adinekoentzako gunea da, eta hauexek eskaintzen ditu: Arartekoaren erakundeari eta Haurren eta Nerabeen Bulegoari buruzko informazioa:

zer diren, zer egiten duten, nork egiten duen lan; haurren eskubideei eta Konbentzioaren historiari buruzko informazioa; haurren eskubideen edukiari buruzko jolasak eta jokoak; gai bereko beste orri batzuetarako edo haurren laguntzari buruzko orrietarako estekak; proposamen didaktikoak gurasoentzat eta hezitzaileentzat. Izan ere, orrian nabigatzea lagunduta egin daitekeela irizten zaio.

2010ean, ekimen hori sortu, egin eta abiarazi da, seguru asko martxan zegoena txosten hau argitaratzen denerako.

6.6. “Gure eskubideak” eskolako lanen V. Lehiaketa

“**Gure eskubideak**” **eskolako lanen V. Lehiaketaren** barruan, EAEko Lehen Hezkuntza zein Bigarren Hezkuntzako ikastetxeentzat betiere, hainbat lan aurkeztu zen: Lehen hezkuntzako 9 ikastetxe eta bigarren hezkuntzako 8 ikastetxe. Horien artean, arartekoak izendaturiko eta irakaskuntzarekin eta giza eskubideekin lotutako pertsonen batzordeak –bertan hartu zuten parte bi ikasleek ere–, aurkezturiko materialak eta programak aztertu ondoren, deialdian aurreikusitako sarietako bat esleitzea erabaki zuen, eta hutsik adierazi zuen Bigarren Hezkuntzako Saria.

Bilboko **Zamakola LHI** ikastetxeari eman zitzaion Lehen Hezkuntzako Saria, “*Haurren eskubideekin konpromisoak hartzen eskolan*” lanagatik. Lehen Hezkuntzako 6. mailako hiru gelek Herritartasunerako Hezkuntza irakasgaien eginiko lanaren laburpena zen aurkezturiko proiektua.

Jardun onaren etsenplutzat balioetsi zuen batzordeak proiektua, baita haurren partaidetza sustatzeko eginiko lan sistematikoa, erabilitako askotariko metodologia (proiektuen araberako lana, teknologia berriak erabiltzea, auzuneko elkarleen partaidetza...) eta haurren eskubideetarako hurbilketa ere, betiere ikasleek ikastetxean duten esperientzia bera abiapuntu hartuta.

Lehiaketan parte hartu duten ikastetxe guztiek jaso dute partaidetza-ziurtagiria, eta **arartekoak eman zien saria azaroaren 16an**.

7

GURE HAURREN ETA NERABEEN AHOTSA

7. GURE HAURREN ETA NERABEEN AHOTSA

[Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak](#), [Nazio Batuek](#) 1989an onartutakoak, zenbait eskubide aitortzen dizkie 18 urtetik beherako pertsoneri: informazioa jasotzeko eta parte hartzeko eskubidea, beraiei dagozkien gai guztietan iritzia emateko eskubidea, eta beraien iritzia aintzat hartuak izatekoa.

Orain arte Ararteko erakundeak hainbat bide erabili izan ditu eskubide horiek bete daitezten. Adibidez:

- haurrei buruzko txosten berezietan, haien iritzi eta proposamenak esplizituki jaso ditugu –normalean eztabaida-taldeen, elkarrizketen edo bizitza-historien bidez– eta baliozkotzat jo ditugu;
- nerabeak hartzeko edo neurriak betetzeko zentroetara aldizka egiten ditugun ikus-taldietan, elkarrizketak egiten dizkiegu edo bildu egiten gara bertan dauden nerabe guztiakin edo batzuekin, haien balorazioak eta proposamenak ezagutzeko;
- era askotako material didaktikoak argitaratu eta ikastetxeetan banatu ditugu, haurren eskubideak ezagutarazi eta haienganako sentsibilizazio handiagoa lortzeko asmoz;
- Arartekoaren web orrialdean adingabeen gaineko berariazko gune bat eratu dugu...

Illo horretan, kapituluko bigarren zatian, nerabeek eginiko eta honako txosten honetan bildutako ekarpen nagusiak aurkeztuko ditugu: [EAEko erakundeen jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan](#). Aurten bertan aurkeztu da txostena.

Hala ere, horietan jarduera guztietan ezaugarri komun bat dago: unean unekoak izatea, helburu zehatzari eta eduki sektorial bati lotuak (eskolako bizikidetzak, drogak, balioak edo teknologia berrien erabilera...), eta haurren eta nerabeen iritzia bertatik bertara ezagutzea eta aintzat hartzea ahalbidetuko duen gune baten falta sumatzen da, gune egonkorrago eta jarraipena izateko sorturiko gunearen falta. Horri ematen dio erantzuna Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseilua martxan jartzeak; ondoren aurkeztuko dugu Kontseilua.

Hori guztia, alde batetik, haurrek eta nerabeek entzunak izateko eskubidea dutelako, ares-tian genioenez, baina haien iritzia kontuan hartuta eta haien partaidetza bilduta, seguru asko egokiagoak eta arrakastatsuagoak izango baitira politika publikoak, jarduteko programak, Arartekoaren beraren ekimenak... haiei dagozkien gaietan.

7.1. Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseilua

2010eko ekainaren 25ean, Arartekoaren Haurren eta Nerabeen Kontseilua eratzeko bilera izan zen Gasteizen. Eraturiko Kontseiluak, 2010-2011 eskola ikasturtean, parte hartzeko, erkatzeko eta kontsultarako organo gisa jardungo du, esperimentu lez.

Ondoren, hauexek azalduko dira: Kontseiluaren funtzio eta helburu nagusiak, eraketa eta kideak hautatzeko jarraituriko prozesua, laneko dinamika eta funtzionamendu-arauak, baita orain arte eginiko bi bileren laburpen bat eta kontseilariak eginiko ekarpenak ere.

7.1.1. Kontseiluaren funtzioak eta helburuak

Kontseiluaren eginkizun nagusia Arartekoari aholku ematea izango da, batik bat adingabeei modu zuzenagoan eragin diezaieketen gaitetan edo ekimenetan. Beraz, kontseilu hori sortuz, adingabeen partaidetza-bide berri bat eduki nahi dugu, egonkorragoa, beste batzuen osagarria. Horren bidez, gutxienez nerabe-talde txiki batek bere hitza, iritzia eta proposamenak helarazi ahal izango dizkio Arartekoari.

Horrela, funtsean helburuok lortu nahi ditugu:

- Arartekoak erakundeei edo [Eusko Legebiltzarrari](#) berari egiten dizkien proposamen, ebazpen edo txostenetan, adingabeen ikuspegia ere txertatu ahal izatea.
- Beraien eskubideez eta parte hartzeko eta defendatzeko dituzten baliabideez duten iritzia jaso ahal izatea.
- Haiekin kontrastatu ahal izatea Arartekoak haurrei buruz egin nahi dituen ekimenak, proiektuak, material didaktikoak...
- Haur eta nerabeei ardua zaizkien edo beraien eskubideak defendatzearekin zerikusia duten gaiak direla eta, beraien iradokizunak, proiektuak edo jarduera-ildoak jasotzea.

7.1.2. Kontseilariak hautatzeko prozesua eta eraketa

Dauden formula guztien artean, erraztasuna eta bideragarritasuna gogoan, formula jakin bat hautatu dugu jarduneko lehen urterako gutxienez. Formula horren bidez ez dugu lortu nahi partaide bakoitzaren "ordezkaritza", baizik eta aldi berean kide gutxikoa eta behar bezain anitza izango den osaera.

Hauexek osatzen dute lehen kontseilua:

- 12 pertsonak, 6 neskek eta 6 mutilek;
- DBHn eskolatuak;
- hiru lurralde historikoetakoak: 2 Arabakoak, 6 Bizkaikoak eta 4 Gipuzkoakoak;
- Arartekoak aukeraturiko zenbait ikastetxek proposatuta izendatu dira.

Horretarako, hezkuntza-zerbitzuetako zenbait profesionalek eta arduradunek emandako informazioa kontuan hartuta, DBHko ikastetxe guztien artetik, lurralde eta sare ezberdinetatik talde txiki bat aukeratu zen, irizpide bakarrarekin: parte hartzeko barne-dinamikak zituzten eta proiektu honetan laguntzeko prest zeuden ikastetxeak izatea.

Aukeratutako ikastetxe bakoitzean, arduradunari edo gai honetaz hitz egiteko izendatu zuten pertsonari Kontseilua sortzeko proiektua azaldu zitzaion eta ikasleen artean neska bat eta mutil bat aukeratzeko eskatuko zitzaion, bere ustez ezaugarri hauek baldin bazituzten: ahalmen kritikoa, sormena, enpatia, hausnartzeko, ikaskideen artean eztabaidatzeko eta proposamenak egiteko ahalmena..., eta, ahal bazen, ikastetxean edo ikasgelan nolabaiteko konpromisoa edo ordezkaritza baldin bazuten.

Nolanahi ere, ikastetxearen beraren esku geratu zen proposaturiko bi pertsonak nola aukeratu (edo baita beste pertsonaren bat ere, bietako batek ezezkoa emanez gero, hura ordezkari zezan).

Kontseilua abiarazi baino lehenagoko oinarrizko ezaugarrietako bat hautaturiko adingabeek nahita parte hartzea zen, baita gurasoen edo tutoreen baimena izatea ere. Beraz, horiek hautatu ondoren eta Kontseilua eratu baino lehen, Arartekoak neska-mutil bakoitzarengana eta guraso edo tutoreengana jo zuen, beren seme-alabek Kontseiluan parte hartzearekin ados zeudela adieraz zezaten, sinadura bitartez.

7.1.3. Laneko dinamika eta funtzionamendu-arauak

Kontseilu hori partaidetzarako tresna baliagarria izatea nahi dugu, bai Arartekoarentzat, bai bere aholkularientzat ere, eta horretan ahalik eta denborarik laburrena erabiltzea eta ematea. Aurrez aurreko bilerak beti eskola-ordutegitik kanpo egiten dira eta bilera-kopurua eta joan-etorriak ahal beste murrizten dira. Presentziako saioen osagarri, kontseilariak egiten duten "etxeko lana" dago, eta horretarako, teknologia berriak erabiltzen dira ahal den neurrian: bilera aurreko galdetegiak bidaltzea; informazioa bilatzea; proposamenak trukatzeko; bilera deialdia; gutunak bidaltzea...

Hasierako une hauetan, ez da beharrezkotzat jo Kontseiluaren funtzionamendu-arauak araupetzen dituen arautegi formalik izatea. Hala ere, Kontseilua eratzeko bileran, oinarrizko zenbait arau proposatu ziren: erabateko askatasuna nork bere iritzia azaltzeko, betiere gainontzekoak errespetatuz eta elkarriketarako arauak betez, Arartekoak isilpekotasuna bermatzea, izendapenen iraupena...

7.1.4. 2010ean eginiko bilerak

1) Kontseilua eratzeko bilera.

Kontseilua eratzeko bilera Gasteizen egin zen 2010eko ekainaren 25ean. Bilera hartan, Arartekoaren erakundea aurkeztu zitzaion kontseilariari, erakunde horretaz dakitena abiapuntu hartuta, eta hainbat kontu argitu zituen jarduera-eremuaren, Eusko Legebiltzarrak Arartekoa hautatzearen eta Arartekoaren gomendioak nahitaez bete behar ez izatearen inguruan, besteak beste.

Lehenbiziko bilera hartan, gutxieneko funtzionamendu-arauak erabakitzeaz gain, Kontseiluak jorra litezkeen gaien proposamena egin zitzaien kontseilariei. Horretarako, hamar gai dituen galdetegi bat eman zen, haien interesak zein diren aztertzeko. Interes gehien eragin zuten gaiak honako hauek izan ziren, ordenean:

- Desberdintasunen onarpena eta ukatzea (sexua, jatorria, orientazio sexuala, etnia, hizkuntza, ahalmena...).
- Prebentzioa eta drogak kontsumitzea (tabakoa, alkohola, cannabisa...).
- Eskolako elkarbizitza (irakasleria-ikasleria erlazioak, berdinen arteko erlazioak, bullying, elkarbizitarako arauak...).
- Hirugarren postuan ere, erlazioetan indarkeriaren onarpena eta ukatzea. Biktimei laguntzea.

2) 2010eko urriaren 1eko bilera

Proposatutako lehen gaia Kontseiluaren laneko lehen bileran landu zen.

Aldez aurretik, kontseiluko kideei laneko dokumentu bat bidali zitzaien (galdetegi bat), gaiari buruzko gogoeta orientatzeko. Dokumentu horrek adierazten duenez, asmoa ez da idatziz erantzutea, baina gomendagarria da oharrak idaztea, ekarpenak gogoratzeko eta batzarrera prestatuta ekartzeko. Era berean, batzarra baino lehen egin beharreko lanerako aukerak areagotu ziren (banakako lana, kontseiluko beste kide batekin, ikasgelako edo institutuko beste ikaskide batzuekin...).

Galdetegiak 10 galdera zeuzkan, eta hiru multzo edo une ezberdin: lehenengo multzoan, aztertutako arazoaren analisis egin nahi zen; bigarren multzoan, arrazoietan sakondu edo arazoa azaldu nahi zen; hirugarrenean, konponbideak bilatu nahi ziren.

Gaien hasierako proposamenean parte hartu zuten hamar kontseilu-kideetatik zazpik uste zuten haxe zela gairik interesgarriena. Gai hau zergatik den hain garrantzitsua galdetu zitzaien. Hona hemen erantzunetako batzuk:

- *“Gai honek gaurkotasan handia duelako. Albisteak jartzen dituzu eta honelakoak agertzen dira: arrazakeria edo genero indarkeria.”*
- *“XXI. mendean honelako txorradak daudelako. Ikuspegi logikotik ez dauka zentzurik pertsona baten aurka egiteak larruzala kolore ezberdinekoa duelako edo beste sexu batekoa delako; gutxiesteak ez du zentzurik.”*

Galdetu zitzaien lagunen arteko harremanean, beren giroetan (ikastetxean, kirolean, aisialdian...) pertsona ezberdinak gaitzesten duen portaerarik ikusten duten. Hauek izan ziren erantzunak:

- *“Ahulenari egiten zaio eraso, ez duzu egingo zu baino indartsuago den baten aurka. Beti dago ahulenaz, berriaz... abantaila hartzen duen norbait. Txartoen dabilenari ez zaio laguntzen, normalean zapaldu egiten dute.”*
- *“Ezberdina delako ahultzat jotzen dute.”*

Arartekoak orain hilabete batzuk argitaratu zuen *Adingabekoei balioak transmititzea* izeneko txostena. Hor grafiko batzuk ageri dira, lehen eta bigarren hezkuntzetako 1.829 ikasleko lagin batekin lortutako datuak erakusten dituztenak. Ezberdinak direnenganako onarpen edo gaitzespen jarrerak analizatzeko, lau ezaugarri taldekatu eta aztertu ziren: nesken eta mutilen arteko berdintasuna, ezintasunak dituzten pertsonen onarpena, etorkinenganako jarrera eta homosexualenganako jarrera. Grafikoetan ageri diren datuek, adin bereko neska-mutilei buruzkoak, haiek beren inguruan ikusten duten errealitatea islatzen ote duten jakin gura genuen. Hau esan zuten:

- *“Dena berdin antzean, homosexualitatea izan ezik. Ez dut uste hain gaitzetsita dagoenik.”*
- *“Bai, jendeak ez du homosexualen aurka egiten. Agian gay edo marikoi irainak erabiltzen dituzu maritxua den mutil baten aurka, baina ez diozu inoiz gay deituko gay bati. Besteengandik bereizteko irain bezala erabil dezakezu. (...) Ez dut inoiz ikusi homosexual baten aurka egiten denik.”*
- *“Iraina ez den arren, oso iraingarria izan daiteke.”*

Gizonen eta emakumeen homosexualitatea onartzeko edo gaitzesteko orduan ere genero ezberdintasunak omen daude:

- *“Mutilek gehiago egiten dute maritxuen aurka, neskek lesbiana izan daitezkeen nesken aurka egiten dutena baino gehiago (...). Neskok ez diogu hainbeste kasu egiten horri.”*

Azterlanaren ondorioetako bat da neskek oro har onarpen maila handiagoa dutela mutilek baino aztertu diren lau ezaugarrietan (immigrazioa, homosexualitatea, generoa eta ezindutako pertsonak). Iritzia galdetu zaienean, kontseilu-kide guztiak ados agertu dira baieztapenarekin. Ezberdintasun horien arrazoiak galdetzean, hauxe erantzun dute:

- *“Beti izan da horrela.”*
- *“Gizona gogorragoa da, ez da hain tolerantia.”*

Gainera, orokorrean, aztertu diren ezaugarrietan pertsonen eskubideenganako errespetua dutenen edo ezberdintasunak onartzeko jarrera dutenen proportzioa handiagoa da ezberdintasunen aurrean itxiak direnena baino (lautik batek ezberdintasunak gaitzesten ditu).

Beste ezberdintasun batzuei dagokienez (lodia izatea, familia txirokoa izatea edo guraso bakarreko familia batekoa izatea...), jakin nahi zen hori haien arteko gaitzespenerako arrazoiak zen:

- *“Nire ikasgelan bai. Edozein akats txiki ikusi, eta berehala hasten dira iseka egiten eta baztertzen. Eta ikasturte osoan izango da horrela. Bati buruz, adibidez, galleta aurpegia daukala diote. Eta hamar ezizen inguru jarri dizkiote.”*
- *“Nire kasuan... berdin konpontzen naiz lodia den pertsona batekin edo lodia ez den batekin, baina nire ikastetxean egia da mutilek errespetu gutxiago dietela lodiei.”*

(Itxuraren garrantziaz). *Bai, mutilen artean gehiago. Mutilek errespetu gutxiago die- te fisikoki ezberdinak diren mutilei.*

- *“Mutilek neska lodien aurka ere egin dezakete, baina nik uste dut sexu beraren ba- rruan gertatzen direla honelako gauzak. Hau da, neskek nesken kontra egiten dugu, eta mutilek mutilen aurka.”*

Onarpen eta gaitzespen mailak ezberdinak dira, ezaugarri bat edo bestea aztertzearen ara- bera. Haien ustez zein den onartuena galdetu zitzaion:

- *“Onartuena, nesken eta mutilen arteko ezberdintasunak. Izan ere, jaiotzen zarene- tik, mutilen eta nesken artean hazten zara”* (batzartutakoetako batzuek baietz esan dute).

Eta gaitzetsiena:

- *“Nik uste dut Down sindromea dela, normalean ikastetxeetan Down sindromea daukan jendea ikasgela berezietan egoten baita.” Adibidez, gurean, uste dut ez da- goela Down sindromea daukan pertsonarik ikasgela arruntetan. Ikasgela bereziak daukate; horregatik, ez zara haiekin harremanetan sartzen.”*
- *“Nik uste dut ezberdintasunik gaitzetsiena ezaugarri fisikoena dela.”*

Aztertu diren lau ezberdintasunei buruz, azterlan horretan zenbait galdera egin ziren (ikusi [Adingabekoei balioak transmititzea](#) izenburuko txostena, Arartekoak argitaratua, 80–89. grafikoak). Guztietan ez zegoen gaitzespen maila bera. Gaitzespen mailarik handiena egu- neroko bizimoduan, zuzeneko esperientzia pertsonalean, zuzenean eragiten duten kon- tuetan gertatzen da. Batzarrean dauden pertsonarik gehienek uste dute errazagoa dela tolerantzia-jarrera izatea plano teorikoan, zuzenean norberaren esperientzian eragiten due- nean baino.

Eskatu zitzaion beren esperientzia pertsonalean ikusten zuten onarpen mailari buruz go- goeta egin dezatela (aisialdian, kirolean, eta abar). Kirolari dagokionez, beste generokoak onartzeaz eta neska/mutila berdintasunaz izan zuten elkarrizketaren zati bat transkribatuko dugu jarraian:

- *“Ez dago txarto ikusita neskek futbolean jokatzea. Baina arraroa da. Baina adibidez erugbian jokatzea...”*
- *“Nire ahizpa/arreba txikia da baina futbolean jokatzen du, mutilekin. Oso ondo moldatzen da mutilekin. Eta oso onartua dago.”*
- *“Nik izotz-hockeyan jokatu dut. Kontaktu handiko kirola da eta noizbait neskaren baten aurka jokatu dut. Eta arraroa egiten zait beti. Nik beti jokatu izan dut hocke- yan mutilen talde batean, baina orain neska bat iritsi da eta zaila da ohitzea. Lehen edozein lelokeria egin genezakeen baina orain neska bat dago taldean eta... hobeto portatu beharko gara.”*
- *“Normalena gaur egun neska batek futbolean jokatzea da. Bana ez dugu elkarrekin jokatzen. Gizonen futbola eta emakumeen futbola daude. Ez gara nahasten.”*

- *“Normalagoa da neska batek gizonen kirol bat egitea gizon batek nesken kirol bat egitea baino.”*
- *“Uste dut arraragoa dela mutil bat neskek egin ohi duten kirol bat egiten ikustea alderantzizkoa baino.”*
- *“Ni patinaje artistikoa egiteko egon nintzen, teknika hobetzeko. Ez nuke arazorik izango. Nik neure buruarekin ez nuke arazorik izango. Besteek... hori beste kontu bat da. Iseka egingo zidaten, noski. Argi daukat. Orain edozein akats txikirengatik jendeari barre egiten badiote, ni patinaje artistikoan sartu banintz barre egingo zidaten. Ez da txarra nesken kirol bat egitea.”*
- *“Ez da nesken kirola. Kirola da. Kirola mistoa da.”*

Ezintasuna onarpen mailarik handiena duen ezberdintasuna da eta immigrazioa, ijitoekin batera, gaitzespen gehien daukana. Interesgarria da jakitea gaitzespen eta onarpen jokabideetan nolako eragina daukan ikastetxeetan honelako errealitateak bizitzeak. Izan ere, kasu batzuetan arazoa aurreiritziak izatea izan daiteke, baina beste batzuetan, eguneroko esperientzia izan daiteke. Ikaskide ijitoen onarpenari eta gaitzespenari buruz hauek izan dira iruzkinetako batzuk:

- *“Gure institutuan zenbait ijito daude. Baina ijitoei errespetu gehiegi izaten zaie. (...) Beldurraren eraginez. Besteek onartzen ez zaizkien gauzak onartzen zaizkie. Baita irakasleek ere.”*
- *“Beldurraren eraginez. Nik ez nituzke ijitoak etorkinen bloke berean sartuko. Etorrinak jende normala dira. Beste arraza batekoak izango dira, beste lekuren batetik etorriko dira... Ijitoei buruz beti pentsatzen duzu labana daramatela patrikan eta eskolatik kanpo ikusiko zaituztela. Horregatik, hobe da haiekin arazorik ez izatea, dirua lapurtuko dizute eta. Gero Hego Amerikako herrialdeetako immigrazioa dago. Erabat ezberdina da, ezberdinak dira.”*
- *“Ijitoei eta errumaniarrei beldurra die jendeak.”*
- *“Ni auzoan ijitoekin bizi izan naiz eta ez dira arriskutsuak. Nire ikastetxean bi zentro daude. Ikasle gatazkatsuak eta ijitoak haietako batera joaten dira. Zentro hori auzo arazotsuan dago, nire auzoan. Eta beste zentroan gainontzeko ikasleak gaude.”*
- *“Era berean, batzuk pixka bat kinki izan daitezke eta haien erruz gainerako ijitoak lapurrak direla eman dezake, betiko ijitoa, labana daramana eta lapurtuko dizuna. Denek ez dute zertan horrelakoak izan. Gehienak ez dira horrelakoak. Itxuraz denak antzekoak direnez, denak berdinak direla pentsatzen dugu. Baina ez du zertan horrela izan.”*

Horraino gazteek eguneroko errealitatean ikusten dituzten ezberdintasunei buruz dauzkaten onarpen eta gaitzespen jarreraren gaineko analisia, eta azterlaneko datuak norberaren esperientziarekin zein neurritan erlazionatuta dauden.

Gure bigarren helburua **arrazoietan sakontzea** edo **arazoaren azalpena** aurkitzea zen.

VII

Gaitzespen jarrerak egoteko arrazoi nagusiak, batzarreko uneren batean edo bestean aipatu direnak, hauek dira: ezberdintasuna gaitzesten duen pertsonaren beldurra, ahuldadea, inbidia, gutxiagotasun sentimenduak:

- *“Gehienetan inbidiatatik gertatzen da”.*

Pertsona ezberdinak gaitzesteko jarrera horiek gazteen artean bakarrik edo gizarte osoan (eta zehatzago esateko, helduen artean) gertatzen diren aztertzerakoan, hauxe esan dute:

- *“Lan munduan, helduekin ere horrelako egoerak gerta daitezke” (bere aitaren enpresan dauden jarrera arrazistak aipatu ditu).*
- *“Gure adineko jendeak egiten badu nonbait ikusi dutelako da. Noski, gurasoei ikusi badiete..., adibidez, homosexualitatea edo emakumeak gaitzestea... hori ez duzu ikastetxean ikasten. Gutxiago sentitzea eta horregatik zu baino ahulagoa den norbaiten kontra egitea... hori bai. Baina arrazakeria eta hori guztia, gurasoei ikasten diezu edo bestela ez duzu ikasten. Zure gurasoek beti esan badizute beste arraza, etnia etab batzuetako pertsonak errespetatu behar direla, eskolara zoazenean jendea larruzala ilunago daukan norbaiten aurka egiten ikusten baduzu, ez duzu berdin jokatu: zuk ikusiko duzu hori ez dela egin behar, txarto dagoela erakutsi dizutelako. (...) Zuk zeure gurasoen portaera islatzen duzu zeure jardunean. Agian ez beti, baina gehienetan bai”.*
- *“Guraso batzuk telebista ikusten ari dira seme-alabekin eta bi mutil edo ni neska ikusten dituzte musukatzen eta esaten dute “hau nazka!”, edo antzeko zerbait. Gero seme-alabek hori kopiatzen dute”.*

Galdetu zitzaien aniztasunari aberasgarri deritzoten edo bizikidetzarako eragozpen bat den. Gai honetaz hau esan dute:

- *“Aberastasuna da... Ezberdina den jendearekin bizitzen ikasi behar da, ezberdintasuna kolorea, bizimodua nahiz beste zerbait izan. Honelako gizarte batean bizi ezin duena ez dago prestatuta, ez da modernoa. Une honetan gauza berrietarako prest egon behar dugu”.*
- *“Denetariko jendea egon behar da. Ez bazaizu gustatzen, onartu beharko duzu eta kito”.*
- *“Kultura ezberdinak ezagutuko zenituzke eta zeure kultura aberastuko. Beti ondo dago, kultura guztiek ikasi eta erabili beharreko alderdi onak dituztelako. Aniztasun handiago da”.*

Gogoetarako beste kontu bat gaitzespenaren bizipena izan da. Eskatu zaie baztertutako lagunen baten lekuan jar daitezela edo gaian duten esperientzia azal dezatela. Haien iruzkinak eta gogoetak asko izan dira. Baztertutako pertsona batek bere lagunen artean aurki ditzakeen babesen artean hauek izan ziren iruzkinetako batzuk:

- *“Nire ikasgelan badago oso isila zen neska bat (...). Hasieran gauzak esaten zizkieten (...). Baina egun batean nekatu zen eta negarrez hasi zen. Egund hartan kon-*

turatu ginen gaizki zegoela eta denak hurbildu ginen berarengana. Zerbait gertatu arte... ez zara konturatzen gaizki pasatzen ari dela”.

- *“Ez dauka babesik” (batek baino gehiagok esan dute hau).*
- *“Baztertuta dagoen norbaiti lagundu nahi badiozu botere handia izan behar duzu. Bestela gainerakoek zeu baztertuko zaituzte, besteengandik ezberdina zarelakoan. Besteak baino gutxiagotzat jotzen den norbaiti laguntzeko, karisma edo autoritate handia izan behar dituzu.”*
- *“Institutuan zeure burua defendatzen ez baduzu ez du inork egingo”.*
- *“Neskek gehiago babesten dute elkar. Guk ez diogu elkarri hainbeste laguntzen”.*
- *“Neskak krudelagoak dira” (zenbait neskek esan dute).*

Berdinen taldean liderra den pertsonaren paperaz eta pertsona ezberdinak seinalatzeko edo baztertzeko mekanismoaz (hori lidergoari oso lotuta dagoela uste baitute), hauek dira haien ekarpenetako batzuk:

- *“Nik uste dut liderrak, normalean, ez diola babesik ematen baztertuta dagoenari, askotan liderra bera baita baztertzaillea”.*
- *“Pertsona bati etiketa bat jartzen zaionean ez zaio bizitza osoan kentzen”.*
- *“Mutilen artean indartsuena da liderra, baina nesken artean, gehien kritikatzten duena da. Eta zu ez zaitzan kritikatu, haren alde jartzen zara.”*
- *(mutilen artean) “indartsuena,” “gehien jotzen duena”*
- *(nesken artean) “politena, hoberen janzten dena edo edaten duena”*
- *“Errepikatzailearen bat izan ohi da”.*
- *“Liderrak. Nik uste dut pertsona horrek gauza askotan bere burua gutxiesten duela eta ikusten duela beste bat agian hobea dela gauza batzuetan. Liderrak ikusten du bera ez dela beste bat bezain ona, beste batek nota hobea dituela edo kirolari hobea dela; orduan haren kontra egiten du, barregarri uzteko eta baztertzeko. Horrela ematen du bera dela onena”.*

Irakasleen artean eta zehazki tutoreen artean izan ditzaketen babesei buruz:

- *“Egiten dutenak krudelak dira baina bizkorak. Ondo egiten dute”.*
- *“Irakasle batzuk konturatzen dira eta beste batzuek ez dute konturatu nahi. Ez dute arazorik gura”.*
- *“Tutore ona egokitzen bazaizu, benetan honetaz kezkatzen dena, lagundu zaitzake. Baina daukazu tutorearen arabera betiere”.*
- *“Baina ez zaio daukan garrantzia ematen”.*
- *“Baina tutorea, bullying egiten dutenen artean, taldekoa ez den norbait da. Ez ditu inoiz konbentzitzen ez dezaten horrelakorik egin. Taldeko norbait saiatu beharko litzateke, bere ideiak dituen eta “nire ustez hau ez dago ondo” esaten duen norbait. Beti dago egin dezakeen norbait. Ausartzea besterik da. Tutoreak ez du hainbeste konbentzitzen, kanpoko delako”.*

Batzartutako batzuek esan dute ezagutzen dutela eskolan jazarria izan den eta horregatik eskolaz aldatu den norbait (haien ikastetxetik beste batera joan delako edo beraien

ikastetxera etorri delako), eta beren inguruan sufrimendu handiko egoerak ezagutzen dituzte. Gainera, esan dute biktimek zailtasun handiak dituztela laguntza jasotzeko (batez ere bere berdinegandik) eta egoera horretatik irteteko.

Honelako gaitzespen jokabideak egoteko arrazoi nagusiak, batzartutakoen esanetan, sentimenduekin lotuta daude: gaitzeslearen beldurra, ahuldadea, inbidia, gutxiagotasun sentimendua. Batzartutako gehien-gehienek esan dute sentimenduez batzuetan gurasoekin eta besteetan lagun minarekin hitz egin daitekeela.

Aztertu den beste gai bat da ikasgelan baztertutako pertsonengana hurbiltzeko teknologia berriak erabil daitezkeela. Zentzu horretan, batzartutakoek garrantzi handia eman diote koherentzia pertsonalari:

- *“Oso doilorra da berarekin ordenagailuaren bidez hitz egitea baina ikasgelan ez egitea besteek gaizki begiratuko dizutelakoan. Mutil horri merezi duen tratua eman ahal badiot, ikasgelan egingo dut eta jendea konturatu dadila.”*
- *“Ez da logikoa. Norbaiti laguntzen saiatzen bazara, erakutsi behar diozu lagundu nahi diozula, eta ez besteen aurrean ondo geratu.”*

Azkenik, arazoa eta balizko arrazoiak aztertu ondoren, kontseilu-kideei eskatu zaie arrazakeria, matxismoa, homofobia eta abar nola **galazazi, murriztu edo gainditu daitezkeen pentsa dezatela**. Ikastetxeei, lagun taldeari, familiei, tokiko agintariei, Arartekoari eta abarri **proposamenak egiteko** eskatu zaie. Haien proposamenak eskolari, gurasoei eta telebistari zuzenduta daude. Hauek dira:

- *“Ikastetxean joko hezitzaileak (kultura ezberdinak...)”*
- *“Irakasleekin hizketaldi interaktiboak bullying, arrazakeria eta abarrekoen buruz.”*
- *“Eskolen arteko batzarrak.”*
- *“Tutoretzari dagokion funtzioa eman. Askotan tutoretzan ez da gauza hauetaz hitz egiten.”*
- *“Telebistan programazio hezitzailea jartzea, baztertutako pertsonak jakinaraztera animatzeko edo laguntzeko.”*
- *“Baztertutako pertsona eta ikaskideak elkartu eta dauzkaten arazoak elkarri esan araztea. Ikasgelan, tutoretzan, arazoari heldu.”*
- *“Ikastetxeetan txikitatik jendea nahastu (neskak, mutilak, arrazak...). Aniztasunera ohitu daitezela.”*
- *“Gurasoen eskola. Pertsona ona izateko... gurasoek irakatsi behar dituzte balioak. Beti daukazu harreman berezia gurasoekin. Ezberdina da tutorearekin edo lagun batekin. Ondo dago lagun batek laguntzea, baina lagunak lagunduko bazaitu nonbait ikasi behar du, eta hori gurasoek irakasten dute. Dena den, ez dut esan nahi gurasoen eskola derrigorrezkoa izan behar denik.”*
- *“Telebistatik eduki arrazista duten programak kentzea.”*
- *“Taldekako lanak egitean pertsonak nahastu ahal dira, elkarrekin egon daitezten. Jendea nahasten baduzu, bizikidetzatza ikasten dute.”*

- “Guk ikasgelan geure argazkiak eta kartoi mehe bana jarri ditugu, aldatu behar ditugun akatsak jartzeko eta jendeak txarto hartzen duena idazteko.”

Hona hemen Kontseiluaren lehenbiziko lan-batzar horretatik ateratako ondorio nagusiak, batzarrean aztertutako gaiak buruz (pertsonek ezberdinak onartzea eta gaitzestea):

1. **Itxura fisikoak** eragiten dituen ezberdintasunak oso garrantzitsuak dira jendea baztertzeko. Arartekoak orain arte aztertu dituen lau ezaugarriek (mutila/neska ezberdintasunak, ezindutako pertsonak, etorkinak, homosexualak) ez omen daukate itxura fisikoak daukan garrantzia nerabeek bizi dituzten eguneroko gaitzespen jarretan.

Lodia izatea, ezberdin janztea, oso argala eta altua izatea, ia beti arropa berbera janztea... eta itxura fisikoaren inguruko beste ezaugarri batzuk dira, kontseilu-kideen ustez, gaitzetsia edo baztertua izateko arrazoi nagusia.

2. Beste pertsona batzuk ezberdinak izateagatik **baztertea**, bildutako guztien ustez, **eguneroko errealitatea da**. Denek esan dute ikasgelako edo institutuko ikaskide batzuek bizi dituzten bazterketaren eta sufrimenduaren berri dakitela.
3. **Familiari** garrantzi handia ematen diote balioen transmisioan eta babes pertsonalean (sentimenduak entzutea eta aztertzea).

7.2. Haurrek drogen kontsumoari buruz duten iritzia

2010ean argitaraturiko txosten berezietan buruzko V. kapituluak, apirilean aurkezturiko txosten honen laburpen zabala aurkeztu da: [EAEko erakundeek jarduna nerabeen droga kontsumoaren arloan](#).

Txosten horren 5.3. kapituluak, nerabeek hainbat gaitan dituzten iritziak eskaintzen dira: zer da haien prebentzioa; nor da haien ustez toxikomanoa, zergatik kontsumitzen dute; drogak lortzea erraza zaien; adinak edo sexuak kontsumoan duen eragina; nola sailkatzen dituzte drogak “haiek”, nola baloratzen dute eragile sozialen esku-hartzea (polizia, eskola, familia, hedabideak...). Gai honetan eta haiek tartean hartzen dituzten guztietan, oso garrantzitsua deritzogu adingabeen iritzia jasotzea: haien iritzia zuzenean ezagutu.

Nerabeen ikuspuntua ezagutzeko, hiru eztabaida-talde antolatu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Taldeak lotura bakarrarekin osatu ziren, osararen loturarekin, alegia. Hala, bada, 14 urtetik 17 urtera bitarteko 8-12 nerabek osatutako hiru talde eratu ziren, generoen ordezkapena berdina izan zedin saiaturik. Errealitate bat baino gehiago ordezkatu zegoela ziurtatzearen, lanbide hastapenentarako ikastegi bateko, ikastetxe pribatu bateko eta astialdi klub bateko neska-mutilen iritziak jaso ziren.

Iritzi guztiak izenik eman gabe jaso ziren, adingabeen identitatea babesteko. Saioak era sistematikoan grabatu eta transkribatu ziren. Transkribapen horiekin azterketa kualitatiboa nahiz edukiaren azterketa egin dira, eta horien emaitzak txostenean jaso dira.

Jarraian, emaitzen laburpena emango dugu; izan ere, jarduteko zenbait modu zalantzan jar-tzen lagun diezaguketen emaitzak:

1. Informazioa jasotzea da nerabeek droga-mendekotasunak prebenitzeari buruz duten kontzeptua, eta bai, informazioa jaso, jasotzen dute, gehienbat, tutoretza orduetan eskolako mintzaldien bitartez. Alabaina, modu aktiboagoan jaso nahi dute informazioa, ez entzule gisa soil-soilik, hau da, hizketan jardun eta dituzten zalantzak profesionali planteatuz. Era berean, zalantzak jendaurrean adieraztearen beldur dira, horrenbestez, komenigarri da konfiantza giroa sortzea, bai eta, konfidentzialtasun giroa ere.
2. Bide parenteraleko heroinaren kontsumoa da okerren ikusten dena, eta toxikomano edo heroinaren mendekoei buruzko kontzeptua ez da horretara mugatzen. Izan ere, asteburuetan soilik edo eguneroko bizitzaren erritmoa jarraitzeko kontsumitzen dute-nei zabaltzen zaie kontzeptua.
3. Kontsumitzeko arrazoi nagusia aisialdia eta gozamena luzatzearena da.
4. Argi dute zein den edozein droga mota eskuratzeko modua, eta ez dutela eragozpenik kontsumitu nahi duten substantzia lortzeko.
5. Adinari dagokionez, euren ustez, gazteek alkohola gero eta lehenago probatzen dute. Zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta argiago ikusten dute alkoholaren gehiegizko erabilera oso goiz hasten dela, bai eta eragiten dituen ondorioak ere. Sarri askotan, 16 urteko neska-mutilen testigantzak oso kritiko dira 13-14 urtekoen kontsumoekiko, eta ia eskandalizatu ere egiten dira.
6. Gizonezkoak ez bezala, kontsumitzen duen emakumea ez dute begi onez ikusten.
7. "Drogak klasifikatzeari" dagokionez, eta informatuak badaude ere, oraindik mantentzen dira zenbait mito substantzia jakin batzuk kontsumitzeari loturiko arriskuen kont-tuan, era berean, alde batetik, legezko drogak eta droga bigunak, eta bestetik, legez kanpoko drogak eta droga gogorak erlazionatzeko nolabaiteko nahastea dago. Horren ondorioz, –uste okerra bada ere– arriskuaren pertzepzioa txikiagotzen da legezkotzat jotako substantzietan.
8. Gehienak *cannabisa* legeztatzearen alde daude. Hain zuzen ere, haren kontsumoaren normaltasunaren eta egunerokotasunaren eta egoera juridikoaren (debekua) artean dagoen ageriko kontraesana salatzen dute.
9. Halaber, tabakoaren kontrako legearen egiazko betetzeari kritika handia egiten diote.

10. Taldean onartzen diren kontsumoei buruz eta onartzen ez direnen buruz, euren kodeak dituzte.
11. Oraindik ere familia hartzen dute erreferentzia nagusitzat. Alderantziz, poliziaren esku hartzeen inguruko ikuspegi zeharo negatiboa dute.
12. Kontraesan handia ikusten dute helduek esaten dutenaren eta egiten dutenaren artean. Hau da, euren ustez helduek esaten dute gazteek ez dutela drogarik hartu behar, baina helduen jarrera ez dator horrekin bat.

Nerabeekin antolatutako lan taldeetan jaso diren iritzi eta balioztapen horiek zein beste askok gogoeta elementu gisa balio behar digute, bai eta, gauzatzen ditugun politikak eta ondorioak berrikusteko tresnak ere.

8

ONDORIOAK

8. ONDORIOAK

Ez da erraza aurreko orrialdeetan azaldutakoa laburbiltzen, zeren eta arazo, behar, baliabide, profesional eta erakunde ugari aipatu izan baitugu. Hala ere, gure ustez zenbait arloren bilakaeran adi izateari eutsi behar diogu, eta horiexek azalduko ditugu; ez, ordea, sakondu.

Babesik ez izateko arriskuan edo babesik gabe dauden haurren arloan, zenbait elementu ikusita, jarduteko eta familiei laguntzeko apustu irmoagoa behar dela deritzogu: neurri handi batean, udaleko gizarte zerbitzuen aldetik, protagonistak baitira, egoeraren babes maila oraindik handia ez bada ere eta testuinguru naturalean eta testuinguru naturaletik jardun daitekeenean; kalitateko laguntza iraunkorraren bidez, familia harreretan, bai adingabeari dagokionez, bai harrerako familiari dagokionez batez ere; familiarekiko jarduera areagotuz egoitzako harreran dauden haurrak eta nerabeak direnean.

Lagundu gabeko adingabe atzerritarren egoera berezia eta, beraz, aurreko lerroaldean azaldutakoa aplikatzeko familiarik ez dela-eta, babesik gabeko haurrak izanik ere, ikusitako arazorik ohikoenak hauexekin loturikoak dira: harrera protokolo ezberdinak, lurralde historiko bakoitzean irizpide ezberdinak erabiliz (bereziki adina ezartzeari dagokionez), eta horrek ondorioak dakartza babes sisteman sartzeko edo baztertze, edo egoitza baimena emateko betebeharra ez betetzea. Horiek guztiak ageri dira [Haurren Eskubideen Batzordeak](#) Espainiari eginiko azken oharretan ere.

Babes sistematik datozen adingabeen proportzio altuaren gainekoak dira **adingabe arau-hausleen** inguruko elementurik kezagarrienak, baita familiako eta bikotekidearen kontrako indarkeria delituen etengabeko igoerarekin zerikusia dutenak ere.

Hezkuntza arloari dagokionez, eta zehatzago, **hezkuntza behar bereziak** dituzten haurren eta nerabeen arreta denaz bezainbatean, familiekiko lankidetzak hobetzearekin dago lotuta berriz ere arazo nagusia kasu guztietan. Gainera, gizarte mailan kaltetuen dauden pertsonak eta taldeak direla-eta, badirudi lanean jarraitu beharra dagoela bereizkeriak edo eskolako ghettoak galarazteko. Horretarako, komenigarria izango litzateke konpentsazio politikak eta zailtasun handienak dituzten ikastetxeekiko diskriminazio positiborako neurriak areagotzea.

Familiekiko komunikazioa eta lankidetzak ere funtsezkoak dira **eskola jazarpenean** ere, berriz bizikidetzak planei eta ikastetxeak horretarako bideraturiko beste tresna horiei garrantzirik kendu gabe. Esperientzia arrakastatsuak partekatzeko eta zabaltzeko unea iritsita, planak dokumentu *inerte* bihurtzean datza arriskua, tresna *biziak* izateko duten ahalmenari etekinik atera gabe.

Nahiz eta osasun sistemarekiko informazio zuzena eskuratzeko modurik izan ez, haurrekin eta, batez ere, nerabeekin harremanetan diren beste sistema batzuetako gizarte eta erakundeetako eragileek behin eta berriz aipatzen dute haurren eta gazteen osasun mentalaren arreta, beharrik premiazoena den aldetik, adingabeen osasun eskubideari dagokienez. Horiei erantzuna emateko beharren eta baliabideen diagnostiko hobea izanik

abiapuntu hartuta, aurrera egin beharreko zenbait alderdi ere aipatu dira baliabideen eta sistemen arteko koordinazioaren hobekuntzan.

Gizarte erakundeen azterlanetan eta txostenetan aipatzen denez, gora egin du **haurren pobrezia**, **Cáritas** erakundeak pobrezia buruz egin duen azken txostenean esaterako, edo **Haurren Erakundeen Plataformak Espainiako Haurren Eskubideen Konbentzioaren aplikazioko III eta IV txostenen txosten osagarria**. Nahiz eta EAEn gai horren inguruko diagnostiko argirik ez dugun, VI. Kapituluaren genioenez, halaxe dela irizten diote harremanetan izan ohi garen gizarte elkarteek eta profesionalak. Datu horien erakusgarri izango lirateke zenbait familiaren urritasunaren inguruan jasotako kexak.

Azkenik, haurren eta nerabeen bizi-baldintzak hobetzeko jarduerak azaltzeko izan diren orri askoren testuari amaiera emateko, **haurrek parte hartzeko** prozesua hobetu beharra azpimarratu behar dugu, eurekin etorkizuna eraikitzeko eta haien iritzia aintzat hartzeko haiei eragiten dieten gaietan. Ildo horretan, bat egiten dugu arestian esan dugun Haurren Erakundearen Plataformarekin haxe aldarrikatzen duenean: *haurrek eurei eragiten dieten eremuetan parte hartzeko egitura egokituak eta egonkorak sustatzea*, metodologia dibertigarriekin eta erakargarriekin diseinaturiko partaidetza-prozesuak ere. Aldez aurretik hauexek argituko dituzte metodologia horiek: nori iritsiko zaizkion ideiak, zer egingo den haiekin eta politikak garatzeko arduradunekin elkarteko eta elkarri eragiteko aukera. Ez dezagun ahantz, gainera, antzeko zerbait adierazi duela Haurren Eskubideen Batzordeak Konbentzioaren 44. artikulua dela bide parte hartu duten estatuek aurkezturiko txostenen azterketaren dokumentuak dakarren 30. oharrean.

TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

9. TAULEN ETA GRAFIKOEN AURKIBIDEA

9.1. Taulen aurkibidea

1. taula.	Adingabeen bilakaera lurralde historikoaren arabera (1991-2010)	20
2. taula.	18 urtetik beherako adingabeen datuak adin, sexu eta lurralde historikoaren arabera 2009an.....	21
3. taula.	Arabako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen eta espedienteen kopurua (2009 eta 2010).....	50
4. taula.	Adingabeen kopurua familia banantzeko babes neurrien arabera (2009 eta 2010).....	51
5. taula.	Arabako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010).....	53
6. taula.	Arabako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazioari buruzko datuak (2009 eta 2010).....	53
7. taula.	Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen eta espedienteen kopurua (2009 eta 2010).....	60
8. taula.	Adingabeen kopurua, familia banantzeko babes neurrien arabera (Bizkaia, 2010).....	61
9. taula.	Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010).....	62
10. taula.	Bizkaiko Foru Aldundiko egoitza baliabideetan arreta jaso duten lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio egoerari buruzko datuak (2009 eta 2010).....	63
11. taula.	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiak izapideturiko espedienteen kopurua (2009 eta 2010).....	66
12. taula.	Gipuzkoako Lurralde Historikoko Foru Aldundiaren arreta jaso duten adingabeen kopurua (2009 eta 2010).....	66
13. taula.	Adingabeen kopurua familia banantzeko babes neurrien arabera (2009 eta 2010).....	67
14. taula.	Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren kopurua (2009 eta 2010).....	69
15. taula.	Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza baliabideetan hartutako lagundu gabeko adingabe atzerritarren administrazio egoerari buruzko datuak (2009 eta 2010).....	70
16. taula.	EAE buruturiko neurrien kopurua (2009 eta 2010).....	80
17. taula.	EAE Hasierako Lanbide Gaitasuneko Programak dituzten zentroyen kopurua, lurralde historikoaren eta erakunde titularraren arabera	90
18. taula.	EAEko Lanbide Hastapeneko Gaitasuneko Programak dituzten taldeen kopurua, lurralde historikoaren eta erakunde titularraren arabera	91
19. taula.	EAE Hasierako Lanbide Gaitasuneko Programetan matrikulaturik dauden ikasleen kopurua, lurralde historikoaren eta erakunde titularraren arabera	91
20. taula.	Berdinen artean izandako tratu txarren bilakaera azken ikasturteetan (2006-2007tik 2009-2010era) lurralde historikoen arabera. Jasotako kasuak.....	93

21. taula.	Berdinen artean izandako eta Hezkuntza Ikuskaritzak jasotako tratu txarrak, lurralde historikoaren eta sexuaren arabera. 2009-2010 ikasturtea.....	93
22. taula.	Berdinen artean izandako eta Hezkuntza Ikuskaritzak jasotako tratu txarrak, lurralde historikoaren eta eskolatzeko mailaren arabera. 2009-2010 ikasturtea.....	94
23. taula.	Hartutako neurriak eta izapidetzearen egoera lurralde historikoaren arabera. 2009-2010 ikasturtea.....	95

9.2. Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa.	Kexen banaketa adingabearekiko erlazioaren arabera.....	36
2. grafikoa.	Bazterturiko eta tramitera onarturiko kexen ehunekoa.....	37
3. grafikoa.	Kexen banaketa gaien eremuaren arabera.....	37
4. grafikoa.	Bazterturiko kexak: Baztertzeko zioak.....	40
5. grafikoa.	Salaturiko tratu txar mota.....	94